

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2013-2014 Ikasturtea

Ikerketa lana

MIGRAZIOAK PROZESU GISARA:

**BIZIRAUPEN ESTRATEGIAK ETA IDENTITATE
BERRERAIKUNTZAK 60ko HAMARKADAKO MIGRAZIOEN
HARIRA**

Egilea:

Amaia Rodriguez Oñatibia

Tutorea:

Nerea Aresti Esteban

2014ko Iraila

AURKIBIDEA

1- SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
2- HELBURU ETA HIPOTESIAK	5
3- MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA	7
3.1 Ikuspuntu historiografikoa	8
3.2 Ikerketa kategoriak	12
3.2.1 Migrazio prozesuak	12
3.2.2 Generoa	14
3.2.3 Lana eta biziraupen estrategiak	17
3.2.4 Identitateak	19
3.3 Ahozko iturriak eta bizitza historiaren metodologia	23
4- ITURRIAK	24
5- IKERGAIAREN EGOERA	25
5.1 60ko hamarkadako migrazioei buruzko hainbat ezaugarri	26
5.2 Migrazioak eta biziraupen estrategiak	28
5.3 Genero eta klase identitateak:	
migrazio eta desarrollismoaren eraginak	32
6- ANALISIA	38
6.1 Testuinguru historikoa	38
6.1.1 Estatu Berria:	
Estatu frankistaren eraikuntza genero ikuspuntutik	38
6.1.2 Aldaketa makroekonomikoak:	
Desarrollismoaz Europara egokitzen	43
6.1.3 Desarrollismoa eta Euskal Herrirako migrazioak	46
6.2 Migrazioak prozesu gisara: bizitza historiak	51
6.2.1 Zergatiak, asmoak eta espektatibak	52
6.2.2 Erabakiak hartzeko modu eta eraginak	57

6.3 Biziraupen estrategiak eta ibilbide ezberdinak	59
6.3.1 Enplegua eta etxea	59
6.3.2 Sozializazioa, harremanak eta elkartasun sareak	63
6.4 Migrazioaren esperientzia eta identitateak	68
6.4.1 Klase identitatea eta genero diferentzia	68
6.4.2 Genero identitatea	73
6.4.3 Jatorria: lotsa eta pertenezia kolektiboaren harrotasuna	84
7- ONDORIOAK	89
8- BIBLIOGRAFIA	94

1- SAR HITZA ETA JUSTIFIKAZIOA

Lan hau idazten duen honek, gertutik bizi izan du migrazioaren fenomeno bizi den hiriko auzoan nagusi baitira orain hamarkada batzuk espainiar Estatutik iritsi zirenak. Paisaia natural sentitzen duen gertutasun baina aldi bereko urruntasun horretatik, ezezagunaren jakin-minetik, abiatu zen orain hilabete batzuk bidai aberasgarri honetara.

Jakina den moduan, Frankismo garaiko 50 eta 60. hamarkadetan Hego Euskal Herrira Estatu osoko pertsonak lekualdatu ziren, masan, baina tantaka. Migrazioaren fenomeno berria ez baldin bazen ere, garaiotakoak zeharo aldatu zuen ingurunea, kopuruak handiak izan baitziren. Guk, lekualdatuak eurak guzti hori nola bizi eta prozesu horrek berak nola aldatu zituen jakin nahi dugu, eta bide horretatik, ekarpena egin. Garrantzitsua da guretzat, beraz, pertsona horiei aurpegia eta ahotsa jartzea, beraiek soilik eman diezaguketelako esperientzia horren berri, guk desio dugun moduan behintzat.

Migrazioa ez da leku batetik irten eta beste batera iristen den momentuan amaitzen. Migrazioa, kontzeptu demografiko batetik haratago, edukiz eta esanahiez betetzeko saiakera eta proposamena da honakoa. Horretarako, hori bizi izan zutenen horrek zer esanahi izan zuen galdetzea da gakoa, gure ustetan. Erabakia nola hartzen den, zergatik egin duen, iristean nola moldatu ziren kontutan hartzea beharrezkoa izango da hori jakiteko. Azken finean, nor bere burua eta bere mundua nola definitzen duen ulertzeko, esangura horiek ulertzeko, aipatutakoa galdetzeaz gain, testuinguru historikoari dagokion garrantzia ematea beharrezkoa den bezalaxe.

Ezaugarri komun batzuk dituzte lekualdatutakoek. Horietan garrantzitsuenetakoa, leku ezezagun batera eta lehenago funtsezkoak izan ziren baliabiderik gabe iritsi izana da. Halako egoerei nola egin zieten aurre aztertzea interesgarria da, horrek ere, migrazioak berak suposatzen dien identitate eraldaketan parte baitira. Ez genuke, ordea, behar materialez soilik hitz egin nahi; pertsonen ari garen heinean, sostengu afektibo eta emozionalak berriro eratzen hastea aurki daitekeen baliabide falta handienetako bat den heinean. Beraz, honakoa ere, elkarren arteko hari horiei merezi duten arreta eskaini eta dagokien inportantzia aitortzeko parada izango da.

2- HELBURU ETA HIPOTESIAK

Helburu Orokorra:

50 eta 60. hamarkadetako migrazio prozesuak ulertzea, helmugara iristean migranteek biziraupenerako zein estrategia martxan jarri zuten ezagutzea eta lekualdaketa horrek zein testuinguru berriak pertsona horien identitateetan zer nolako eraldaketak eragin zituen ezagutzea.

Helburu espezifikoak:

1. Migrazio prozesuen nondik norakoak ezagutzea

Migrazioa ez dugu lekualdatze sinple gisara ulertzen, prozesu baten gisara baizik. Hortaz, lekualdatzeko erabakiaren nondik norakoak aztertu nahiko genituzke: erabakia hartzeko zergatiak, erabakia hartzeko moduak, helmuga zen horrekiko espektatibak, lekualdatzea bera nola gauzatu zen, nortzuk parte hartu zuten, nondik zetozen, bertan sare ezagunik bazuten edo ez, eta abar.

2. Lekualdatu zirenen biziraupen estrategiak ezagutzea

Migranteek egoera berri eta ziurgabeari nola egin zioten aurre ezagutzea. Hots, bizirauteko ekonomikoki zein estrategia erabili zuten ezagutzea da asmoa. Batetik, merkatu formal zein informala bitartez behar monetarioak nola ase zituzten ezagutu nahiko genuke. Bestetik, merkatutik pasatzen ez diren beste etxeko eta zaintza lanak aurrera atera ahal izateko zein estrategia erabili zuten eta behar afektiboak nola ase zituzten aztertu nahiko genuke.

3. Lekualdatzeak zein testuinguruko diskurtso aldaketek beren identitateetan nola eragin zuen ezagutzea

Identitateak etengabeko eraldaketan daudela ulertzen dugu; behin eta berriro eraiki eta deseraikitzen ari direla. Ulertzen dugu migrazioa bezalako testuinguru aldaketa batek (landatik hirira, familiarretik ezezagun artera, komunitate baten partaide izatetik bestean arrotz –edo ez- sentitzera, zeregin eraldaketa, arau kultural ezberdinak) eraginak dituela norberaren identitatean; horiek zer-nolakoak izan ziren aztertzea da asmoa. Horretaz

gain, testuinguru historiko zehatz batean kokatzen ditugu migrazio horiek. Izan ere, lekualdatzeak gauzatzen diren garaian desarrollismoak dakartzan ideia eta diskurtso berriak hasten dira zabaltzen. Gure asmoa da diskurtso berri horiek zaharragokoekin nora arte egiten duten talka, eta zer eragin duten pertsonen identitateak eraldatzerako garaian.

Hipotesiak:

1. Hasiera batetan migrazioa zergati ekonomikoengatik egin zutela esango diguten arren, beste hainbat zergatik ere pisua izan zutela uste dugu (hirian etorkizun hobe bat, lana, eta abar zain zeudela pentsatzea). Hau da, behar ekonomikoez gain, lekualdatzearen gain jarritako espektatiben arteko uztarketa izango dela lekualdaketa zioa. Lekualdaketa hori errazten zuen faktoreetako bat ezagun batek lehenago bidea ireki izana izan zela uste dugu. Oro har, familia osoa lekualdatuko da.
2. Familiako kideen arteko funtzio banaketa bizirauteko estrategiak ulertzeko klabea izango da. Zentzu horretan, sexuaren arabera lan banaketa bat aurreikusten dugu: gizonak lan merkatu formalean jardungo dira, modu erregularrean ziurrenik. Bestalde, emakumeak jardun ezberdinetan aritu zirela aurreikusten dugu: merkatu informalean, irregularki, etxeko lanetan, eta abar. Hala ere, desarrollismoaren ideiek aurrera egin ahala mapa hau berregituratu edo eraldatuko dela uste dugu.

Biziraupenerako estrategia hauetan sareak elementu garrantzitsu izan zirela aurreikusten dugu. Horien bitartez beharrak (materialak, afektiboak, psikologikoak) asetzen zirela uste dugu.

3. Migrazio prozesuak (lekualdaketa zein bere eraginek) identitateetan eragina izan zuela uste dugu, hala nola komunitatearen parte sentitzeko moduetan. Generoaren arabera identitate berezituak aurreikusten ditugu, diskurtso hegemonikoak hori arautzen baitzuen, inplizituki nahiz esplizituki. Hala, guzti hauek nolabait eraldatuko edo gatazkan sartuko dira desarrollismoarekin batera garatu ziren diskurtso modernoek eraginda eta horiekin batera.

3- MARKO TEORIKO - METODOLOGIKOA

Gure ikerketaren helburua Frankismo garaiko migrazioaren esperientziak jasotzean eta horrek lekualdaketa burutu zutenengan zer nolako esanahia izan zuen jakitean datza. Gauzak honela, hori analizatu ahal izateko zein tresna teoriko erabiliko dugun definieza da puntu honen asmoa. Lehenik eta behin ikuspuntu historiografikoaz arituko gara, hain zuzen ere, ulertzen dugulako hori definitzeak berebiziko garrantzia duela, eta ikuspuntu zehatz baten bitartez ikerketa egiten dugula ukatzea gezurra litzatekeelako.

Hori argiturik, kategoria zehatz batzuk izango dira gure tresna. Migrazioak prozesu bezala definituko ditugu, sorteri edo abiapuntutik hasten den prozesu gisara, alegia. Migratzeko modu, arrazoiketa, erabaki-hartze, helmuga, helburu eta gainontzeko faktoreak kontutan hartuko ditugu horretarako. Beraz, migrazioak aztertzeo objektibotzat jo izan diren zergati edo faktore estrukturaletatik haratago joko dugu. Bestalde, generoa analisi historiko honetarako kategoria gako bat izango da, sexuei atxikituriko esanahi ezberdinduen gisara. Esanahi horiek bere dinamikotasunean eta historikotasunean ulertzen ditugu. Hau da, erabilitako kategoria bakoitza testuinguru eta momentu historiko zein sozial zehatz batetan garatzen dela. Maskulinitatea eta feminitatea elkar dependentzian bizi eta elkar eragiten dira, eta bata bestearekiko harremanean. Horretaz gain, kategoria horiek etengabeko eraldaketan daudela uste dugu.

Honek beraz, identitateak nola ulertzen ditugun azaltzea garrantzitsua da. Generoa bezala identitarioak diren gainontzeko kategoriak ere testuinguru sozial eta historiko konkretu batetan kokatzen ditugu. Eta hortaz, hauek ere etengabeko eraldaketa eta eraikuntzan daudela. Besteak beste, klase zein jatorriaren kategoriak landuko ditugu ikergai honi egokitzen zaizkiolakoan. Hau da, testuinguru sozial, ekonomiko, historiko, pertsonal eta abarrak identitatean eragiten dutela uste dugu. Zentzu horretan, uste dugu migrazioa bezalako prozesu batek identitate eraldaketak dakartzala, definitzeko hainbat elementu lehen lerroa pasa daitezkeelako lekualdatze hori dela eta.

Azkenik, lanaren kontzeptuan eta biziraupen estrategien kontzeptuan sakondu nahiko genuke. Hau da, lekualdatu osteko egoerari nola erantzun eta aurre egiten zaion aztertu nahiko genuke. Horretarako, beraz, zein familia antolaketa, zein lan banaketa eta finean, zein biziraupen estrategia garatu zituzten aztertuko dugu, betiere lana kontzeptu zabal

gisara hartuz, eta ez soilik merkatutik igaro eta monetarioki baloratzen den ekintza gisara.

3.1 IKUSPUNTU HISTORIOGRAFIKOA

Ikerketa honi dagokion moduan heldu ahal izateko, landu behar dugun lehenengo gaia ikuspuntu historiografikoarena da. Izan ere, horren arabera gure ikerketak ikuspuntu edo lan egiteko modu bata edo bestea edukiko baitu.

Gure ikerketa historia sozialaren eta diskurtsoaren historiaren korronteen baitan kokatzen dugu. Batetik, migrazioak garaiko gizarte eraldaketan lagundu eta eragin zuen gertakari sozial esanguratsutzat ditugun heinean, baina, bestetik, subjektuek hori nola bizi izan zuten, gertakari hori nola ulertu eta horren eraginez beren identitate eta pertzepzioak nola eraldatu ziren aztertu nahi dugulako.

Hala, errealitate objektiboak daudenik ukatzen dugu. Ez ordea, baldintza materialak daudenik eta horiek ekintzak baldintzatzen dituztenik. Beraz, egitate objektiboetatik eta subjektiboetatik haratago doan korrontean kokatzen gara, dikotomiak hausteko hautu kontzientea egiten duena.

Baldintza materialez hitz egiten dugunean subjektuek duten posizio soziala kontutan hartzeaz ari gara, noski. Zentzu honetan, fenomeno errealak objektibotzat jotzen ez ditugun arren, berebiziko garrantzia du arreta bertan paratzeak: protagonisten maila soziala, ekonomikoa, kulturala, jatorria, lanbidea, generoa, eta abar.

Dikotomiak gainditzeaz ari garenean, baldintza material horiek (ekintza sozialak baldintzatzen dituztenak) objektibotzat ez hartzeaz gain, posizio sozial horrengatik portaera esentzial edo natural bat edukitzea ukatzeaz ari gara. Diskurtsoaren historiaren korrontearen arabera, eta guk bat egiten dugu, errealitatea ez da kontzientziara bere kabuz edo automatikoki inkorporatzen, errealitatearen kontzeptualizazioaren bitartez baizik. Hau da, baldintza materialek ekintza sozialak baldintzatzen badituzte ere, ez horri zein esanahi ematen zaion edo nola ulertzen den.

Beraz, argi duguna da gure ikerketa honetan zehar ez garela faktore estrukturaletan soilik geldituko eta gure ikergaiaren objektu-subjektu direnek baldintza horien aurrean zein esperientzia eduki zituzten eta esperientzia horiei zein esanahi ematen dioten

jakiten saiatuko gara. Zentzu honetan bat egiten dugu Scottek esperientzia kontzeptuari egiten dion kritikan¹. Hain zuzen ere, ikerketa historikoan protagonisten ekintzak zeintzuk izan ziren jakiteaz gain, pausu bat haratago joatea proposatzen du: protagonistak eurak beren ekintza horiei edo beren bizi-esperientziei zer nolako arrazoi edo esanahi ematen dieten jakiteko. Izan ere, esperientziak auto-ebidenteak ez direla dio Scottek, eta hortaz, ezin direla gure ikerketetako azalpenen oinarri izan, esperientziak eurak ere azaldu behar ditugulako². Cabrerak laburbiltzen duen moduan:

Baldintza sozialak estruktural bilakatzen dira eta [subjektuen] praktikaren faktore kausal baten gisara operatzen hasten dira beren izate material soilagatik baino, esanahia duen izatea lortzen dutenean³.

Gauzak honela, aurrera egin ahal izateko diskurtsoaren kontzeptuarekin topatzen gara, eta hori definitzeko beharrekkin. Diskurtsoaz ari garenean, testuinguru historiko zehatz batetan garatzen den kategoria multzoaz ari gara, esanahiak sortzen dituen kategoria multzoaz, alegia. Diskurtsoaren bitartez esanahiak eraikitzen dira eta praktika kultural zein sozialak antolatzen dira, horien bitartez pertsonak beren mundua ulertuko dutelarik. Errealitatearen irudi batez ari gara, beraz, diskurtsoaz ari garenean. Diskurtsoek beraz, bere baitan, historikoki, sozialki eta kulturalki espezifikokoak diren kontzeptuak biltzen dituzte. Diskurtsoarekin bat datozen kontzeptuen bitartez, lehenago aipatu moduan, indibiduoek errealitatea hauteman eta esanahia emango diote errealitate sozialari. Indibiduen eta errealitate sozialaren arteko mediazio diskurtsiboaren edo bitartekaritza diskurtsiboaren bitartez emango diote esanahia beren errealitateari.

Honek diskurtsoaren historian eta beraz, gure ikerketan subjektuen agentzia edo ekintzak nola ulertzen ditugun azaltzera garamatza. Ekintza soziala testuinguru sozialak baldintzatuko du. Testuinguru historiko eta sozial bakoitzean dagoen diskurtsoaren arabera ekintza hori modu batekoa edo bestekoa izango da, baina ez da estrukturalki determinatua egongo. Betiere ulertuta, testuinguru historiko eta sozial bakoitzean dauden diskurtsoak ez direla estankoak, dinamikoak baizik.

Lehen esan dugun moduan, ez dugu baldintza objektiborik dagoenik uste eta beraz, ez dugu determinismoetan jausi nahi ikerketa honetan zehar. Hala ere, esan bezala, uste

¹S. O. Rose, 2010: 39.

²J. W. Scott, 1992: 22. "Experience". In Butler; Scott (Ed.) *Feminist Theorize the Political*.

³M. A. Cabrera, 2001: 48. Itzulpena nirea da.

dugu testuinguruak zein baldintza materialak aztertzea ikerketaren parte direla, baldintza batzuk ezartzen dituela eta horiek kontutan hartu gabe ikerketa desitxuratu baten aurrean geundekeela. Zentzu honetan Judith Walkowitzen⁴ ildoarekin bat egiten dugu. Bere arabera, testuinguru soziala eta aktoreen paper eta erresistentziak aztertzea litzateke gakoa. Hau da, aktore historikoak subjektutzat hartzea da ideia, eta baldintza zehatz batzuek beren norabide eta usteak zehazten ez dituztela eta badagoela erantzuteko tarterik. Kathleen Canningek⁵ ere diskurtsoaren eta testuinguru sozialaren arteko interdependentziaz dihardu, eta ikerketetan gorputzaren kontzeptua sartzearen beharraz, hain zuzen ere, hori baita bere ustetan kultura materialaren eta subjektibitateen arteko bidegurutzean dagoena.

Uste dugu emozioen historiak egiten duen ekarpenak kontutan hartzea garrantzitsua dela, identitateak aztergai ditugun honetan, identitateen eraikuntza eta berreraikuntza horietan guztietan, eragina baitute. Rosa María Medina Doménechen apustua emozioak historizatzean datza⁶, hau da, garai zehatz eta testuinguru zehatz batetan zein mekanismoren bitartez ulertzen diren eta testuinguru horretan zein ondorio sozial, kultural eta generokoak dituen aztertzean. Ikerketa honek, ordea, hainbat zailtasun ditu egun, esanahi anitzak baititu eta gainera, Freuden psikoanalisiaz geroztik, modu psikologiko, indibidual, barnerakoi eta natural batean ulertzen baitira emozioak⁷.

Affect Studies deritzenen bitartez, ordea, paradigma hori gainditu eta gorputza – gogoa banaketa alboratu nahi da, arrazoia eta pasioa *continuum* baten gisara ulertu nahi baita. Izan ere, Clough eta Halleyen arabera, gizarteari dagokiona teorizatu eta ulertu ahal izateko, tartean dauden aspektu emozional eta afektiboak analizatu eta ulertzea ezinbestekoa da⁸.

Zentzu honetan, Claude Milleten arabera⁹, garai eta testuinguru zehatz bakoitzak “sentimenduen koherentzia” bat produzitzen du, testuingurua arrazoitzeko modu bat, alegia. Blancharden arabera¹⁰, praktika emozionalen ikaspen sistematikoaren bitartez lortzen dute arrazionaltasuna testuinguru horretan. Michelle Rosaldok gorputzari

⁴J. Walkowitz (1992: 1-11). *City of Dreadful Delight: Narratives of Sexual Danger in Late*. Londres, Virago.

⁵K. Canning. *History after the Linguistic Turn: Historicizing Discourse and Experience*.

⁶R. M. Medina Doménech, 2012: 171-172.

⁷F. Bound Alberti (2009: 801, 809) In R. M. Medina Doménech, 2012: 164.

⁸P. T. Clough eta J. Halley (2007) In R. M. Medina Doménech, 2012: 165.

⁹C. Millet (2008) In R. M. Medina Doménech, 2012: 165.

¹⁰Blanchard (2008) In R. M. Medina Doménech, 2012: 166.

ematen dio garrantzia, hain zuzen ere, emozioak praktika sozial gorpuztu gisara definitzen baititu. Rosaldoren ustetan sentimenduak pribatua diren gai batetik haratago, gizartea eta historia eraldatzeko motor dira, sentimenduak ekintza gisara definitzen baititu.

Emozioak historizatu eta ikertzeak subjektibitatea eta identitateak ikertzeko tresna gisara proposatzen ditu Medina Doménechek. Eta hala, intersubjektiboak garenez, subjektibitateak ere elkar harremanean eratzen direla, elkarren arteko harreman emozionaletan zehazki. Horrela, izate aldakorra dugula defendatzen du, hau da, etengabeko eboluzioan gaudela uste du eta zentzu horretan, testuinguruaren arabera eraldatzen goazela¹¹. Ideia hau ezinbestekoa da identitateen aldakortasuna kontutan hartzeko. Beraz, emozioak, indibidualak, barnekoak eta naturalak diren zerbaitetik haratago ulertzen ditugu.

Azkenik, honetaz gain, testuingurua aztertzearekin batera garrantzitsua izango da garaiko diskurtsoak ezagutzea, horrek gure protagonistek beren esperientziei ematen dizkieten esanahiak ulertzen lagunduko digulako.

Hala ere, azpimarratu nahiko genuke subjektu eta baldintza materialen bitartekaritza horrek ez duela subjektua erabakitzeko ahalmenik gabe uzten. Diskurtsoak asimilatua izan daitezkeen bezala, eraldatuak ere izan daitezkeelako. Honek beraz, boterea nola ulertzen dun azaltzera garamatza. Michael Foucaulten¹² boterearen terminoarekin egiten dugu bat zentzu honetan, eta hain zuzen ere, uste dugu boterea ez dela zerbait monolitikoa eta harremanenezko zerbait bezala ikusten dugu. Hortaz, testuingurua eta baldintzak kontutan hartzeaz gain, indibiduoek beren esperientziei zer nolako esanahia ematen dieten ezagutzen saiatuko gara, betiere subjektu gisara kontsideratuz, hots, ekintzaile lez eta erantzuteko gaitasuna duten indibiduo gisara.

Azkenik, guzti hau kontutan harturik, teoria bera praktikara eraman ahal izateko, horiekin koherentzian doazen hainbat ikerketa kategoria hautatu ditugu, horrela, ikerketa egin ahal izateko.

¹¹R. M. Medina Doménech, 2012: 177-178.

¹²M. Foucault, 1989. *Historia de la sexualidad I, La voluntad del saber*.

3.2 IKERKETA KATEGORIAK

3.2.1 Migrazio prozesuak

Migrazioa prozesu gisara ulertu eta irudikatzen dugu eta ikerketa honetan hala landuko dugu honako gai hau. Izan ere, lekualdatze batetik haratago, uste dugu migrazioa hainbat faktorek zeharkatzen dutela, hala nola, migrazioa burutzeko zergatiak, erabakia nola hartzen den, migrazioa bera nola burutzen den eta nortzuk burutzen duten, hori guztia nola bizi duten lekualdatzea gauzatu dutenek, eta abar.

Gauzak honela, ikerketa honetan migrazioak bere konplexutasunean ulertuko ditugu. Zergatiei dagokienean, Xabier Aierdik sailkapen klasiko bat darabil¹³, kausa natural (ezbehar naturalak, adibidez) zein sozialak (ekonomikoak, politikoak, erlijiosoak) kontutan hartzen dituena. Zentzu honetan 50 eta 70. hamarkada bitartetan Estatu espainiarretik Hego Euskal Herrira¹⁴ gauzatutako migrazioen zioa ekonomikoa izan zela dio bere obretan.

Migrazioen inguruko hausnarketak, nagusiki, Ernest George Ravensteinen (1885) *Push & Pull* teorian oinarritzen dira¹⁵. Teoria honen arabera, migrazioa egitera doazenek bi faktore hartuko lituzkete kontutan: batetik, push faktoreak egongo lirateke, hau da, leku batetik alde egiteko faktoreak. Horien artean leku horretan bere behar edo nahiak aseko ez dituztelako sentazio subjektiboak leudeke. Beraz, migrazioa jotzea subjektibotzat jotzen da, protagonistek hori burutzearen abantaila eta desabantailak balantza batetan jarri eta erabaki bata edo bestea hartzen duen heinean.

Honekin loturik, bestetik, pull faktoreak leudeke, hots, leku batetara joateko erabakia hartzeko lekuak berak sortzen dituen erakarpen edo espektatiben faktore multzoa litzateke. Erabakiaren balantza horretan, beraz, subjektuek migrazioaren zailtasunak (prozesu honek guztiak dakartzan oztopoak: distantzia bera, legalitatea, oztopo ekonomikoak, teknologikoak, kulturalak, linguistikoak, etnikoak, eta abar) helmuga den lekuak sorrarazten dizkien espektatibekin gainditu beharko dituzte.

¹³X. Aierdi Urza, 1993. *La inmigración en el espacio social Vasco*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Leioa.

¹⁴Hego Euskal Herria diogunean, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroaz ari da Aierdi, eta hemendik aurrera termino honek guretzat ere esanahi berbera edukiko du.

¹⁵E. Jiménez Julià, 1999. eta M. González Portilla (Zuz.), 1995. *Bilbao en la formación del País Vasco Contemporáneo (economía, población y ciudad)*, Fundación BBVA, Bilbo.

Analisi guzti hauek migrazioak ulertzeko hainbat giltza ematen dizkiguten arren, Eva Jiménez Julià¹⁶ zein Cristina Borderías¹⁷ egiten duten kritikekin egiten dugu bat. Haien arabera, orain arte migrazioen inguruko ikerketatan faktore estrukturalak izan dira analisiaren erdigunea eta horiek hartu dira kausa nagusi bezala. Jiménez Juliàren arabera, migrazioak modu zurrunean ulertu izan dira; gizona edo familia burua *lan egitera* joan eta bere atzetik emaztea zein familia erakartzen du. Borderíasek ere argi dioen moduan, migrazioaren subjektu familiarra gizona, ondoren familia guztia bere erritmora moldatzen dela onartu da. Azken honek genero migrazioa aztertzeko genero ikuspuntua beharrezkoa dela dio, ordura arte gizon eta emakumeen arteko migrazioak ez baitira ezberdindu, eta aipaturiko eredu bakartzat hartu da.

Analisi sinplistetan ez erortzeko *maila anitzeko analisia*¹⁸ proposatzen du Jiménez Julià: batetik, faktore makroak, estrukturalak edo testuinguruzkoak aztertu beharko lirateke, baina, bestetik faktore mikroak edo ezaugarri pertsonalak ere kontutan hartu beharko lirateke (lekualdatzen direnen hezkuntza maila, egoera zibila, adina, klasea, etnia, lan esperientzia, seme-alaba kopurua, eta abar.).

Maila ezberdin horiek kontutan harturik, migrazioa gauzatzeko erabakiaren nondik norakoa aztertzea proposatzen du, alegia, erabaki hori nola hartu den¹⁹, pertsona bakoitzaren bizi-zikloaren zein etapatan gauzatu den²⁰, zer izan den balantzan pisua eduki duena, eta abar. Lin L. Linek (1993²¹) erabakitzeko prozesua genero ikuspuntutik aztertzeari garrantzia ematen dio, erabakitzeko prozesu horretan familiako kide bakoitzak duen iritzi edo ahotsak zein garrantzi erabakigarri jakinda, bakoitzaren *autoritate* edo *menpekotasun* maila ezagutuko baitugu.

¹⁶E. Jiménez Julià, 1999. “Una revisión crítica de las teorías migratorias desde la perspectiva de género”, Arenal-Revista de historia de las mujeres, 6, 2. Zk, 239-263.

¹⁷C. Borderías, 1991:106.

¹⁸*Análisis multinivel* (E. Jiménez Julià, 1999)

¹⁹Daniel Courgeauren arabera (1976; 1990) erabakitzeko prozesua ezin da indibidualki azaldu, familia osoa lekualdatzen zein heinean, familia unitate edo esparru gisara hartu behar da. Izan ere, erabakian zerikusia izango du familiaren tamainak, seme-alaben kopuruak... (In Jiménez Julià, 1999: 250-251).

²⁰Philip Guesten arabera (1993) migratzen duten emakumeen bizi zikloak garrantzia du, bizi-etaparen arabera lan merkatua etxeko lan eta zaintza lanekin konbinatua ahal izango duelako, edo ez (In Jiménez Julià, 1999: 251).

²¹E. Jiménez Julià, 1999: 253.

Jiménez Juliàren proposamena geure egiten dugu, baina, uste dugu subjektibo eta objektibotasunaren dikotomietan jausten dela. Horretan erortzea errazena izanda ere, guk migrazio prozesuak faktore anitzek eragiten dituztela eta protagonista bakoitzak bere esperientziei zergati ezberdinak emango dizkietela asumitzen dugu, betiere posible denaren muga horien baitan.

Hortaz, subjektuei ahotsa ematea garrantzitsutzat jotzen dugu; migrazioa prozesu gatazkatsu edo eraldatzaile baten gisara landu nahiko genuke, eta ez lekualdaketa automatiko eta sinple gisara. Prozesu hori kontutan hartuta, helmuga den gizartean ere eragin ekonomiko, sozial, kultural zein demografikoak eragiten dituela ere kontutan hartuko dugu. Baita ere, protagonista diren subjektuen identitateetan guzti honek nolako eraldaketa eta mugimenduak eragin zituen aztertuko dugu, identitatea mugikorra dela kontutan hartuta, testuinguru aldaketa honek berebiziko eragina eduki zuela uste baitugu.

3.2.2 Generoa

Helburu dugun aztergaia ikertzeko generoaren kategoria kontzeptuala egokitzen jotzen dugu. Generoaren kontzeptuak zein generoaren historiak ibilbide erlatiboki motza dute. Izan ere, 70eko hamarkadara arte ez zen halakorik landu akademian. Lehenik Ingalaterrako eta Frantziako unibertsitateetan hasi ziren ikertzeko gai berriak (ordura arte gutxietsi edo baztertuak izan zirenak, hala nola, familia, emakume eta gizonen arteko harremanak, emakumeen posizioa gizartean, eta abar) proposatzen, mugimendu feministak herrialde hauetan izandako eragina zela-medio. Gizarte zientzietan (antropologian, psikologian, historian) hasi ziren garaiotan gai hauei erreparatzen.

Hala, Gayle Rubin antropologoak 1975an sexu/genero sistemaren kontzeptua formulatu zuen. Rubinen arabera, 'sexua' baldintza biologikoa litzateke, eta horrek pertsona emakume edo gizon definituko luke. 'Generoa', aldiz, gorputz biologiko bakoitzaren dimentsio sozial eta eraikia litzateke. Hortaz, berez, biologikoki gizon edo emakume izateak ez luke posizio zehatz bat gizartean. Hau da, generoa, biologiatik abiatuta gizarteak eragiten duen rol, balore, egoteko modu, praktika, egin behar ezberdinduen multzoa litzateke. Genero harremanak, beraz, ez lirateke natural eta betierekoak, sortuak eta aldakorak baizik.

Historiatik, beraz, kontzeptua historizatzeari ekin zitzaion garaiotan. Sexu/genero sistema aldakorra eta eraikia zela kontutan harturik, garai eta testuinguru bakoitzean nola ulertzen zen ikertzeari ekin zitzaion. Ikerketa gehietan, emakumeen situazio edo posizioa aztertu eta azpimarratu zen. Baina, printzipioz, generoaren historiak ez du ikergaiaren objektua definitzen, edozein fenomeno sozial, ekonomiko, politiko, ideologiko aztertzekeo erreminta edo lente bat jartzen baizik.

Zentzu honetan, ezinbestekoa izan zen 80ko hamarkadan Joan W. Scottek egindako ekarpena. Scotten arabera, generoa sexuaren araberako harreman sozial ezberdinduen eraketan elementu klabea da. Aldi berean, generoa botere harremanak eratu, eragin edo jasan arazten dituen elementua da (Scott, 1986: 289, 292)²².

Hala, generoa emakumeen eta gizonen arteko sozializazio, rol eta mandatu ezberdinduen multzo gisara ulertuko dugu ikerketa honetan zehar, eta beraz, honi erreparatuko diogu aipatu testuinguruko protagonistak direnen esperientziak zeintzuk izan ziren ezagutu eta hauek nola ulertzen dituzten ulertzeko.

Genero agindu horiek zertan ziren aztertzekeo, Scottek proposatzen dituen (1986) elementuei erreparatuko diegu: sinboloei, araei, genero harremanei eta identitate subjektiboei. Elementuok elkarrekintzan ulertzen ditugu; elkarrekintzan, testuinguru historiko bakoitzean esanahi eta eragin bat duten eta elkar eragiten duten heinean.

- Sinboloak: ideien errepresentazioak lirakeke hauek, adibidez, erlijiosoak izan daitezkeenak edota festa giroan transmititzen direnak, izan beharrekoarekin lotura estua dutenak.
- Arauak edo kontzeptu normatiboak: sinboloak arau bihurtzen dira, lehenengo horien interpretazioen arabera. Besteak beste, legeen bitartez, hezkuntza politikaren bitartez zein doktrina erlijiosoen mandatuen bitartez ezagut ditzakegu arauak. Arau hauek mandatu konkretuak bidaltzen dituzte, gizon eta emakume izateko modu zehatz eta hegemonikoak sortuz, izateko beste modurik ez dagoelakoan.

²² J. Scott, 1986: 265-302. "El género. Una categoría útil para el análisis histórico", PUEG, Mexiko.

- Genero harremanak: Generoa elkar dependentzian ulertzen dugu, batak bestearekiko esanahia du; bata eraldatzen bada, bestea ere eraldatuko baita. Familian, lan merkatu formalean, hezkuntzan zein politikan genero bakoitzak betekizun konkretuak edukiko ditu.
- Identitate subjektiboak: genero identitateak historikoki espezifikoak diren ezaugarriekin ulertzen ditugu, hala nola, momentuko antolaketa sozialarekin, errepresentazio kulturalarekin, eginbehar zehatzekin, eta abar. Identitate subjektiboen inguruan ondoren sakonduko dugu gehiago.

Esan bezala, lau elementuoi erreparatuko diegu gure ikerketan zehar generoa analisi historikorako kategoriatzat hartzeko. Generoa sexuaren arabera harreman sozial ezberdinduak ulertzeko gakoa da. Honetaz gain, Scottek bezala, generoa botere harremanak sortzen dituen elementu gisa ulertzen dugu, baina, ez botere harremanak sortzeko elementu bakar gisara; klasea edo maila sozio-ekonomiko-kulturala zein jatorria ere kontutan hartu beharko ditugu botere harremanen eragile gisara gure ikerketan zehar. Hortaz, ezinbestekoa izango dira horren arabera ulertzea gure ikerketa objektu-subjektuak, jakina denez, hona iritsi ziren migranteak klase kategoriagatik guztiz zeharkatuak zeudela.

Botereari dagokionez, ez dugu elementu zurrin, monolitiko edo estanko gisara ulertzen. Michael Foucaulten proposamenari jarraiki²³, barreiatuta dagoen eta pertsonen harreman sozialetan eragiten duen ezaugarri bezala baizik. Testuinguruak garrantzia izango du, honen arabera, botere hori jasan edo eragin egingo baitu subjektuak. Boterea, beraz, giza harremanen elementu mugikor gisara definitzen dugu.

Subjektuek, ordea, boterea ez dute besterik gabe jasan edo onartzen, pertsona bakoitza erresistentzia edo erantzun *agentzia* baita (izan baitaiteke). Subjektu bakoitzak hautatzeko ahalmena du, ahalmena mugatua bada ere²⁴. Beraz, lehenago aipatu ditugun sinbolo, arau, genero harreman nahiz botere harreman horietan botereak eta subjektuen erantzun ahalmenak nolako elkarrekintzan jardun zuten aztertuko dugu, besteak beste, egoera, ohitura eta gune berriari zein modutan egin zieten aurre ikusiz.

²³M. Foucault, 1989: *Historia de la sexualidad I, La voluntad del saber*.

²⁴J. Scott, 1992: 22. "Experience" In Scott; Butler: *Feminist theorize the political*.

Laburbilduz, esan bezala, momentu historiko eta testuinguru bakoitzean ezberdina izango da generoaren esanahia. Hortaz, generoa ere inola ere ez dugu ulertzen kategorია unibertsal bezala, aipatu moduan, testuinguru bakoitzean esanahia ezberdina izango baita. Guk ikerketaren bitartez momentu zehatz bat landu nahi badugu ere, esan dezakegu, kategoría hau (zein beste edozein) ez dela estankoa.

3.2.3 Lana eta biziraupen estrategiak

Gure ikergaiari dagokion moduan heldu ahal izateko, lana eta biziraupen estrategien kontzeptuak argitzea ere beharrezkoa zaigu, horretarako teoria feministak oro har, eta ekonomia feministak zehazki, ekonomiaren inguruan egiten dituen hausnarketa eta proposamenez baliatuko garelarik.

Besteak beste, ekonomia feministak egin duen ekarpena kontzeptuak birplanteatzea edo zabaltzea izan da, lanaren kontzeptua zabaltzea gakoia izan da, ekonomia neoklasikoak merkatutik at gauzatzen den oro analisiaren alde batera eta beraz, ezkutaturik, uzten duelako. Gauzak honela, ekonomia feministarentzat (edo behintzat guk jarraituko dugun adarrarentzat) ekonomiaren analisisan garrantzitsuena ez da amaigabeko metaketa, bizitzaren sostengarritasuna, baizik. Beraz, lana ez da enpleguaren sinonimo, enplegutik haratago doan aktibitate zabal eta konplexuago bat baizik²⁵.

Hortaz, lana, behar humanoak asetzeko egindako edozein aktibitate litzateke, behar horiek asetzeko egindako edozein ekoizpen-ondasun edo zerbitzu, alegia²⁶. Beharrez ari garenean, beraz, Cristina Carrascoren hitzetan behar objektiboak (ondasunak, zerbitzuak: jantziak, elikadura, osasuna, hezkuntza, eta abar) zein subjektiboak (afektuak zein harremanak: sozializazioa, zaintza, segurtasun psikologikoa, harremanetarako gaitasunak, eta abar) genituzke²⁷. Gure ustetan objektibo eta subjektibotasunetik haratago, behar material eta ez-materialak egongo lirateke.

Beraz, lana eta ekonomiaren kontzeptuak honela eraldatuz, binomioak gaingitu eta elkarren arteko loturak azaleratzen zaizkigu. Hala nola, produktiboa - erreproduktiboa; publikoa - pribatua; ekonomikoa dena - ekonomikoa ez dena; ekonomikoa dena - soziala dena, eta abar elkar eragintzan daudela ulertzen dugu.


²⁵M. Larrañaga, 2013: 99.

²⁶C. Carrasco et. alii. (2000:5) In A. Pérez, 2002.

²⁷C. Carrasco, 2001: 3-4.

Hau da, bizitzaren sostengarritasunari garrantzia emateaz hitz egitean, prozesuez ari gara; ekonomia zerbait zurrun eta estatiko gisa ikusi beharrean, etengabeko eraldaketa eta gatazkan dagoen zerbaiten gisara, alegia²⁸. Beraz, gizarte batetan bizitza nola sostengatzen den ikertzeak, gizarte antolaketaren berri izatea eta inplizituak diren hainbat prozesu azalratzea baimentzen du, Carrascoren hitzetan²⁹, hau da, beharrezkoa zer den eta hori nola egiten den jakitea ahalbidetzen du.

Zentzu honetan, ekonomia feministatik zaintza lanen eta etxeko lanak esplizitu egitearen alde egiten da. Lehen aipatutako ikuspegi dikotomikoak gainditzeko, eta azken batean, merkatuaren independentzia eta homo-economicus figuraren autonomia faltsua dela adierazten baitigute. Izan ere, zaintza gizakiarentzako beharrezkoa baita bizi ziklo edo momentu zehatzaren arabera, modu edo intentsitate ezberdinarekin beharko baititugu.



30

Gure ikerketarako oso beharrezko iruditu zaigu zabalagoa den lanaren definizio bat gauzatzea. Izan ere, industrializazioarekin batera bultzatu zen ereduaren arabera, familia nuklearretan senarrak betetzen zuen hornitzailearen figura. Hala ere, ziurtatuta gelditu da ikerketa ezberdinen bitartez (ondoren sakonduko dugu honetan) langile familietan gutxienez familia osoaren inplikazio eta parte hartzea eskatzen zuela familia

²⁸A. Pérez, 2006: 234.

²⁹C. Carrasco, 2001: 2.

³⁰C. Carrasco, 2011: 209.

monetarioki sostengatzeak; hau da, kide guztien lanaren eta ekarpen monetarioen bitartez sostengatzen zela familia. Gainera, ekonomia neoklasikoaren analisiak subjektuen arteko beharrak ukatzen ditu, eta gure ustetan, elkar dependentzia horiek guztiak kontutan hartzea beharrezkoa da. Hots, monetarioki etxeko kide guztiek beren ekarpen egin zutela esplizitatearekin batera, beste hainbat behar ere nola asetzen diren kontutan hartzea beharrezkoa da, afektuak, harremanak eta elkarren zaintza bizitzeko beharrezko diren heinean.

Azkenik, bizirauteko estrategien kontzeptua argitzeke dugu. Izan ere, hasiera batetan hau ekonomiarekin (zentzu monetarioan, gainera) lotu izan da orokorrean. Hainbat ikerketatan biziraupen estrategiak aztertu izan direnean behar monetarioak ase ahal izateko estrategiak eta horretarako familia-unitateak nola antolatu diren aztertu izan da.

Ikerketa honetan bizirauteko estrategiak zentzu zabalago batetan ulertu nahi ditugu. Ezin uka genezake behar materialak direla, ziurrenik, migrante bat bere helmugara iritsi eta berehala erantzuten saiatzen den lehenengo arazoa, egoera prekario batetan iristen baita testuinguru ezezagun berrira. Prekarioa esan nahi dugunean, oraingoan, baliabide murriztez ari gara. Baina, uste dugu, behar material horiek nola ase behar izan zituzten jakiteaz gain, beste hainbat behar ere kontutan hartu beharrekoak direla, materialak diren beharrak ez baitira gizakiok ditugun bakarrak. Zentzu horretan, uste dugu behar afektiboak ere guztiz beharrezko direla iritsi berri den leku batetan biziraun ahal izateko. Izan ere, egoera zailtzen duen baldintza bat da leku ezezagun batera iristea, bertako dinamikak ez ezagutzea, lehenago pertsona horrentzat sostengua izan diren sareak bertan behera gelditzea, eta abar. Beraz, ikerketa honetan zehar, biziraupenerako gakotzat izango ditugu harremanak eta sozializazioa bera burutu ahal izateko biziraupenerako estrategia horiek, horiek gabe egoerari aurre egitea ezinezkoa dela iruditzen zaigun heinean.

3.2.4 Identitateak

Lehenago aipatu moduan, lan honen helburua migrazio prozesuak lekualdatzea bera egin zutenen identitatearengan (izan indibidual zein kolektiboa) eraldaketak eragin zituen ezagutzean datza. Izan ere, Scottek laburbiltzen duen moduan “identitatea fenomeno iraunkor, koherente eta historiko gisara ulertzea fantasia bat da; zatiketak, etendurak, ez-izateak eta ezberdintasunak ezabatzen dituena”³¹. Identitatea koherentea

³¹J. Scott, 2006: 122-123.

delako fantasia, denboran zehar bere oihartzuna dela eta luzatzen da³². Oihartzunak, ordea, kategorien erreproduzio ez-zehatzak egiten dituzenez, identitateak koherente, unitario eta ez-aldakorrek direla zalantzan jartzera eramaten gaitu. Gauzak honela, jarraikortasun bat duen identitatearen ideia eta azken finean, esentzial gisara hartzen dena, zalantzan jartzea litzateke gakoa³³.

Ezaugarri identitarioak dituzten kategoriak anitzak dira. Gure ikerketa honetan aztertuko ditugun kategoria identitarioak honakoak izango dira: genero identitateak (emakumea, gizona), komunitatea, jatorria, migrazioa eta klasea.

Michel Foucaultek gaur egungo kategoriak, egun errealitate ebidente gisara ulertzen ditugunak, historizatzea proposatzen du³⁴. Hala nola, “gizon” eta emakumeak” ez dira objektu iraunkorrek, testuinguruaren arabera, modu batera edo bestera ulertzen diren gorputzak baizik³⁵.

Denise Rileyk dioen moduan “amaitu gabe dagoen eta ezegonkorra da ‘emakumeak’ kategoria”³⁶. Are gehiago, Rileyren arabera, “emakumeak” subjektua diskurtsiboki eratu den kategoria historikoa da³⁷. Hortaz, ez dago emakume zein gizon izatearen esentziarik duen subjektu estatikorik. Honekin guztiarekin ez dugu esan nahi analisirako genero kategoriak balio ez digunik. Aitzitik, uste dugu generoa baliagarria eta gakoa dela testuinguru historiko bakoitzean generoaren araberako esanahiak (sexudun gorputzei ezarriak direnak) nola eraiki diren ikusteko, genero harremanak zeintzuk diren ikusteko eta identitateak analizatu ahal izateko. Beraz, gure ikergaia aztertu ahal izateko testuinguru historikoa kontutan hartzea guztiz beharrezkoa izango da genero identitateak ulertu ahal izateko. Testuinguru historiko bakoitzak diskurtso hegemoniko bat du eta horren arabera protagonistak diren subjektuak, beren gorputzak, espektatibak, jokamoldeak, bizimoduak eta abar moldatuko ditu. Ikusi beharko dugu ea migrazioaren eraginpean edo desarrollismoko diskurtso moldaketa dela medio nola garatzen diren guzti horiek.

³²J. Scott, 2006: 120-123.

³³J. Scott, 2001: 116.

³⁴In J. Scott, 2006: 112.

³⁵M. Foucault in J. Scott, 2008: 1426.

³⁶In J. Scott, 2008: 1425.

³⁷Riley (1990): “Does a sex have history?” In *“Am I that name?” Feminism and the Category of “Women” in History*.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu klase identitatea kontutan hartzea ikerketa honetan. Lehenik eta behin, kontutan izan behar dugu migratu zutenek egoera prekario batetik ihes egin edo beste batekin aurkitu zirela, eta horiek klase identitatea garatzeko faktore izan zitezkeela. Determinismotan erori nahi gabe, uste dugu ezaugarri horiek kontutan hartzekoak direla. Klase identitatea eratzeko modu ezberdinak egon daitezke, eta uste dugu, horietako bat oposizioan eratzea izan zitezkeela: autoktonoen bizi maila hobeen aurrean edota langile gisara, maizterren aurrean. Ikusi beharko dugu ea gure ikerketaren subjektu-objektuek nolako diskurtsoa duten.

Honetaz gain, aipatu moduan, migrazioak berak identitateari nola eragiten dion bistaratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, bai identitate indibidualari nahiz kolektiboari. Alegia, migrante izateak identitatea nola eratzen duen ikusteari eta baita horrek helmuga den gizartean nola eragiten duen ikusteari. Gerd Baumannen arabera (1996)³⁸, kulturak eraikuntza sozial fluxudunak eta tenporalak dira, etengabe eta denboran zehar egiten eta berregiten doazenak. Hortaz, migrazio uholde bat jasotzen den gizartean ezinbestean eraldaketak egongo direla aurreikus daiteke.

James Clifforden iritziz (1997)³⁹, eragin hori ezin dugu ulertu ezaugarri soziokultural konkretu, estanko eta amaituak dituen gizarte batetan gertatzen direla. Sistema soziokultural horiek erlazionatuz sortu eta eraldatzen direla kontutan hartu behar da Clifforden ustez. Hau da, etengabeko mugimenduan dauden sistema soziokulturalekin harremantzen direla iristen direnak, eta hortaz, etenik gabeko eraldaketa horretan beste faktore bat izango direla iritsitako horiek (beste sistema soziokultural bat daramatenak eurekin batera).

Baumannek dioenez (1996)⁴⁰, migrazioak mugitzen den populazio horren (migratu dutenen) eta bertan daudenen identitate indibidual zein kolektiboak eta afiliazioak zein ohitura kulturalak eraldatzen ditu. Alegia, gizarte horren parte bakoitzaren identitateak eta ohitura kulturala eraldatzen ditu pertsonen mugimendu edo lekualdaketak.

³⁸In L. Mc Dowell, Linda, (2000: 310). *Género, identidad y lugar. Un estudio de las geografías feministas*, Ediciones Cátedra, Colección Feminismos, Valentzia.

³⁹In L. Mc Dowell, Linda (2000): 308.

⁴⁰In Mc Dowell, Linda, 2000: 310.

Homi Bhabhak hibridazioa dela eta sortzen den hirugarren identitate kolektibo batez hitz egiten du, batu diren bi identitateen ordezkoa litzatekeena:

*Hibridazioa posizio berriak sortzea ahalbidetzen duen hirugarren espazio bat da; hura eratu duen historiak baztertu eta autoritate estuktura berriak zein inizatiba politiko berriak eratzen dituen (...). Hibridazio kulturalak ezberdina den zerbait sortzen du, berria den eta ezezaguna den zerbait, esanahien eta aurkezpenen negoziaketarako gune berri bat*⁴¹.

Honek, beraz, kolektiboaren terminoaz hitz egitea garamatza. Hain zuzen ere, Mc Dowllek kolektiboa kontzeptu relazional gisara definitzen du. Hau da, harreman sozialen zein esanahi sinbolikoek definitzen dute haren arabera kolektiboa. Kolektiboaz hitz egitean, beraz, bildu nahiz baztertzen duen kontzeptu batez ari gara, eta hortaz, botere harremanez ari gara: kolektiboaren parte zara ala ez. Komunitatean identifikatzeko eta harremantzeko moduak anitzak izan daitezke eta beraz, denboran zehar eraldatzen doa bere parte (edo ez) sentitzeko moduak, zergatiak eta abar⁴².

Komunitatearen kontzeptua beraz, gainontzeko kontzeptu edo kategoria identitarioak bezalaxe, eraikuntza kulturala da eta beraz, denboran eta espazioan eraldaketak ditu. Hortaz, gure ikergai honetako subjektu eta objektu direnek komunitate baten pare sentitzearena norberaren identitateari dagokionean zein garrantzirekin esanahia ematen dioten ikusi beharko dugu, eta baita jaso zituzten herriaren partetik zer nolako erantzuna jaso zuten. Blancok dioenez⁴³, kolektibo sentimendu indartsuak daudenean ezberdinen arteko interakzioan talka, tentsio edota desorekak sortu baitaitezke.

Laburbilduz, Scotti jarraiki, identitatezko kategoriak diskurtsoaren bitartez erreproduzitzen direla eta denboran eta espazioan (hots, testuinguruaren arabera) aldakorrek direla kontutan hartuko dugu gure ikergaiari gerturatzeko. Borderíasek laburtzen duen moduan “migrazioak fenomeno konplexuak dira; lan merkatuen, klaseen, profesioen, eredu kultural zein politikoen arteko desplazamenduak edo

⁴¹Bhabha (1990: 211), In L. Mc Dowell, 2000: 313. Itzulpena nirea da. Jatorrizkoa: *La hibridación es un tercer espacio, que permite el nacimiento de otras posiciones, despaza las historias que lo han constituido y crea nuevas estructuras de autoridad, nuevas iniciativas políticas (...). La hibridación cultural crea algo distinto, algo nuevo y no reconocible, una nueva área de negociación de la presentación y del significado*

⁴²L. Mc Dowell, 2000: 151-152.

⁴³C. Blanco Fernández de Valderrama, 1994: 44-45.

lekualdatzeak dira. Hots, momentu dinamikoak dira”⁴⁴. Gu horiek bistaratzen saiatuko gara.

3.3 AHOZKO ITURRIAK ETA BIZIZA HISTORIAEN METODOLOGIA

Gure helburuetara egokitzen den metodologiak ahozko iturriak ditu oinarri. Hala eta guztiz ere, ahozko iturriak iturri idatziekin konbinatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Ikerketaren muina, ordea, ahozko iturrien bitartez landuko dugu, honen bitartez gure helburuak direnak lortzeko asmoa dugu, alegia, migrazio prozesu bat bizi izan zutenen esperientzia eta horri ematen dioten esanahia jasotzea. Erabiliko dugun, beraz, teknika bizitza historiena izango da.

Memoria, hortaz, subjektuen bizipen horietara hurbiltzeko modua izango da. Jakin badakigu memoria subjektuen identitatearen edo norberaren identitatearen eraketaren motore dela, eta beraz, subjektibitatearekin elkar lotuta doala. Miren Llonak dioen moduan (2012), memoriak informazioa argazkiak bailitzan ematen digu eta argazki horiek guztiz osatu gabeko erreplika ez-zehatzak dira, hain zuzen ere, bizitako esperientziari, kontaketaen zein orainaldiko momentuko beharrei eta etorkizuneko espektatibei erantzuten die eta hortaz kontakizuna bera baldintzatzen du. Beraz, memoria dinamikoa den zerbaiten gisara ulertzen dugu guk ere, eta orainalditik gogoratzen duela onartzen dugu.

Zentzu honetan, gure ikerketarako interesgarria da memoriarekin jardutea, honen bitartez subjektuen identitatearekin harreman estua baitu. Memoriaren bitartez nor bere bizitzaren narrazioa edo antolaketa egiten du eta zentzua ematen dio. Beraz, iragana, oraina eta etorkizuna batzen ditu.

Memoriaren bitartez ez dugu soilik subjektuen oroitzapenen berri. Izan ere, Llonaren arabera, memoria ezin da soilik identitate edo subjektibitate indibidualekin lotu. Bere ustetan, indibiduala dena kolektiboa den horrekin elkar gurutzatu eta harilkatzen delako. Zentzu horretan memoria kolektibora ailegatzeko bide gisara planteatzen du Llonak memoria indibidualetan sakontzearena. Memoria sozial edo kolektiboaren berreraikuntza ere orainetik egiten den balorazio, esanahi-emate eta kontakizuna

⁴⁴C. Borderías, 1993a: 76. Nirea da itzulpena.

litzateke. Beraz, indibiduala eta kolektiboa zein iragana eta oraina elkar ekintzan daude memoria ariketen bitartez, Maurice Halbwachsek dioen moduan⁴⁵.

Esan bezala, erabiliko dugun teknika bizitza historiena izango da. Bizitza historiena nork bere historia indibidualaz duen bertsioa litzateke. Honen bitartez oroitzapenei zentzua eta forma ematen dieten narratiba pertsonalak lortzen ditugu. Helburua, beraz, subjektuek beren bizitza nola kontatzen duten, nola antolatzen duten, zer azpimarratu, eta zer isiltzen duten eta azken finean, zein zentzu ematen dioten ezagutzean datza.

4- ITURRIAK

Zehaztu berri den moduan, ikerketa honetan ahozko iturriak erabili ditugu nagusiki. Dena den, honi heldu ahal izateko, eta testuinguru historikoaren zein garaiko diskurtsoen berri ahalik eta zehatz eta fidelena eduki ahal azken urte guzti hauetan zehar gaiaren puntu ezberdinak lantzen dituen bibliografia zabalaz baliatu gara. Bigarren mailakoak izan dira baliatu ditugun iturri idatzi guztiak eta hargatik, ikerketa osatzera bidean, lehenengo mailakoak parte hartzaileen testigantza eta bizitza historiekin konbinatzea litzateke ondorengo erronka, horien bitartez ikerketa osoago bat lortuko dugulakoan eta ikerketa historiko bat ahozko iturrietan bakarrik oinarritzeak ekar ditzazkeen arriskuak ekidin ahalko ditugulakoan.

Elkarrizketatuen profilari dagokionean, hainbat ezaugarriren baitan hautatu behar izan ditugu gure parte hartzaileak, ikergaiaren helburuei ahalik eta modu onenean egokitu zitezten.

Kontutan hartu dugun lehenengo gakoa, emakume eta gizonen parte hartzea bermatzea izan zen. Izan ere, genero ikuspuntua bermatzea zein ikerketaren ezaugarri garrantzitsuetako bat. Hala, hiru emakume eta hiru gizon hautatzeko aukera eduki eta erabaki genuen ikerketaren prozesuan zehar. Gizon zein emakumeek parte hartzea beraz, elkar eragintzan ulertzen dugun generoa aztertzea ahalbidetzen zigulako erabaki genuen. Migrazio prozesuak perspektiba hau kontutan izanik zer nolako ezberdintasunak suposatzen dituen kontutan hartu nahi dugu, beraz.

⁴⁵M. Llona, 2012.

Horretaz gain, parte hartzaile guztien ezaugarri komuna, lantzen ari garen garaian espainiar Estatutik Gipuzkoako hiri ezberdinetara lekualdatu izana da. Azkenik, jatorri ezberdinak kontutan hartu nahi izan ditugu, Gaztela, Extremadura eta Galiziarrek inguruotan nabarmentzen diren jatorriak baitira.

5- IKERGAIAREN EGOERA

Gure ikerketaren gaia zuzenean lantzen duen aurrekaririk ez dago, hainbat gai eta helburu baititu gureak. Hala ere, ez gara hutsetik hasi eta horietako hainbat jorratu direla egia da. Azken hamarkadetan Frankismoaren garaiko ikerketak ugaritu dira, eta gainera, historia politiko bat lantzetik herri historia lantzerara igaro da, Angela Cenarro dioenez⁴⁶; hau da, populazioaren gehiengoaren ekintza eta esperientziak lantzen ari dira azken aldiotan. Hala ere, bere arabera, subjektuei aurpegi eta historia ezartzea da momentuotan dugun egiteko bat. Hots, historia sozial baten ikuspuntutik landu izan da Frankismoa, eta horretan, estruktura ekonomiko eta sozialek, subjektuen kalterako, presentzia nabarmena dute.

Memoria historikoa bezalako gaiek Frankismoa kaleko hizketagai bihurtu du, eta lekuan lekuko ikerketak zein subjektuen narratibak bermatzeak ikerketen produkzioa handitu baldin badute ere, haren ustetan, teorikoki zein metodologikoki ez du berrikuntza handiegirik suposatu, momentuz. Baina, hainbat gai lantzeko parada ere egon da Cenaroren hitzetan. Hala, generoaren kategoriak ikerketatan presentzia eta garrantzia irabazi du, indarkeria ulertzeko modu berriak proposatu dira eta garaitu <> garaile dikotomia gainditzeko hasi da, besteak beste, mota desberdinetako erresistentziak eta erregimenaren konplexutasuna, aipatu dikotomiatik haratago, kontutan hartzen hasi direlako.

Frankismo garaiko biziraupen estrategiak lantzen dituen ikerlan ugari daude, eta baita hori zuzenean migrazioarekin lantzen dituen ikerketak ere. Hutsunea nabari dugu migrazio prozesuen ikerketetan, ordea. Migrazio prozesuak aztertzearen beharra azpimarratzen duten ikerketa batzuk aurkitu ditugun arren, hauetan ere prozesua ez da jatorriko herrian hasten. Azkenik, identitateen gaia lantzen dituzten ikerketa batzuk badaude, baina, modu zuzenean baino, aipamen zehatz batzuk besterik ez dituzte egiten.

⁴⁶A. Cenarro, 2013.

5.1 60ko HAMARKADAKO MIGRAZIOEN HAINBAT EZAUGARRI

Ikerketa honen nahi eta helburua 60. hamarkadako migrazio prozesuetan sakontzean datza: migratzeko erabakia hartzeko moduak, zergatiak, hori burutzeko pertsona horiek helmugan zituzten espektatibak, lekualdatzea nola gauzatu zen, nortzuk parte hartu zuten, nondik zetozen eta bertan beren zain zer (sare zehatzen bat, enplegu zehatzen bat) zuten eta abar. Lehenik eta behin, hortaz, migrazioen ezaugarri nagusiez arituko gara. Garaiotako migrazioak aztertzen dituzten hainbat ikerketara jo dugu horretarako, oinarritzat Cristina Borderíasen, José Antonio Pérezen eta Pilar Pérez-Fuentes lan ezberdinak hartuko ditugularik, gure problematika eta ikergaira egokitzen direlakoan.

Migrazioen arrazoiak zein moduei buruzko hainbat sailkapen egin izan dituzte aipatu ditugun autoreek. Gure helburua sailkapen zehatzak egitea ez baldin bada ere, aintzat hartzekoak dira beren ikerketei esker gaiari buruz ditugun aurrekari guztiak. Pérezek⁴⁷ bi motatako migrazioez dihardu: batetik, indibidualak edukiko genituzke. Oro har, familiak bultzatuta gaztetatik egindako migrazioak lirateke hauek, pobretutako inguruneetatik egindakoak hain zuzen ere. Bestetik, familiakoak leudeke. Hauetan familia izango litzateke estrategia burutzen duen unitatea. Familiako kide bakoitzak bere funtzioa edukiko luke biziraun dezan beharrak ase ahal izateko.

Borderíasek⁴⁸ bere ikerketetan emakumeek burututako migrazioak soilik aztertzen ditu. Bere arabera, emakumeen migrazioaren kasuan, bi mota nagusitu ziren. Batetik, kide anitzetako familietan kostu ekonomikoak arintzeko asmoarekin nekazal ingurunetik hiriguneetara migratzera alde egin zutenak. Bestetik, familia osoak nekazal ingurunearekin hausteko nahia zela-eta, alabak zerbitzu domestikoaren bitartez helmuga zen gune berrian merkatua esploratu eta gainontzeko familia-kideei enplegu zein etxebizitza lortzea helburu zutenak zuten leudeke. Hala, hori ziurtatuta zegoenean, familia guztia lekualdatuko litzateke.

Ikusten den bezala, autore bakoitzak bere sailkapen propioa egiten du. Lehenak sailkapena migrazioa bera burutzen duen subjektuetan kokatzen du. Hau da, migrazioa pertsona batek egin duen (bakarrik) edo taldean egin duenaren (familiar, alegia) arabera. Bigarrenaren sailkapenak, zergatiei garrantzi gehiago emango lieke. Hala ere,

⁴⁷J. A. Pérez, 2004; 2007.

⁴⁸C. Borderías, 1991; 1993a.

uste dugu bi sailkapenak ez direla elkar kontrajartzen. Dena dela, gure ikerketaren oinarri eta abiapuntu gisara baliagarriak diren sailkapenak dira guzti hauek.

Garrantzitsua iruditzen zaigu migrazioen honako ideia hau azpimarratzea: migrazioen zergatiak ez dira, aipatu moduan, beti estrukturalak edota zergati ekonomikoengatik bultzatutakoak soilik. Aitzitik, ezin dugu ahaztu, lehenago esan bezala, askok baldintza ekonomiko eta sozial *hobeak* lortzeko lekualdatu zirela. Hau, ordea, ezin dugu ulertu, Pérezen arabera⁴⁹ helmuga ziren herrietan (Bizkaiaz mintzo da autorea) jarri zituzten aurreikuspen “oparoak” eta lan eskari handia kontutan hartu gabe. Esan bezala, maiz, jatorrizko herritik alde egin behar izaten zuten hainbat gaztek familiak zituen gastuak murriztu eta hiritik familia bera sostengatu ahal izateko beste medio batzuk bilatzeko.

Hala ere, badira “beste zerbait ezagutu eta ikusteagatik” lekualdatu zirenak⁵⁰. Borderiasek azpimarratzen duen moduan⁵¹, migratzen zuten emakume edota familia guztiak ez ziren behartsuak edota errekurtsorik gabeak. Hortaz, migrazio batzuen zergatiak mugikortasun sozial edo soziokultural bat lortzeko helburuarekin lotzen ditu honek, eta baita autonomia gehiago lortzeko modu baten gisara ere.

Beraz, puntu honetan esan dezakegu zergatiei dagokien gaia faktore anitzen ondorio dela eta migrazioa burutu zuten subjektu bakoitzak modu batera edo bestera emango diola zentzu eta justifikazio migrazio prozesuari berari.

Gauzak honela, Borderiasek migrazioek hainbat ibilbide sozial ezberdin bistaratzen dizkigu⁵². Lehenik lekualdatu arren *jarraikortasun ibilbideak* genituzke. Ibilbide hau, etxetik eta familiarik jasotako jakintza profitatuz, merkatuan aurkitutako aukerak etengabe baliatzean datza. Bigarrenik, *haustura ibilbideak* aipatzen ditu Borderiasek. Migrazioaren protagonista diren hauei “aurrekariak”⁵³ izena ezarri die. Bere arabera, migrazioa baliatuz tradizio edo molde familiar, laboral, politiko, hezkuntzakoak zein kulturalak hautsi ahal izan dituzte. Zergati ezberdinek bultzatu izan dituzte migrazio hauek. Batzuek seme-alabentzako “beste zerbait” lortu nahi izan dute edota autonomia propioa garatu. Azpimarragarria da, beraz, migrazioa aprobetxatuz enpleguan oinarritzen zen autonomia garatu zutela honakoek, eta hortaz, bertan ondoren ezkondu

⁴⁹J. A. Pérez, 2007.

⁵⁰Pérez Pérez (2007): 96. Ameliaren testigantzak hala dio: “Yo vine a ver otra cosa...”

⁵¹C. Borderías, 1993a: 77.

⁵²1991ko lanean aipatu eta 1993koan sakontzen duen gaia litzateke honakoa.

⁵³*Anticipadoras* bezala definitzen ditu Borderiasek (1993a).

baziren ere, beren enplegua mantentzea hautentzat lehentasuna izango zela. Beste hainbat adibide baditugu, hala nola, landa inguruetatik eta jernalari batekin ezkontzeari uko egiteko lekualdatu zirenak ere badaude.

5.2 MIGRAZIOAK ETA BIZIRAUPEN ESTRATEGIAK

Esan bezala, gure ikergaiak 50 eta 60. hamarkadetan gauzatutako migrazioetan sakontzea du helburu. Garaiotako ekonomi eraldaketek eragin zuten industri garapen azkarrak lan esku masa beharra zuen. Hori zela eta, Estatuko puntu ezberdinetatik iritsitako migrante masa berriak hirigintzan eta lekuan lekuko demografian eraldaketa nabarmenak eragin zituen, besteak beste. Izan ere, migranteak bertara iritsi zirenean aurkitu zuten lehenengo arazo handienetakoa etxebizitza faltarena izan zen, Pérezen arabera. Migrazioak eta dena atzean uzteak berez dakarren egoera prekarioari, beraz, aipatutako honako hau gehitu beharko genioke; Pérezen ikerketan lekukoek aipatzen dutenez, etxebizitzarena izan baitzen iritsi bezain pronto konpontzen saiatu ziren lehenengo arazoa, enplegua lortzearekin batera. Aipatzen dugun egoera prekarioari aurre egin ahal izateko bizirauteko estrategia ezberdinak jarri zituzten migranteek.

Aipatu dugun moduan, Pérezek dioenez, etxebizitza eta lehenengo enplegua lortzea ziren migranteen lehenengo arazo eta buruhauste. Gainera, antolatu gabeko migrazio fluxua izan zenez, hiriek hori guztia antolatu ahal izateko beharrezko baliabiderik gabe egon ziren hori gertatzen ari zen bitartean⁵⁴. Koiuntura honetan, ohikoak izan ziren txabolismoa, etxea elkarbanatzea edota etxean jendea diru baten truke jasotzea. Migranteak pilatu ziren zonaldeak sortu ziren herrietan, herrien erdigunetik urrun egon ohi zirenak.

Bakarrik migratu zuten emakume asko zerbitzu domestikoa eskaintzera iritsi ziren. Beraz, beren kasuan, enplegua eta etxebizitza lortzea, oro har, batera zihoan. Zerbitzu hauek ematen migrante ugari aritu ziren. Hau izan ohi zen iritsi bezain pronto aurkitzen zuten lehenengo enplegua. Hortaz, zerbitzua eskaintzen zuten etxe horiek izaten ziren beren helmugaren lehenengo geldiduna. Bertan egon ohi ziren ezkondu bitarte.

Bakarrik migratu zuten beste hainbaten kasutan, ordea, bertako familietara edo jadanik egoera egonkorragoa zuten beste langile batzuen etxean bizi izan ziren apopilo gisara.

⁵⁴A. F. Canales, 2003.

Hospedajearena edo apilotzarena ez zen garaiotan garatu biziraupen estrategia gisara lehen aldiz. Izan ere, fenomeno esanguratsu honi erreparatu ahal izateko atzera begiratu ematea nahitaezkoa da. XIX. mendeko industrializazioarekin batera hasi zen ematen honakoa. Pérez-Fuentesek Bizkaiko Ezkerraldeko kasua (2004) aztertu du, baina, halakoak industrializatu ziren beste hainbat herrialdeetan ere eman ziren, Ingalaterran adibidez.

Jakina den moduan, industrializazioarekin batera gizarte eta pentsamolde eraldaketan eragin zuten diskurtso eta horiek bultzatutako eginbehar berriak hasi ziren hedatzen. Garai aurreindustrialetan langile familietan kide guztien parte hartzea ohikoa zen unitate honek biziraun zezan. Industrializazioarekin batera, ordea, emakume eta gizonen arteko aurkakotasunen inguruko ideia moderno eta burgesak hasi ziren txertatzen langile esparruetan.

Aldaketa hori Bizkaiko Ezkerraldean nola gauzatu zen aztertu du Miren Llonak⁵⁵. Bere arabera, langile klasearen identitateak ezinbestean genero ikuspuntutik aztertu behar dira. XX. mende hasieran erdi mailako laseak alkoholaren kontsumoa eta langileen maskulinitatea asoziatu zituen, modu estigmatizatzailean. Horretaz gain, emakumeak langile klasearen moralak kuestionatzeko garaian, diskurtsoen erdigunean egon ziren. Hala, azkenerako sozialistek ere bere egin zuten diskurtsoa morala, tartean alkohola, jokia, dantzaldiak eta abar errefusatu eta gizonen duintasuna lanari eta ardura familiarrei lotuz. Gainera, emakumeen domestizitatea klase sozialaren eta moralaren erakusgarri bilakatu ziren. Hau da, moralaren aurkakotzat hartu ziren langileak bizi ziren gunetan sexuen arteko kontaktua egotea (adibidez hospedajearen bitartez egon zitekeena) eta promiskuitate presuntzioa eragin zuen horrek.

Hala, garai aurremodernoenetan langileen harrotasun eta duintasun ikur izan ziren *emakume indartsuak*, langile nekaezinaren identitate positiboa zutenak, familiaren erreproduktzioaz, batasunaz, ume ugari edukitzeaz eta abar arduratzen zirenak, jada ez ziren sentimendu horren eragile. Industrializazioarekin batera, diskurtso berri hauek iritsi eta langile klasearen moralizazio eta diziplinamendua hasi zen Llonaren arabera, langileek bere egin baitzituzten azkenerako eta praktikak, duintasun edo beren identitatea definitzeko modua eraldatzen hasi zenean. Horrela, familia nuklearra, eduki beharreko haur kopurua jaisteak, garbitasuna, higieena, morala, bizirauteko estrategia

⁵⁵M. Llona, 2006.

kolektiboak baztertea, gizonenako familiaren sostengatzaile papera eta emakumezkoen kasuan amatasunaren funtzioarena hasi ziren zabaltzen eta praktikan gauzatzen.

Hala, eremu produktibo eta erreproduktiboa, espazio publiko eta pribatu edo domestikoa, guztiz alendu ziren industrializazioaren ezarpenarekin batera. Hortaz, sexuaren arabera lan banaketa zurruna hasi zen gauzatzen, aipatu lehenengo eremuan gizonenako egongo liratekeelarik eta bigarrenengan, emakumezkoak. Frankismoaren proiektu zen Estatu Berriak, tradizioaren izenean, diskurtso berberak indartu eta bultzatu zituen: gizonenakoaren eginbearra familiaren sostengu ekonomikoa litzateke; emakumearena, ordea, erreprodukzioa eta zaintza lana. Eredu hau sostengatu asmoz, Frankismoaren helburu garrantzitsuetako bat senarraren familia-soldata lortzea zen. Baina, Pérez-Fuentesen arabera, helburu hau ideologikoagoa zen erreala baino. Izan ere, 1960 inguruko soldaten mailak aztertu ondoren, dioenez, hauek ez ziren 1936koak baino askozaz handiagoak, nahiz eta 1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legeaz geroztik soldatak pixka bat hasi ziren igotzen⁵⁶. Pérez-Fuentesek eginiko soldaten inguruko azterketaren arabera, garaiotan zeuden eguneko soldata minimoek ez zuten bizirauteko ere balio. Gauzak honela, zaila da onartzen emakumeek, bizirauteko beharrezko diren etxeko eta zaintzen lanez gain, ekarpen monetariorik ez egin izana garaiotan. Hainbat ikerketen bidez ondorioztatu daitekeenaren arabera⁵⁷, senarraren soldatarekin sostengatu eta biziraun zezaketen familiak unitateak urriak ziren, aristokrazia edota klase ertainetakoak ziren familiek soilik, Ray Pahlek dioenez⁵⁸. Kontutan hartu behar dugu, gainera, gure ikergaiaren subjektu eta objektu direnak migranteak zirela. Esan bezala, zergati ezberdinengatik lekualdatu baziren ere, ezin uka genezake soslai sozioekonomiko jakin bati erantzuten ziotela gehienek. Hortaz, beren kasuan ere ia ezinezkotzat dugu soldata bakarrarekin aurrera egin ahal izatea.

Hala itzultzen gara berriro apopilotzaren fenomenora. Ikerketa guzti hauetan ziurtatu denaren arabera, industrializazioaz geroztik, eta baita desarrollismoaren garaian ere, familiek soldaten batuetan oinarritzen zen biziraupenerako estrategiak garatu zituzten.

⁵⁶P. Pérez-Fuentes, 2004: 246.

⁵⁷Esmeralda Ballesterosek (1996) espainiar Estatuko jernalari zein hiriko langile ez-kualifikatuen soldatak, XIX eta XX. mendekoak, aztertu ondoren, indigentzia orokortua ondorioztatu du. Cristina Borderíasek (2001) XIX. mende amaierako Bartzelonako soldatak (Ildelfonso Cerdáren lanetik abiaturik) eta berak ere emakumeen lan ordaindua familien ekonomientzako ezinbestekoa izan zela ondorioztatu du. Miguel Ángel Barcenillak (1998) Errenteria-Oreretako ehun-langile familian, soldata bakarra bizirauteko ez zela nahikoa dio. Guztiak P. Pérez-Fuentes, 2004: 245-246 aipatuak.

⁵⁸R. Pahl (1991: 114) *Divisiones del trabajo*, Madril In P. Pérez-Fuentes, 2004: 244.

Hala, familiako kide guztiek (senar, emazte, seme, alaba...) hartzen zuten parte horretan. Zentzu honetan, aipatu ditugun diskurtso eta errealitatearen arteko kontraesanak azaleratzen zaizkigu. Diskurtso mailan eremu publiko eta pribatua, produktibo eta erreproduktiboa, eta familiako kide bakoitzak zeukan funtzioa hain sendoki bereizita egon izana zaila da, orduan.

Apopilotzaren fenomenoak migrazioarekin eta etxebizitzaren aferarekin doa zuzenean harremanetan. Izan ere, etxebizitza faltari, iritsi berriak ziren migranteen prekaritatea, zein jada bertan zeuden behar monetarioak asetu beharra faktore garrantzitsuak izan ziren horretarako. Gauzak honela, bertan jada finkatuak zeuden familietan zerbitzu hauek eskaini zizkieten iritsi berriei. Bertan lo lekua, janaria, arropa garbitzea bezalakoak asetu ahal izan zituzten, nahiz eta beste hainbat behar (sozializazioa, kasu) ere asetu ahal izan zituzten iritsi berriek ere horien bitartez.

Hortaz, laburbilduz, printzipioz 1962ra arte emakume ezkonduak enplegua izatea debekatua baldin bazuten ere, ikerketek⁵⁹ familiaren biziraupenerako beharrak asetzeko emakumeen enplegua beharrezkoa zela argitu dute. Hortaz, bizirauteko eta premia monetarioak betetzeko soldaten batuketara litzateke familietan zerabilten estrategia nagusia, Pérezen arabera. Batetik, emakumeen lan ez arautu eta informalean (isilpeko merkatuan edo azpiko lanetan⁶⁰, alegia) arituko ziren oro har. Bestetik, seme-alabek, gazteak izanda ere, beren ekarpena egiten zuten. Azkenik, gizonezkoek aparteko orduak eta enplegu bat baina gehiago eduki ohi zuten.

Etxebizitzaren afera, apopilotzaren fenomenotik haratago zihoan gaia izan zen, ordea, aztertzen ari garen garaiotan. Izan ere, Pérez-Fuentesen arabera, garaiko migranteentzako, bizirauteko klabea izan zen etxebizitza propioa (familiarra) lortzearena⁶¹. Esan moduan, migrante oldeak jaso zituzten hiriak ez zeuden prestatuta hori guztia kudeatu ahal izateko. Horri gainera Erregimenak berak bultzatutako etxebizitza-politika gehitu beharko genioke. Izan ere, alokairua beharrean, etxebizitzaren erosketak bultzatu zuen. Hala, desarrollismoaren ikurtzat har daitezkeen etxebizitza-

⁵⁹Pérez-Fuentes (2004); Pérez Pérez (2007). Biek lekuan lekuko adibideetan sakontzearen alde egiten dute, familia hornitu eta mantendu ahal izateko senarraren soldata nahikoa zela zalantzan jartzeko. Izan ere, diskurtso eta estatistiken arabera (diskurtsoa ezagutzeko tresna egokia izan daitekeena) emazteak etxeko lanez eta erreproduktzioaz arduratzen ziren. Adibide lokalen bitartez, eta bereziki ahozko iturrien bitartez eredu hori zurrungiztat jo dute eta langile edo klase apalen kasuan betetzen ez zela argitu dute.

⁶⁰*Mercado sumergido*.

⁶¹P. Pérez-Fuentes, 2004: 253.

dorreak eraiki ziren hirietan nonahi. Hauek, material kaxkarrarekin egin ziren, presaka eta merkatu honen inguruan espekulazioa eman zelarik.

Beraz, migranteentzat leku berrira iristean etxebizitza aurkitzearena biziraupenerako klabea izan zen, eta ondoren etxebizitza propioaren jabetza aspirazio bilakatu zen. Ezin ahaztu dugu, garaiotan desarrollismoarekin eta Europa eta Mendebaldera irekitzearekin batera, bertan zabaldu ziren kontsumismoaren diskurtsoak eta bizimodu berriak sartzen eta pentsamoldeetan eragiten hasi zirela. Hortaz, etxebizitza lortzea bizimodua hobetzearen sinonimo edo erakusgarritzat ere uler zitekeen 60ko hamarkadan. José Babianorentzat, etxebizitzaren afera diziplina mekanismoa izan zen⁶². Desarrollismoak behar zuen produktibitatearen hazkundera bermatzeko bitartekoa izan zen. Izan ere, esan bezala, Erregimenak alokairua bultzatu beharrean etxebizitzaren salerosketa bultzatu zuen. Langile familietan ez zen posible halako erosketa bati aurre egitea, soldatek ez zirelako hainakoak. Hortaz, etxebizitzaren erosketaren helmugara iritsi ahal izateko, langileek ordu eta orduak eman behar izan zituzten ordainketei aurre egin ahal izateko, esan bezala, maiz, familiako kide ezberdinen soldatak batuz horretarako.

Behin etxebizitzaren salmentan sartuta, beharrak larriak zirenean, migranteek ere apopiloak jaso izan zituzten.txean. Ikerketen arabera, apopilo gisa aritzea tenporala izan ohi zen emakume ezkonduen kasuan. Askotan, ordea, seme-alabak nagusitu eta hauek lan merkatuan txertatu arte aritu ohi ziren. Oro har, ezkonduetako emakume migranteek egin ohi zuten lan hau, baina, Pérezen iturrien arabera, hainbat alargunek ere jo zuten halako praktiketara. Emakume ezkonduak, bestalde, familiako estrategia monetario horien baitan garbiketa lanetan ibili ohi ziren abokatuen bulegoetan, etxebizitzetan zein kontsultetan, bata bestearekin zein etxeko-lan eta haurren heziketaren ardura eta etxeko gainontzekoen zaintzarekin eguneko eginbehar guztiak uztartuz.

5.3 GENERO ETA KLASE IDENTITATEAK: MIGRAZIOAREN ETA DESARROLLISMOAREN ERAGINAK

Identitateen gaia lantzeko hainbat iturrietara jo dugu. Ertz asko dituen gaia izaki identitatearena, hau lantzeko ere hainbat iturri eta autore ezberdinetara jo dugu ikertu

⁶²J. Babiano Mora (1998: 90) *Paternalismo industrial y disciplina fabril en España (1938-1958)*, Consejo Económico y Social, Madril In P. Pérez-Fuentes, 2004: 253.

dena ezagutu asmoz. Lehenago aipatu diren autoreek (Pérez eta Borderías) beren lanetan gai hau lantzen badute ere, beste hainbat obratan ere oinarritu gara: Borderíasen *Entre Líneas* (1993b) klase identitatean sakontzeko erabili dugu nagusiki, nahiz eta aipatu diren Pérez (2007) eta Borderíasenak (1991, 1993a) ere erabilgarri izan zaizkigun. Azken honenak Romoren (2005) “El desorden de la identidad persistente” artikuluarekin konbinatuz, genero identitatean sakondu eta orain arte garai honetaz (60. hamarkadaz) eta migrazioek eragindakoa lortu ahal izan dugu. Azkenik jatorriaz, komunitateaz eta bere parte sentitzearen ideiak hainbat lanetatik lortu ditugu: Blanco (1994), Aierdi (1993) eta Basterra; Iraola; Mateos; Zabalo (2009) lanei esker.

Klase identitateari dagokionean, Borderíasek kontzeptu garrantzitsu bat eskaintzen digu bere ikerketatan. Haren arabera, eta hainbat eta hainbat testigantzatan oinarriturik, emakumeek bizi izan zuten lanaldi bikoitza (ordaindua eta etxeko eta zaintza lanetan musu-truk egindakoa) “klaseko halabehar”⁶³ bezala bizi dute. Izan ere, bildutakoaren arabera, emakumeen identitatearen erdigunean lana legoke; lan esperientziari lotutako lana, eta ez etxeko lanena, eurak diotenez enplegua mugikortasun sozialerako, garapen eta autonomia propiorako eta kontsumo pertsonalerako bide zelako. Ez ordea etxekoandre lana, azken hau naturalizatua eta balorazio sozial handiegirik gabea delako. Klaseko halabehar hau, ahozko iturri batek dioen honekin laburbildu daiteke, gure ustez: “Las mujeres siempre hemos trabajado, lo demás era de señoritas”⁶⁴.

Hala ere, Borderíasen arabera, emakume hauek beren identitatearen erdigunean enplegua jartzen badute ere, uko egiten diote dimentsio horregatik soilik beren burua definitzeari. Alegia, beren identitatea hainbat dimentsio edo esferak gurutzatua litzateke, eta horiek esfera profesional zein pertsonaletan bizi dituzte.

Borderíasek lau generazio aztertu ditu (1991, 1993a). Gure ikerketako subjektu-objektu diren protagonistak Borderíasek definitzen dituen bi generazio ezberdinetakoak dira. Generazio bakoitzean ezberdin justifikatzen dute lekualdatzea eta ezberdin eragin die beren identitatean.

50. hamarkadan zehar lekualdatu direnak kontraesan artean egiten dutela diote: garaiotan emakumearen etxekotzearen inguruko diskurtsoa hegemonikoa litzateke,

⁶³*Destino de clase* deritzo kontzeptuari Borderíasek (1991, 1993b).

⁶⁴Borderías (1991: 114).

baina, beharrek bultzatuta lanaldi bikoitza egin beharko dute. Hauentzat, beraz, etxetik kanpoko lana mugikortasun sozial indibidual nahiz familiarerako proiektua litzateke.

60. hamarkadan lekualdatutakoek, ordea, ez dute jada beren burua transgresore gisara identifikatuko. Izan ere, garaiotan frankismoko diskurtsoa proiektzioa galtzen hasiko litzateke Borderiasen arabera, eta hortaz, lanaldi bikoitza hirugarren sektorearen gorakadarekin eta feminismoaren emantzipazio sozial, politiko eta identitarioaren diskurtsoa garrantzia hartzearekin batera, autonomia lortzeko bide gisara bizi dute lana.

Romok (2005) desarrollismoaren eta modernizazioaren prozesuak diskurtso eraldaketarekin batera kokatzen ditu. Hau da, politika ekonomiko berriek diskurtso, balore, arau sozial eta bizimodu berriak ekartzearekin batera, genero mandatu kontraesankorrek eragin zituela. Efizientziaren, arrazionaltasunaren, lanaren dedikazioaren, diziplinaren, kontsumoaren eta edertasunaren ideiak barreiatzen hasi ziren, eta horrekin batera, emakumearen enplegua legeztatu zen. Lehenago aipatu dugun moduan, ikerketek demostratu dute emakume askok eta askok enpleguak eduki zituztela, horiek estatistiketan ez dauden arren. Hala eta guztiz ere, diskurtso eraldaketak gizartean eragina izan zuen, nahiz eta modu kontraesankorrean, emakumeentzako familiarren garrantzi eta lehentasuna eta rol banaketak diskurtsoaren muina izaten jarraitzen zutelako. Errealiki emakume askorentzat lanaldi bakoitza lehenagotik zegoen errealitate bat baldin bazen ere, beste askok lan merkaturako jauzia egin zuten. Horrek hainbat tentsio sortu zituen erregimenaren zelula garrantzitsuenetan: familietan. Zentzu honetan, generazio arteko, senar-emazteen arteko zein genero-harreman arteko arrakalak sortzen hasi ziren desarrollismoa heltzearekin batera.

Ikusi beharko dugu, ordea, gure ikergaira nola egokitu ahal diren ideia guzti hauek, eta zein zentzutan eragin zieten gure protagonistei. Ikusi beharko dugu nolako tentsio sortu zituen diskurtso moldaketa honek eta zein puntutara arte irauten duen beren klase halabeharrendaren kontzeptuaren barneraketak.

Azkenik, naziotasun, jatorri eta pertenezia kolektiboaren identitateei dagokienean, aipatzekoa da integrazioaren ikuspuntutik egin izan direla Hego Euskal Herrian kokatzen diren eta garaiotako migrazioa lantzen dituzten lan gehientsuenak. Hots, Marko Teorikoaren puntuan azaldu moduan, identitate kolektiboa eta pertenezia

sentimenduak eraikiak eta aldakorrak direla kontutan hartzen badira ere bertan garatu diren ikerketetan⁶⁵, betiere lekualdatu eta iritsi diren horiek leku berrian txertatu eta integratu beharraren ikuspuntutik egiten dira.

Pertenentzia kolektiboaren identitateari dagokionean, ikerketa hauen arabera, bai autoktonoen eta baita lekualdatu zirenen artean “gu” eta “haiek” batez hitz egiten dute. Horrela, Blancok lekualdatu zirenek eta autoktono zeritzen artean *arroztasun sozial*⁶⁶ batez hitz egiten digu, hain zuzen ere, hainbat testigantzatan oinarriturik, dioenez, bizitza eta bizimodu paraleloak baitzaramatzaten. Hau da, autoktono eta iritsi berrien arteko ezagutza faltak elkarren arteko konfiantza falta eragiten zuelako. Hala eta guztiz ere, eta integrazioaren kontzeptuak erabiliz, elkar ezagutu ez arren, iritsi berriek ez zuten arroztasun sentimendu nabarmenik ageri, ez baitziren inoiz atzerritar sentitu⁶⁷.

Zentzu honetan, Blancok migranteak objektiboki zein subjektiboki integratu diren aztertu eta hainbat migrante mota ezberdindu ditu horren arabera⁶⁸. Batetik, objektiboki migranteak harrera gizartean integratu diren jakiteko, hiru migrazio mota bereizten ditu⁶⁹. Lehenik, inmigrazio tradizionala litzateke, hau da, euskal gizartean integraturik ez daudenak. Bigarrenik, elite inmigrazioa litzateke, hau da, maila sozioekonomiko altuagoa duten migranteak lirateke hauek, baina, aurreko multzokoak bezala, integratu gabeak egongo liratekenak. Hirugarrenik, sakabanatutako inmigrazioa legoke bere ustetan, hauen kasuan, denbora izango litzatekeelarik integratzeko faktorea.

Esan bezala, faktore subjektiboei erreparatuz ere aztertu du Blancok bere ikerketan honetan integrazioaren afera⁷⁰. Hau da, kasu honetan migratu dutenen pertzepzioa eta beren integrazio mailaz egiten duten irakurketa kontutan hartuz egindako sailkapena litzateke honakoa. Lehenik, migrante kosmopolitak leudeke Blancoren ustetan, hau da, hiri kultura barneratuta duten migranteak lirateke hauek. Hauek ez lukete beren burua migrantetzat, eta berentzat, talde kontzientzia edo talde pertenenentzia ez da beren identitatean garrantzitsua den zerbait. Beraz, aspektu nazionalistak edo kulturalak baztertuko lituzkete hauek. Bigarrenik, migrante nazionalistak leudeke. Hauek, euskal kulturarekiko atxikimendua edukiko lukete, beren jaioterriko kultura ez lukete

⁶⁵Aierdi, 1993; Blanco, 1994; Basterra, Iraola, Mateos, Zabalo, 2009, besteak beste.

⁶⁶*Extrañamiento social* deritzo terminoari Blancok (1994: 59).

⁶⁷Basterra, Iraola, Mateos, Zabalo, 2009: 23.

⁶⁸C. Blanco (1990). *La integración de los inmigrantes de Bilbao*, Bilboko Udala, Bilbo In Basterra, Iraola, Mateos, Zabalo, 2009: 30-31.

⁶⁹C. Blanco (1990: 195-202) In Basterra, Iraola, Mateos, Zabalo, 2009: 30.

⁷⁰C. Blanco (1990: 202-234) In Basterra, Iraola, Mateos, Zabalo, 2009: 30-31.

baloratuko eta beren burua jaso dituzten herrian integraturik eta txertaturik sentituko lukete. Hirugarrenik, etorkin pluralistak edukiko genituzke, jaioterriko kultura (ez espainiarra, andaluziarra, gaztelarra edo dena delakoa) beren identitatearen erdigunean egongo litzateke eta euskal kultura eta jaioterrikoarekin partekatuko lukete, nahiz eta beren lurraldekoa lehenetsiko duten hauek, nahiz eta integratuta sentitzen diren. Gainera, Blancoren iritziz, hauek ere gu < > haiek bereizketa egingo lukete. Laugarren eta azkenik, etorkin disoziatuak leudeke Blancoren aburuz. Batzuk, aktiboak lirateke, hau da, espainiar nazionalismoarekin bat egingo luketenak, eta Espainia Estatu zentralista bat izatea nahiko luketenak. Euskara eta euskal kultura baztertzen dute hauek eta integraturik sentitzen dira. Pasiboak, behe-klaseetako migranteak liratekeenak, diskurtso sinpleak edukiko lituzkete, aurrekoen antzekoak, baina, beren integrazioaren irakurketa argirik ez luketenak.

Hala eta guztiz ere, elkarren arteko ezezagutza horretaz gaindi, printzipioz bi komunitate daudenik baztertzen dute honako ikerketek:

Hortaz, ez dirudi migrazioak bigarren komunitate bat osatzen duenik. Nahiz eta, inklusio-esklusio harremanen barneraketa baten ondorioz, balizko bigarren komunitate hori sortzeko oinarriak egon daitezkeela pentsatu genezakeen (...) migrazioan hainbat aldagai daude nahasturik eta erreferentzia taldea eta ibilbide ezberdin horiek ez dute komunitate bakar baten izatea ondorioztatzen⁷¹.

Beraz, Aierdik dioenez (eta Basterra, Iraola, Mateos eta Zabalok bere egiten dute baieztapen hau), baztertu beharrekoa da bi komunitate egon zirela (eta daudelako) ideia. Izan ere, komunitatea osatzeko beren arteko kohesio eta komunitate identitate subjektibo bat eratzen eta konpartitzen dutelako ideia beharrezko baita.

Hainbat ondorio garbi lor ditzakegu aipatutako ikerketa hauetatik, eta guk guzti hauetatik abiatzen dugu gure ondoko ikerketa. Batetik, argi ikusten dugu, *male breadwinner family* eredua (industrializazioaren lehen garaitik diskurtsiboki zabaldu zena eta frankismoan legeen, diru-laguntza politiken, elizaren eta hezkuntzaren bitartez

⁷¹X. Aierdi (1993: 470). Itzulpena nirea da. Jatorrizkoa: *La inmigración, por tanto, no parece constituir una segunda comunidad. Aunque, por lo menos, como resultado de la interiorización de determinadas relaciones de inclusión-exclusión, pudiera pensarse que existan algunas bases para la constitución de una segunda comunidad (...) la inmigración está interferida por variables, grupos de referencia y trayectorias diferenciales que en absoluto permiten colegir la existencia de una única comunidad.*

berreskuratu eta ezarri nahi izan zena) klase apaletara ez zela egokitzen. Estatistikek hori errealitate hori isiltzen badute ere, lekuan lekuko ikerketek eta ahozko iturriek soldaten batuketan oinarritzen zen estrategia familiarrez hitz egiten digute.

Zentzu honetan, aipatutako ikerketetan argi ikusten dugu migrazioez jarduteko paradigma tradizionalak balio ez digutela. Izan ere, horien arabera, migrazioa baldintza edo hertsitze ekonomikoek eragiten dutela, prozesu hauetan emakumeak bigarren planoan egon zirela eta lekualdaketen ostean emakumeak are zapalduago gelditu zirela diote.

Borderíasen eta Pérezen lekukotasunek, ordea, migrazioa burutzeko zergatiak anitzak direla eta elkar gurutzatzen diren hainbat faktoreren ondorio direla ikusi dugu. Gainera, migrazioen subjektu gisara aitortzen dute beren burua, eta are gehiago, askotan haiek izan ziren familia edo ingurune guztia bertaratu arazi zutenak.

Migrazioa bera, eta lekualdaketak nahiz testuinguru gatazkatsuak biziraupenerako estrategiari gabe ezin dugu ulertu. Hala ere, aipatutako ikerketetatik ondorioztatu dezakegu sareek berebiziko garrantzia eduki zutela biziraupenerako. Migrazioaren bidea irekitzen zuenak, maiz, ondoren zetozen herrikide edo familia-kideei bidea irekitzen zieten, behin-behineko estalpea eskainiz edota zuzenean lehenengo enplegua lortuz. Borderíasek emakume sare familiarrez hitz egiten du. Haren arabera, landa ingurunean mantentzen ziren “emakumeen komunitateak” berpizten ziren, hirira moldatu ahal izateko estrategia gisara. Horren adibide gisara ikusten ditugu bere ikerketetan zer-nolako garrantzia eduki zuten sare horiek enplegu txikiak lortu ahal izateko.

Perezek dioen moduan, migrazioak, emakumeak eta azpiko ekonomia elkar harremanetan joan zirela argi gelditzen da. Hala ere, ez ziren azpiko ekonomian aritu ziren bakarrak.

Aipatu moduan, beren testigantzetatik abiatuta, esan genezake lan egiteko beharra batetik, biziraupenerako estrategia bilakatzen zutela lehenik, integratzeko eta mugikortasun sozialerako bestetik.

6- ANALISIA

6.1 TESTUINGURU HISTORIKOA

6.1.1 Estatu Berria: Estatu frankistaren eraikuntza genero ikuspuntutik

Frankoren diktaduran, Espainiako Gerra Zibila amaitutzat jo ostean, Estatu Berriaren sorrerari ekin zitzaion. Estatu Berriaren helburu nagusiak Espainiako gizartearen birsortze moral eta ideologikoa eta ordenaren berrezarpena ziren⁷². Hori gauza zedin, 1939tik aurrera, hainbat mekanismo jarri zituen erregimenak. Horien bitartez, Espainia proiektu bezala nolakoa izan behar zen eta baita ere espainiarrak nolakoak izan behar ziren zehaztu zen, diskurtso eta praktika ezberdinez. Hala, mekanismo batak bestea osatu eta elikatzen zuen, Erregimena zen osotasuna eratuz.

Estatuak zerabilen mekanismo horietako bat legeak ziren. 1939an 1889ko Kode Zibila berrezarri zuen Estatu Berriak. Honen arabera, emakumeak babes behar duten *menpeko gizakiak*⁷³ ziren. Honetaz gain, Errepublikara garaietan onartutako ezkontza zibila, dibortzioa eta abortua bertan behera gelditu eta legearen aurkakoak bihurtu ziren⁷⁴.

Bestalde, Lanaren Foruak (*Fuero del Trabajo, Fuero de los Españoles*), 1938koak, lanaren gorazarrea egiten zuen eta lan baldintza orokorrak eraldatu zituen, besteak beste, sindikatuak aukeratzeko askatasuna murriztu eta erregimenaren esanetara zegoen Sindikatu Bertikala aukera bakar gisara inposatu zuelarik⁷⁵. Emakumeei soldatapeko hainbat lan eta gaueko lana debekatu zitzaizkien eta soldata baxuagoak finkatu zitzaizkien. Gainera, ezkondu bezain pronto, lana uztera beharturik zeuden, nolabait, etxeko lana ez zen beste ezertan bere indarrak eta denborak eman ez zitzaten⁷⁶. Lanaren Foruaren bitartez, Estatuaren eginkizuna “ezkondutako emakumeak tailer eta fabriketako lanetatik askatzea” zen, euren patu gisara “hiritarren produkzioa, ondoren kontsumitzaile, soldatu eta aberriaren defendatzaileak izango zirenak” ezarri zutelarik⁷⁷.

Azkenik, legeen bitartez, kide ugarietako familiei (3 seme-alaba edo gehiago zituztenei)

⁷²M. V. Martins In R. Osborne, 2012: 276.

⁷³*Seres inferiores*.

⁷⁴L. Benería, 1977: 25.

⁷⁵E. Torres In C. Barciela, 2003: 220-221.

⁷⁶L. Benería, 1977: 25-26.

⁷⁷C. Borderías, 1993: 36 In S. Aznar (1948)

sari eta onurak eskaintzen zizkien Estatuak, hala nola, Gobernutik bideratutako dirulaguntzak eta eskolako kuoten murrizketak, betiere, familia horretako amak soldatapeko lanik ez bazuen⁷⁸.

Elizak moralaren zaindariaren eta hezkuntzaren arautzearen papera zuen. Hezkuntza, sexuaren arabera, guztiz ezberdindua bultzatu zen garaiotan, hala, neskatoei eskaintzen zitzaiena Sección Femeninak bultzatu zituen emakumeen funtzio eta baloreen bidean jartzen zituena zen. Ibilbide bakarra zuten, hautatzeko tarterik gabe uzten zitzaielarik. Hori hala izanik, jantzigintza eta josteta, ekonomia domestikoa, garbiketa eta halakoetara bideratzen zen haien hezkuntza. Horrela, nagusi zirenean, guztiz propio eta natural bihurtzen zirelarik⁷⁹. Honela zioen 1936ko testu batek:

'Hezkidetzeta' deritzon zabor moral eta pedagogikoa bertan behera jarritz, emakumearen benetako formaziorako lehenengo urratsa eman dugu... [Hala] tradizio osasuntsuaren itzulera ezartzen dugu, zeinak emakumea alaba, emazte eta ama gisara ikusten duen; eta ez Zientziaren eremuan gizonaren mailara alferrik iristen saiatzen den intelektual sasi-jakintsu bezala ikusten duena⁸⁰.

Bestalde, sexualitatea ezkutuan garatu eta bizi beharreko alderdia zen garaiotan, guztiz erreprimetua baitzegoen⁸¹. Moralak garrantzi handia zuen sexualitatearen (ezaren) gaian, izan ere, ezkontzatik eta helburu erreproduktiboetatik at zegoen sexualitate oro baztertua eta jazarria baitzen. Eredu asexual bat bultzatu zuen elizak eta Estatu Berriak, beraz⁸². Ez baita kasualitatea, sexualitateari zegokion gaia, Sección Femeninaren aholkulari erlijiosoen esku egon izana⁸³.

Sección Femenina, 1934an sortu zena, Falangearen emakumeen sekzioa zen. Hau Pilar

⁷⁸ L. Benería, 1977: 27-28.

⁷⁹ L. Martínez In E. Barranquero, 2010: 191.

⁸⁰ 1936an jada Nazionalen menpe gelditu ziren guneeetan lege berriak jartzen hasi ziren eta hau horietako bat izan zen. C. Sarasúa, C. Molinero, 2008 (In C. Borderías, 2008: 316). Itzulpena nirea da. Jatorrizkoa: (...) [Con] la suspensión de esta inmundicia moral y pedagógica que se llama 'co-educación' hemos dado el primer paso hacia una verdadera formación de la mujer... Se impone [así] una vuelta a la sana tradición que veía en la mujer la hija, la esposa y la madre, y no la 'intelectuada' pedantesca que intenta en vano igualar al varón en los dominios de la Ciencia.

⁸¹ Rafòls, Verdú, Rafòls, In E. Barranquero, 2010: 160.

⁸² D. Juliano In R. Osborne, 2012: 36.

⁸³ M. V. Martins R. Osborne, 2012: 282.

Primo de Riveraren gidaritzapean egon zena garai frankista osoan. Sección Femeninak emakumeen paper tradizionala goratu eta indartzeko sortu zen oro har. Eta baita, Falangearen mezu eta diskurtso politiko, moral, ideologiko eta zibikoak zabaltzeko helburuarekin sortua⁸⁴.

Politikari buruzko, laboreei buruzko eta formakuntza familiar eta sozialei buruzko kurtsoak ematen zituzten Sección Femeninako kideek. Besteak beste, emakumeen eginbeharra erreprodukzioa eta etxeko lanak zirela defendatzen zuten⁸⁵.

Euren ustetan, bi emakume mota zeuden, beraz: onak eta txarrak. Onak zintzoak, behar bezalakoak, otzanak, sakrifikatuak eta zerbitzatzeko bokazioa zutenak ziren. Oso eredu hertsia zen eta bertatik ateratzen zirenen estigmatizazio itzela jasaten zuten⁸⁶. Eredu batetan hala bestean kokatu beharra zegoen, beraz, ezinbestean; dikotomikoa zen eredu, Maria ez baldin bazinen, Eva izateko arriskua baitzeneukan. Eredu zehatz hori momentu oro mantentzea beharrezkoa zen, bizitzaren arlo guztietan. Zentzu honetan, garaiko bizi eredu, espektatiba, eginbehar eta portaerak erregulatzea zen helburua. Erregulazioa, norberarena izango zen, baina baita gainontzeko emakumeena ere, Di Febok dioen moduan, emakumeei egotzitako estereotikoak marjinazio arriskuarekin beti egongo baitziren elkar dependentzian⁸⁷.

Sección Femeninak emakumeen paperari garrantzia eman zien, gizartearen eraldaketarako giltzarritzat baitzituen, populazioaren erdia ziren heinean eta hezkuntzan eta balioen transmisioan paper garrantzitsua jokatzeko zuten heinean. Garrantzi horretaz jabeturik, Sección Femeninak ahalegin berezia jarri zuen emakumeei mugak jarri eta etxera itzularazten. Hitz batean, emakume bakoitzaren gune naturala irizten zuten horretara bueltatu araztean, bertan bere funtzio nagusiak ziren ama eta emazte paperak bete zituzten. Emakumeen eginkizuna, beraz, bestenganako zerbitzua⁸⁸ zela ziotenez, gizaki esaneko eta sakrifikatua izateko, bere autonomia murriztea beharrezko zen⁸⁹.

⁸⁴ Santapau, Herreros In E. Barranquero, 2010: 176.

⁸⁵ L. Benería, 1977: 25.

⁸⁶ D. Juliano In R. Osborne, 2012: 36-37.

⁸⁷ Di Febo, 2002: 202.

⁸⁸ *Ser para los demás*.

⁸⁹ M. V. Martins In R. Osborne, 2012: 277-279.

Esan gabe doa, amatasuna zela Sección Femeninak eta oro har, erregimenak, emakumeentzako zuen funtzio nagusia. Esan bezala, sexualitatea erreproduzitzeko helburuarekin soilik zegoen kontenplatu.

Estatu Berriak, beraz, emakumeak erreklusiora kondenatu eta bakartu nahi izan zituen. Sozializatzeko guneak eskasak ziren. Hala eta guztiz ere, emakumeek hainbat bitarteko jarri zituzten martxan bakardade horri aurre egiteko: irratiek paper garrantzitsua jokatu zuten lan horretan. Horretaz gain, elizak, merkatuak, herriko dantzaldi zein zinemak herritarrak elkartzeko espazio garrantzitsuenetakoak izan ziren, tokian toki pertsona ezberdinekin elkartzeko aukera baitzuten bertan⁹⁰, ondoren ikusiko dugun moduan.

Estatu Berriak feminitatea eta emakume izatea bere aparatu guztiekin nola eraiki zuen aztertzeaz gain, nolako gizontasun eredu irudikatu eta bultzatu zuen aipatzea garrantzitsua da, Marko Teorikoan azaldu dugun moduan, generoa elkar eragintzan dagoen rol, estereotipo, espektatiba eta arau multzo gisara ulertzen baitugu. Nahiz eta, ikusiko dugunez, emaitza ezberdinak dituen alderdi bakoitzarentzako.

Azpitarratzeka da, sexuaren araberako rolen bereizketari Gerra bitartean ekin zitzaiola. Bando Frankistan ondoren Estatu Berrian aplikatuko eta orokortuko zirenak hasi ziren bultzatzen. Funtzio osagarri eta dikotomikoak ziren horiek, tradizioa oinarri diskurtsibo gisara harturik. Emakumea beraz, “etxearen errekonkistara” bultzatu zen. Gizonezkoen kasuan, Gerra bitartean, gudari nekaezin, adoretu, diziplinatu eta sakrifikatuaren eredu bultzatu zen. Zentzu honetan, aberriaren alde heriotzara arte egon beharko litzateke, beldurrik gabe arrazoiagatik mugitua. Guzti honetan, beraz, itxura fisikoak eta kirolak berebiziko garrantzia eduki zuten. Gerra zela kausa mutilazioak jasan zituztenek edo gorputz ez normatiboak zituztenak guztiz baztertuak gelditu ziren Gerra garaiko Frankismoko gizon eredu honetatik. Funtzioa edo zegokion papera ez betetzearen bazterketa eta ondoriozko lotsa jasan behar izan zuten guzti hauek.

Indarkeriari, gerrari eta abarri lotuta zegoen gorputz mota hauen diskurtsoaren bultzatzaile nagusia Falangea izan zen. Hala ere, Gerrak aurrera egin ahala, maskulinitateari buruzko beste diskurtso batekin elkarbizi zen; paternalismoaren eredu

⁹⁰ L. Martínez In E. Barranquero, 2010: 196-198.

zuen diskurtsoarekin, hain zuzen ere⁹¹. Diskurtso honen arabera, gizona zen autoritatea, baina, ez militar ezta biolentoa. Hau da, familia patriarkarraren eredia bultzatzen zuen diskurtso honek, gizona familiaren burua izango litzateke gizarteari begira nahiz familia barrura begira.

Hala, gizartean protagonista papera edukiko luke, lehen aipatu ditugun mekanismo guztien bitartez (Kode Zibila, Lanaren Forua) hori bermatzen baitzen. Bestalde, familian lan produktibo monetarioa egitearen papera zuenez (teorian), familian hornitzailearen figura izango luke, bertan autoritate osoa emango liokeena.

John Toshen arabera⁹² Mendebaldeko gizarteetan hiru gune nagusitan erreproduzituko litzateke maskulinitatearen erakustaldia: etxean, lanean eta gizonen elkartean. Hiru horien artean enplegua bereziki azpimarratzen du Maria del Carmen Muñozek⁹³, langile klasearen baitan nagusitzen den maskulinitate ereduaren honek zentralitate osoa hartzen baitu bere ustetan. Lan gogorrek egitea, indar eta esfortzu fisikoa suposatzen zutenak eta osasunarentzako arriskutsuak zirenak lirateke lan horiek. Gainera, beren lankide guztiak gizonezkoak izanik, etengabeko erakustaldia litzateke beste ezaugarri horietakoak. Azkenik, teorian esan dugunez, etxean dagoen sostengu ekonomiko bakarria izateak, bertan ere lehen aipaturiko autoritate figura osoa emango lieke.

Beraz, hau ikusirik, esan dezakegu Estatu Berriak sexuaren araberako bereizketa sakona ezarri zuela, aipatu mekanismo guztien bitartez. Finean, gizonezkoak “degeneraturik zegoen gizartea birsortzeko” agente aktibo gisara ikusten zituen Erregimenak. Aldiz, emakumeen egin beharra lan isil gisara definitu zuten hasiera-hasieratik⁹⁴.

Estatuak bere ahalmen guztiekin bultzatu zuen eredu zurrin hau. Honek honek bazituen bere konplizeak: herritarrak. Dena besterik gabe onartu zutela esatea justua ez litzatekeen arren, presio sozialak eta familiako kideek egiten zutenak bere papera jokatu zuten⁹⁵. Kontutan hartu behar dugu, moralak, besteen iritziak edo “esango dutenak”

⁹¹ M. Vincent (2006): 147.

⁹² J. Tosh In M. C. Muñoz (2007): 254.

⁹³ M. C. Muñoz (2007): 255.

⁹⁴ G. Di Febo (1991): 209.

⁹⁵ D. Juliano In R. Osborne, 2012: 36.

zein erlijioak garrantzia zuela egunerokotasunean⁹⁶. Bata bestearen kontrolatzaile bihurtu zen, lehenago ere esan dugun moduan. Aitzitik, garrantzitsua da ez ahaztea eredu diskurtsiboez ari garela. Hots, idealez.

Estatu Berriak, familia nuklearrez osaturiko antolaketa nahi eta bultzatzen zuen. Gizartearen antolaketaren oinarritzat zuen Erregimenak familia nuklearra⁹⁷ eta bertan gauzatzen zen, teoriar, sexuaren araberako lanaren banaketa⁹⁸. “Familiarismoa”, hau da, ordena publikoan giltzarri familiek berebiziko garrantzia edukitzea, zeritzona bultzatu zuen beraz, Erregimenak⁹⁹. Hala ere, gizartearen egiturak ez ziren hain finkoak eta familiarterko sare zabalak hainbat arazori aurre egiteko funtsezkoak izan ziren¹⁰⁰.

6.1.2 Aldaketa makroekonomikoak: Desarrollismoaz Europara egokitzen

Aztergai dugun garaia ulertu ahal izateko, Estatu Berriak zuen proiektuan sakondu behar dugu. Izan ere, garai aldakorak izan ziren honakoak. Guk horiek denak kontutan hartu behar ditugu gure ikergaira egokien hurbildu ahal izateko.

Testuinguru historiko zabal zein zehatza edukitzea garrantzitsua da. Orain arte Estatu Berriaren eraikuntza politikoan zein genero-diskurtsioetan sakondu dugu. Ikergaiari dagokion garaiko beste hainbat elementu ere aztertuko ditugu jarraian. Izan ere, garaiko ezaugarri ekonomiko eta kulturalak aztertzea ere garrantzitsua da, are gehiago horien eraldaketa gauzatzen hasi baitzen aztergai dugun momentu historiko honetan. Testuinguru ekonomiko eta kultural hauetan sakonduko dugu, besteak beste, biak faktore garrantzitsuak izan baitziren migrazioak burutzea erabakitzekeo garaian. Biak ala biak Erregimenaren fase eraldaketa zela eta gauzatzen hasi ziren.

Espainiar ekonomiak Estatu Berriaren sorreraren hastapenetan, jakina den moduan, eredu autarkikoa eduki zuen. Ordea, 50ko hamarkadan zehar bere mugak eta ezinak azaleratu ziren. Garaiotan, Europara gutxika irekitzen joan zen Estatu Frankista, ekonomikoki nahiz politikoki. Izan ere, Bigarren Mundu Gerra amaituz geroztik, Europako herrialdeek Erregimenaren aurkakotasuna adierazi bazuten ere, 1953an

⁹⁶ Santapau, Herreros In E. Barranquero, 2010: 179.

⁹⁷ Molinero, Ysàs, 2008: 3.

⁹⁸ C. Borderías, 1993: 257.

⁹⁹ C. Sarasúa, C. Molinero In C. Borderías, 2008: 314.

¹⁰⁰ C. Borderías, 1993: 258.

Vatikanoarekin sinaturiko Konkordatuaz geroztik, bestelako zilegitasun bat hasi zen lortzen Estatua Europako diplomaziarentzako. 1955erako Nazio Batuen Erakundearen kide izendatu zuten Espainia eta horretaz gain, Ameriketako Estatu Batuen dirulaguntzak jasotzeko akordioa lortu zuten.

Politikoki gainontzeko estatuen zilegitasuna lortzeak ez du esan nahi eraldaketa sakonak egin zirenik Erregimenaren baitan. Juan Pablo Fusiren hitzetan “1945ra arte erregimen filofaxista eta totalitarioa” zena, ondoren “europazalea eta katolikoa izatera” igaro ostean, 50ko hamarkadaren akaberan, fase desarrollista eta teknokrata bati ireki zion bidea Erregimenak¹⁰¹. Hala, Falangearen nagusitasuna albo batera utzi eta Opus Deiko teknokratak jarri ziren gobernuaren buruzagitzan, elizaren lehentasuna mantendu eta lege neoliberalak ezartzeko asmoz.

Zilegitasun berrien bila zebilen Erregimena. Zentzu horretan, hainbat lege berri plazaratu zituzten, nazioartearen onarpena lortu nahian. Besteak beste, Mugimenduaren Oinarrien Legea, 1958an eta baita Emakumearen eskubide politiko eta profesionalen Legea, 1961. Kode Zibila, beraz, 1958ko lege horren bitartez erreformatu zen. Honen bitartez emakumeen ahalmen juridikoa zabaldu zen arren, gizonezkoaren menpeko gisara definitzen zituen oraindik¹⁰². 1961ean Emakumeen eskubide politiko eta profesionalen Legea plazaratu bazen ere, honako lege hau Erregimena burutzen hasi zen aurpegi aldaketaren adierazle bat dela esan genezake, izan ere, honekin emakumeek etxetik at merkatuan lan egitea baimendu bazen ere, sakonean zuen ideia sexuaren araberako rol banaketa mantentzearena zen, hots, familia-gizonaren soldatarekin nahikoa izatea idealena litzatekeela.

Esan dugu, beraz, Erregimena eraldaketa sasoi betean murgildu zela 50eko hamarkadaren amaieran. 1959an modernizazio ekonomikoari bideak ireki zitzaizkion, Hamarkada Desarrollista (1959-1969) deritzonari bide emanaz. Hamarkada Desarrollistan zehar, aldaketa ekonomiko zein kulturalak proposatu ziren, eta zentzu honetan, bizi moduen inguruko diskurtso berriak hasi ziren plazaratzen.

Egonkortze Plana izenaz ezagutzen denak, besteak beste ekonomiaren saneamendua eta

¹⁰¹S. De Pablo, 2002: 103.

¹⁰²M^a A. Martínez In Ortega; Matilla, 1996: 532.

kanpo-merkataritzari irekitzea zen helburua, eta hortaz, industrian jarri zuen bere modernizaziorako eta hazkunderako erdigunea. Europako hazkunde amaigabearen erritmo eta ereduari batu nahian, Munduko Bankura, Nazioarteko Diru Funtsera eta Europako Ekonomiaren Kooperaziorako Antolakundera batu zen Estatua.

Egonkortze Planaren helburu zehatzak prezioen egonkortzea lortzea, kanpo merkataritzaren liberalizazioa eta atzerritar inbertsioa bultzatzea ziren. Jarraian zetorren hamarkadarako hazkunderako oinarriak jarri ziren Planaren bitartez, nahiz eta hasiera batetan emaitzak eskasak izan ziren, besteak beste inflazioa, soldaten izoztea eta langabezia eragin baitzituen. Hori, besteak beste, gizartearen hertsaduraren bitartez lortu zen (1959ko Ordena Publikoaren Lege Berriaren bitartez eta sindikatu bakarrarekin, adibidez), soldatak izoztuz, enpresa publikoetako inbertsioak murriztuz, eta abar¹⁰³. Nolanahi ere, aipatu dugunez, Erregimena zilegitasun berrien bila zebilen. Jada lehenagoko kontrol mekanismoak ez zuten 40ko hamarkadan zehar lortzen zituzten emaitzak eskuratzen. Kontrol mekanismoak alboratu gabe, irekitasun eta onarpena eman behar izan zien Erregimenak kritikei (batez ere prentsez gauzatu zirenei), fase berri honetan gizartearen kontsentsua lortzea baitzen helburu. Horretarako, bizi baldintzen hobekuntzaren bandera erabili zuen behin eta berriro Erregimenak¹⁰⁴.

Beraz, 60ko hamarkadako hazkunderaren zentralitatea industriak, batez ere astunak, hartu zuen, Garapen Planen bitartez hori bultzatu baitzen. Nekazaritzari dagokionean, helburua populazio guztia hornitzea zen, autokontsumotik merkaturako ekoiztera pasa zirelarik. Hori gertatzen zen bitartean, nekazal mundua husten hasi zen, izan ere, gauzatzen hasi zen mekanizazioak lan eskua soberan edukitzea eduki zuen ondorioztat.

Plangintzarik gabeko migrazio uholdea izan zenez, eraldaketa sakonak eragin zituen oldea jaso zen hirietan; eraldaketa nabarmenak gertatzen hasi ziren urbanistikoki, sozialki, eta abar. Hortaz, landa exodoa gauzatzen zen bitartean hiriguneak jendez betetzen jarraitu baitzuten, etengabe. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da txabolismoa gisako fenomenoak gertatu izana. Horretaz gain, etxe eta auzo berriak eraiki ziren etengabean, bertan hirietara iristen ziren pertsona berriak beren bizilekua hartzen zutelarik. Garrantzitsua da esatea, ere, eraikuntza hauetan nagusi izan zela espekulazioa

¹⁰³ Témime, Broder, Chastagnaret, 2005: 312-315.

¹⁰⁴S. De Pablo, 2002: 57, 58, 66.

eta baita material eskasarekin egindako etxeak. Esan bezala, prestatu gabeko eraldaketa zenez, hiriek beren biztanle kopuruak ziztu bizian igo ziren eta zentzu honetan, zerbitzu eta azpiegiturek ez ziren behar bezalakoak, oro har.

Lehenago esan dugunez, eraldaketa garrantzitsuak gauzatzen hasi ziren urteak izan ziren 50eko hamarkada amaieratik aurrera. Politikoki emandako aldaketak xumeak izan baziren ere, ekonomikoki nahiz sozialki eraldaketak gauzatzen hasi ziren, eta baita pentsamoldeetan ere. Desarrollismoa deituriko eredu ekonomikoak garai oso honi ematen dio izen. Izan ere, hazkunde industrialean oinarritzen zen eredu honek gizarte eredu berri bati ireki zizkion ateak, lehen aipatu dugunez. Europari ateak irekitzeak Europako hainbat balio ekartzea ere eragin zuen, eta turismoak ere horretan lagundu zuen.

Kontsumoa izan zen desarrollismoko baloreetako bat. Lehenago etxean bertan produzitzen ziren produktuak merkatutik lortzea joera bihurtu zen. Horretaz gain, ordu extrak eginez, lehenago pobreturik ibili zirenek kapitala metatu zezaketela nabaritzen hasi ziren. Hortaz, eredu europarra imitatu nahian, kotxeak bezalakoak kontsumitzen hasi zen langileria masa handi bat, besteak beste urte batzuk lehenago nekazal mundutik etorri zirenek. Balore aldaketa hauek bizi-espektatibetan eraldaketak eragin zituen, langile askoren ametsa bihurtu baitzen eskala sozialean eta klasean gora egin nahia. Lehenago, ikergaiaren egoeraren puntuan, sakondu dugu ere genero ikuspuntutik honek eragin zituen eraldaketak, eta zentzu honetan, genero eginbeharrak bihurtu zen tradizioa hartu edo uzten den balorea zen.

6.1.3 Desarrollismoa eta Euskal Herrirako migrazioak

Migrazioari dagokionean, kontutan hartu beharreko ezaugarriak dira Desarrollismoa zeritzon aldaketa ekonomiko zein kultural hauek. Bizi baldintzen hobekuntzen bandera hartu zuen Erregimenak aipatu fase berri honetan. Zentzu honetan, nekazal mundua husten joateak, industriak berebiziko garrantzia edukitzeak, lan esku beharrak, lanaren bitartez bizimodu hobe bat lortzearen ideiak eta kontsumismoaren bizi-filosofiaren pisuak garrantzi handia eduki zuten migrazioak burutzerako garaian, ondoren ikusiko dugunez.

Aipatu dugun moduan, ekonomiaren hazkundearen ardatza industrian jarri zelarik, landa

guneko hainbat eta hainbat herri husten joan ziren, hirien masifikazioa eraginez. Izan ere, industria erdigunean jarri zenez, nekazaritzan ez zen inbertsio handiegirik egin, eta oraindik guztiz mekanizaturik gabe jarraitzen zuen sektorea zen lehenengoa. Mekanizazioak, gainera, lanpostuak murriztea eragin zuen eta hori ere beste faktore garrantzitsu bat izan zen migrazioaren zergatiak aztertzerako garaian.

1962an hasi ziren Garapen Planen zonalde estrategiko bezala Euskal Herria ez baldin bazegoen ere, bere eraginak nabarmen nozitu ziren bertan. Kontuan izan behar dugu, hala ere, Bizkaiko Ezkerraldearen berezitasuna. Izan ere, migrazio uholdea hasi baina hamarkada bat lehenago bertara migrante ugari iristen joan baitziren. Oraindik Erregimenak zuen eredu autarkikoa zela-medio, zonaldeko industriek barne-merkatuan nagusi baitziren¹⁰⁵.

Garapen Polorik bertan zehaztu ez bazen ere, inbertsio-gune nagusi izan ziren Bizkaia eta Gipuzkoa. Kostaren saturazioa zela-medio, Arabara zein Nafarroara ere iritsi ziren industrializazio osoa bermatzeko kapitalak. Bizkaian industria metalurgikoen hazkundeak jarraitu zuen, Gipuzkoan kooperatibak jaio ziren, besteak beste kontsumo-gaiak produzitzen zituztenak, eta Araba industria kimikoan espezializatu zen. Lehen aipatu dugun moduan, zerbitzu eta azpiegituren aldetik eskasa izan zen garapena.

Beraz, Egonkortze Plana eta Garapen Planek Euskal Herria jo puntu ez bazuten ere, Desarrollismoan sartu zen ezbairik gabe. Lehen aipatu ditugun balore berriez gain, aipatu behar dugu migrazio olde handi bat ere gauzatu zela momentu honetan.

Hainbat izan daitezke migrazioa burutzeko zergatiak. Nahiz eta begi bistakoa zen hainbat ezaugarri komun baditugula (adibidez, landatik hirirako eraldaketa bat izan zela, edo Estatuko hainbat gunetan bereziki masiboa izan zela, Madilen, Bartzelonan eta Euskal Herriaren kasuan Bilbo inguruan eta Gipuzkoako eskualdeetan), zaila da benetako zergatietara jotzea. Nahiz eta arrazoi estrukturalak diren hainbat ikerketatan etengabeaz azpimarratzen diren zergati bakarrak, guk hainbat faktoreren eragina izan zirela uste dugu, ondoren azalduko dugunez.

¹⁰⁵A. F. Canales, 2003: 58-60.

Esan bezala, migrazioak inpaktu ugari ekartzen ditu bai jatorrizko gunean baina baita lekualdatua jasotzen duen gunean ere. Horiek aztertzen saiatuko gara jarraian. Hala eta guztiz ere, Euskal Herrira eta bereziki Gipuzkoara iritsitako migrazioaren nolakotasunen alderdi bat ikusteko, honako kopuruak azalera eta kontutan hartzea garrantzitsua da, fenomenoaren eraginak nolakoak izan zitezkeen bistaratzeko joateko.

	Populazioa 1950	Populazioa 1975	Migrazioerik gabeko populazioa	Hazkunde errealak 1975	Migrazioaren eraginezko hazkundera
ARABA	118.012	238.303	161.046	120.291	77.254
GIPUZKOA	374.040	682.517	522.045	308.477	160.027
BIZKAIA	596.188	1.151.680	780.607	582.492	371.073
EAE	1.088.240	2.072.500	1.463.698	984.260	608.357

106

Bistan da, data batetik bestera doan tartean, EAeko hiru lurralde historikoetan bikoiztu egin zela, gutxienez, populazioa. Horretan, dudarik gabe, lantzen ari garen fenomenoak garrantzia handia izan zuelarik.

Iritsiera urtea	1955 aurretik	1956 - 65	1966 - 75	1976 - 85	1986	Guztira
EAE	109.310	172.724	154.255	65.746	3215	505.250
ARABA	9263	22.608	30.657	15.646	768	78.942
GIPUZKOA	34.360	47.491	41.281	17.277	893	141.302
BIZKAIA	65.687	102.625	82.317	32.823	1554	285.006

107

Goiko taula honetan ikus dezakegunez, 50eko hamarkadaren bigarren zatia eta 60ko hamarkadaren lehenengo erdia izan ziren erabakigarrienak. Ondoren, 60ko hamarkadan zehar, migrazio fluxuak jarraitu baldin bazuen ere, gutxika apaltzen joan zela ikus dezakegu.

	Bidasoa	Deba Behea	Deba Garaia	Donostia	Goierni	Tolosaldea	Urola Kosta
Andaluzia	8.02	8.43	10.65	5.63	4.13	4.37	5.18

¹⁰⁶Populazioaren igoeran migrazioak eduki zuen eragina. Iturria: J. A. Pérez, 2007: 78.

¹⁰⁷Migrazio kopuruak, iritsiera urtearen arabera. Iturria: X. Aierdi, 1993: 186.

Aragoi	1.69	1.14	1.06	2.19	1.39	1.77	1.62
Asturias	1.94	1.03	0.65	1.40	0.74	1.26	1.30
Balearrak	0.07	0.06	0.04	0.10	0.02	0.09	0.11
Valentzia	0.88	0.39	0.25	0.59	0.24	0.44	0.54
Kanariak	0.16	0.11	0.08	0.18	0.08	0.15	0.12
Gaztela Leon	36.39	33.95	37.97	33.91	43.55	31.34	25.23
Gaztela Mantxa	3.02	6.78	3.45	1.84	1.68	2.63	2.26
Katalunia	1.80	0.71	0.56	1.33	0.52	0.99	1.05
Zeuta-Melilla	0.16	0.10	0.11	0.17	0.05	0.07	0.05
Extremadura	17.98	10.20	21.56	17.20	18.54	26.13	44.17
Galizia	6.20	19.64	8.04	11.23	8.48	5.27	4.43
Madril	3.18	1.39	1.32	2.74	0.99	1.45	2.20
Murtzia	0.45	0.30	0.09	0.27	0.11	0.12	0.18
Errioxa	2.98	3.57	4.61	4.45	3.31	3.60	2.26
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

108

Gipuzkoako populazio igoera horrek badu ezaugarri bat, hain zuzen ere, industria gunek herrialde osoan zehar sakabanaturik zeudenez, lekualdatu zen populazioa eskualde guzti horietan zehar sakabanatu zela. Ikusten denez, Estatuko puntu ezberdinetatik iritsi ziren migranteak, baina, horietan nagusi izan zirenak, Gaztelatik eta Extremaduratik iritsi ziren. Hortaz, gehiengoa, landa ingurunetik zetorrela ondorioztatu dezakegu.

Adina	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
0 -14	29.28	29.48	29.30	29.14
15 -34	52.79	52.08	52.87	52.99
35 – 49	12.26	12.16	12.37	12.10
50 – 64	4.01	4.44	3.89	1.02
65 +	1.66	1.84	1.57	1.75
Guztira	100	100	100	100

109

¹⁰⁸Migrazioaren konposaketa, Gipuzkoako eskualdeetan. Iturria: X. Aierdi, 1993: 179.

Lekualdatu ziren horien profilarekin jarraituz, ikus dezakegunez, pertsona gazteak zirela esan dezakegu. 15etik 34ra doan tartea, adinari dagokionean, oso tarte zabala da. Ez baita berdina izango 15 urterekin edo 30 urterekin lekualdatu izana. Gazte lekualdatu zirenen kasuan, oro har, soltero lekualdatu ziren, adibidez. Dena dela, gazte lekualdatze horrek esan nahi du, bizi proiektu oso bat eraikitzeko lekualdatu zirela, ziur aski.

	GUZTIRA	Oinarrizkoa	Profesionala	Bigarren mailakoak	Ertainak	Goi mailakoak
EAE	100	82.05	5.84	6.90	2.82	2.39
Gizonak	100	79.41	7.40	7.34	2.41	3.44
Emakumeak	100	84.50	4.38	6.50	3.20	1.42
ARABA	100	79.49	7.21	7.59	3.35	2.37
Gizonak	100	77.22	8.84	7.99	2.64	3.30
Emakumeak	100	81.69	5.62	7.19	4.03	1.47
GIPUZKOA	100	81.87	6.29	6.68	2.80	2.36
Gizonak	100	79.03	8.12	7.09	2.35	3.42
Emakumeak	100	84.46	4.62	6.30	3.22	1.40
BIZKAIA	100	82.83	5.24	6.83	2.68	2.42
Gizonak	100	80.21	6.65	7.28	2.37	3.50
Emakumeak	100	85.26	3.93	6.42	2.97	1.41

110

Ezaugarri orokorrekin amaituz, azken koadro honi esker ikusten dugunez, gehiengo nagusiak oinarrizko ikasketadunak ziren. Ondoren aipatuko badugu ere, landatik lekualdatu zirenen kasuan, eskolatik garaiz irtetea ohikoa izan ohi zen, batetik, landan bititzeak zekartzan lanak egin eta eskolarekin konbinatu behar zituztelako, eta ondoren, etxeko beharrak asetu ahal izateko, gaztetxo zirelarik, beren ekarpena egin behar izaten zutelako.

Migrazioen ezaugarri guzti hauek kontutan hartzekoak dira, batetik, migranteek profilak irudikatzeko tresna egoki direlako, baina, baita helmuga ziren herriko paisaian zer eraldaketa eragin zuten (adibidez, populazio igoeraren kopuruak ikusiz) bistaratu dezakegulako. Oinarri guzti hauetatik abiatuko gara gure analisia egiteko, beste hainbat

¹⁰⁹Lekualdatu ziren momentuan migranteek zuten adina. Iturria: X. Aierdi, 1993: 197.

¹¹⁰Migrazioa eta hezkuntza maila, sexuaren arabera. X. Aierdi, 1993: 206.

aspektutan sakondu ahal izateko. Izan ere, migrazioak garaiko gizartearen eta pentsamoldeen eraldaketan berebiziko garrantzia izan zuen. Migrazioak, egokitutako patua ez onartzea ekar zezakeen berekin, eta beraz, bizirauteko nahiaz gain, etorkizun hobia eskuratu nahiaren isla izan ziren¹¹¹. Garaiko eraldaketa estrukturalak (demografian, ekonomian, gizartean) pentsamoldeen eraldaketarekin nahastu ziren, Berneckerren arabera¹¹², araua zena hausteko baldintzak posibleak nahiko estu eta murrizak zirela kontuan hartuta.

6.2 MIGRAZIOA PROZESU GISARA: BIZITZA HISTORIAK

Esan bezala, migrazioa datu edo kategoria demografiko eta lekualdatze batetik haratago doan prozesu gisara ulertzen dugu ikerketa honetan. Sorlekuan hasten den prozesu bezala kokatzen dugu. Aitzitik, prozesua amaitutzat noiz jo daitekeen zehazteko aldagai zehatzik ez dugu ipini, esperientzia eta pertsonaren arabera bizipenek zehazten baitute hori. Batzuk iritsi eta berehalakoan amaitutzat joko badute ere, beste hainbestek bizitza osoan zehar daramaten kategoria soziala izango baita migratzailearena.

Prozesua noiz amaitzen den argitzearen aferan ez gara sartuko, beraz. Interesa migrazioa lekualdatze hutsa baina gehiago dela ulertzean datza, esperientzia honek norberaren mundu ikuskeran eta esperientzian eragin handia eragiten duela uste dugu.

Aipatu moduan, prozesu migratorioak oso anitzak dira, esperientzia eta horretaz egiten den irakurketa ezberdina izango baita pertsonaren arabera. Elkarrizketatutako bakoitzak nola gogoratu eta horretaz zein hausnarketa egiten duen hasi aurretik, hona hemen gure parte-hartzaileen migrazio prozesuaren hasierari buruzko hainbat datu:

NOR	NOIZ	ADINA	JAIOTERRIA
ELOINA	1958	29 urte	Cañizal, Zamora, Gaztela
MARI	1959	15 urte	Cañizal, Zamora, Gaztela
ELENA	1961	14 urte	Ovejuela, Caceres, Extremadura

¹¹¹W. L. Bernecker In Townson, 2009: 50.

¹¹²W. L. Bernecker In Townson, 2009: 58.

JOSE	1962	18 urte	Bean, Ourense ,Galizia
JUAN	1963	17 urte	Ponte Carreira, A Coruña, Galizia
MANUEL	1965	15 urte	Arins, A Coruña, Galizia

Esan bezala, ordea, migrazio prozesua aztertzeko horien gainean elkarrizketatutako bakoitzak egiten dituen gogoeta eta irakurketak kontutan hartzea beharrezkoa da.

6.2.1 Zergatiak, asmoak eta eraginak

Errepikatu gisan, faktore batek baina gehiagok eragiten dute lekualdatzea bera. Horiek zertan datzaten ikusiko dugu aurrenik, banan bana.

- a) Eloina: Haurtzarotik gogoratzen du pobrezia eta jan falta, aita zein ama lan eta lan gogoratzen ditu, aita etxe bateko errekaidero gisara eta ama mendian orbelak biltzen. Eskolara lau urtez joan bazen ere, txikitatik egin zituen berak ere behar ziren lanak eta 10 urte zituelarik etxe batera joan zen zerbitzatzera. Horietako esperientzia bat aitarekin partekatu zuen, bere aitak ere bertan lan egiten zuelako, gutxiespen artean zebiltzalako. 23 urte zituen arte egon zen etxeetan zerbitzaten eta gurasoen etxetik at. Ezkondu zenean, senarrarekin joan zen bizitzera. Gutxi iraun zuen kontuak, ordea. Senarraren amaren etxean bizi ziren, jateko gai gutxi eta espazioz ere murrizt zebiltzalarik erabakia hartu zuten: senarra lan bila aterako zen beste nonbaitera. Hiru urtez egon zen senarrarekin gutun bitartezko harremanetan eta herrian (jada pare bat haurrekin), hura Bilbotik Bartzelonara etengabe lekualdatzen ari zelarik. Azken honek, ordea, Zumarragako fabrika lortu zuen lanpostua eta mendi aldean zegoen Leturi Barrena baserrian lo egiteko espazioa.

Hala eman zion hasiera Eloinak bere migrazio prozesuari. Ezin uka genezake, berak, lehenago hasi zuela, bera mugitu ez arren, senarra ezkondu eta urtebetera mugitu zenean.

Esan genezake, beren lekualdatzeko zergati nagusia diru gehiago lortu ahal izateko lanbide baten bilaketa izan zela. Beren asmo eta espektatibak, hortaz,

familia den kolektibo osoaren biziraupenerako fasekako migrazio mota gisara definitzen dugu.

- b) Mari eta Eloina familia bereko kideak dira. Migrazioaren zergatiak antzekoak izan zirela esan genezake; ibilbideak, ordea, zeharo ezberdinak. Mariren kasuan ere, pobreziak eta jan faltak definitzen du bere haurtzaroa. Berak haurtzaro zoriontsua bizi izan zuela aldarrikatzen du, lan asko egin behar izan bazuen ere. Guraso biak lanez gainezka, eurak beren etxea faseka nola egin zuten eta zenbat kostatu zitzairen gogoratzen du. Honek ere, gaztetandik eskola eta etxean laguntza partekatu zituen, batez ere bere anaien zaintzan jardun zelarik. Hau garrantzitsua da, bere bizitza osoa besteekiko zaintzan eman baitu. 13 urte zituelarik hasi zen inguruko herrietako etxeetan zerbitzatzen, eta bertako aukera eta soldata eskasak ikusirik amaren ahizpa batengana joan zen 14 urterekin Madrilera. Beraz, esan dezakegu Marik ez duela oso kontzienteki hasten bere migrazio prozesua. Hau da, bere herritik Madrilera dagoen tarte¹¹³ murrizta denez, ondoko herri batera joatea bezala izan zen beretzat Madrilera joatea. Kontutan hartu behar dugu, gainera, esperientzia okerra izan zela eta guztira astebete egin zuela bertan. Herrira bueltan, lekualdatzeek jarraitu zuten: lehenengo Oviedora, bere amaren beste ahizpa baten etxera, eta ondoren Bartzelonara. Etengabeko aldaketa honetan, sustraiak momentu oro bere herrian mantendu zituen.

Ordea, 1965 inguruan bere izeba den Eloinaren alaba bat gaixo jarri zen: kamioi batek harrapatu zuen. Eloinak gero eta haur gehiago zituen, eta ezinezkoa zitzaion hainbeste gauza batera egitea. Hala amaitu zuen Marik Zumarragan, bere lehengusina zaintzen.

Beraz, argi duguna zera da: etxean zituzten baldintza materialek bultzatu arazi zutela zerbitzu domestikoan aritzera, eta ia nahigabe bezala amaitu zuela Bartzelonan (azken hau gainera, herriko ezagun batek zerbitzaria behar zuela-eta izan zen). Ahoz ahokoak eta herriko eta familiako loturek eramaten du Estatu osoko txoko ezberdinetara. Hasierako asmoak soldata minimo bat ateratzea

¹¹³Kilometroetan nahiz psikologikoki; beraietako askok aipatzen duten moduan hona etortzea “munduaren amaierara etortzea” bezala zen, non zegoen ere ez zekitelako.

baldin bazen ere, aitortzen du inoiz ez zuela ezer atera eta asmo guztiak bertan behera gelditzen zirela. Zumarragan, bistakoa da, asmoak familiako kideei laguntza eskaintzea dela.

Behin Zumarragan egonda, leku batetik bestera ibiliko da oraindik. Orio, Zumarraga, Ormaiztegi eta Zumarraga, azkenik. Etengabeko mugimendu eta ez-errotze honek eragina izango du ingurunearekin harremantzeko moduetan eta baita bizirauteko estrategiak garatzerako orduan, ondoren ikusiko dugunez.

- c) Elenaren migrazioa hainbat faktore ezberdinek gurutzatua da. Ukaezinak badira ere bere familiak zituen behar material eta monetarioak, esan dezakegu beste hainbat zergatik ere pisua eduki zutela bere lekualdaketa burutzeko garaian. Izan ere, txikitatik landako lanetan ibili baldin bazen ere, berak hori ez zuen gustuko, gaixo jarriko balitz bezala sentitzen zen hainbat lanekin.

Lehendik lehengusina ikusi zuen herritik alde egiten eta nolabait, ikusi zuen beste bide bat hartzea, landako lana ez zena, posible zela. Bertatik alde egin zuen urte horretan, bere herrian oporretan zegoen andre batek bi zerbitzari behar zituela, gurasoei proposamena egin eta alde egin zuen, betiere bere asmoa dirua lortu eta gurasoei bidaltzea zelarik.

- d) Galiziatik lekualdatutako hiruen kasuan, esan dezakegu, migrazioa burutzerako garaian ez zirela pobrezia, lan edo jan falta bezalako faktoreak hain garrantzitsuak izan, edo hain erabakigarriak gutxienez:

Josek ere bere haurtzaroa eskolaren eta landa eta basoko lanen artean gogoratzen du. 14 urterekin irten zen bertatik eta arotz tailer batetan hasi zen ofizioa ikasten. Herrian zegoelarik, lehengusu bat hona etortzen ikusi zuen, eta animatzeko esan zion, hemen lan asko zegoela. Bere narrazioaren arabera, nagusi eginda, anai guztiak etxe berean sartzen ez zirela ikusirik, nolabait biziraun behar eta hona etortzea erabaki zuen. Hala iritsi zen Pasaiara. Josek ez zuen inola ere familiarekiko planteatu bere migrazioa, hau da, migrazio indibidual bat izango zen, zeinetan, momentua aprobeztatzea beharrezkotzat jotzen zuen, ez aurrezteka bere ezaugarri pertsonal bilakatu zelarik.

Juanek ere eskolan eta gurasoei landa lanetan laguntzen pasa zuen haurtzaroa. Hala ere gizartean eta bere ingurune hurbilean (lagunak batez ere) zeuden diskurtsoek eragin itzela eduki zuten bere migrazioa bultzatzerako garaian. Herria lagunez husten ikusi zuen, eta hortaz, alde egitea beharrezko iruditzen zitzaion bere azken helburua “gehien irabazten zen lekura, Alemaniara, iristea”¹¹⁴ baitzen. Hala ere, azkenean Donostian egin zuen bere lehen eta azken geldialdia. Bere kasuan zergati horiek pisu handia eduki zuten. Bazekien lursail handiak eta lan asko zituela etxean, eta hain zuzen ere, horretaz ihesi egiteagatik ere erabaki zuen migratzea. Beregan pisu handia eduki zuten migrazioaren bultzatzaile moduan etorkizun hobea lortzearen espektatiba eta are, anbizioak ere.

Manuelen kasua berezia da oso. Bera ere landa ingurune batetik badator ere, besteak ez bezala, batxilergoko ikasketak egin ahal izan zituen Santiago de Compostelan. Hala eta guztiz ere, hori bere bidea ez zela argi ikusi zuen. Familiak lursail handiak bazituen ere, hori gustuko ez, eta dendari hasi zen ondoko herri batean. Hasieratik sentitzen zuen lurra zen bere patu horretatik ihes egin zuela, baina, bertan gelditzea ezinezkoa izan zen puntu batetik aurrera beretzat. Izan ere, ama umetokiko minbiziaz hiltzea erabakigarria izan zen lekualdatzea burutzeko. Bertan “diru faltarik ez, arropa faltarik ez eta jan faltarik ez” zuen arren, zerbait esentzialagoa falta zitzaion. Ahizparen bikoteak jadanik Donostian zegoenez, bertaratzea erabaki zuen. Bere asmoak horiek ziren beraz, falta zuen horri iskin egitea, eta beste nonbaiten zerotik hastea.

Hau guztia ikusirik ezin uka genezake gehienetan zergati erabakigarria da behar materialak erantzutearen beharrarena (dela lan falta, dela diru falta) baina, inola ere ezin dugu laburtu honetara lekualdaketa zergatia. Migrazio prozesua eta proiektua hasteko hainbat faktorek hori egiten duten pertsonengan duten eragina ukazina da.

Esan dezakegu, migrazioa burutzeko zergati eta asmoen kasuan, patroi konkreturik ez dugula. Eskuartean ditugun adibideei erreparatuz gero, ikus dezakegu nola

¹¹⁴ Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

lekualdatutako guztiek duten ekonomiko eta kulturaletik, denek baldintza materialak bermatu edo asetzeko intentzioa zutelako eta denengan eragin zuelako garaiko migrazioaren aldeko diskurtsoek eta hiriko oparotasunaren ideiek. Baina, kasu bakoitzean zergati batak bestea baino garrantzi handiagoa eduki zuen.

Hiru emakumeen kasuan ekonomikoak diren zergati batzuei erantzuten zietela ikus dezakegu, batez ere Eloina eta Mariren kasuan. Hala ere, Elenaren kasuan aldagai hori kontutan hartu beharrekoa baldin bada ere, bere kasuan garrantzia landan lan eta bizi beharraren patuaz ihes egitea izan zen bere zergati pisutsuena.

Bestalde, Juan, José eta Manuelen adibideak ikusita, ikus dezakegu zergati kulturelek edota garaian zabaltzen hasi ziren diskurtsoek eragin handia izan zutela beren lekualdatzean. Juan eta Joséren zergatietan bazeuden, ordea, zergati ekonomikoak, beren helburuak lekualdatu, lana lortu eta bizimodua aurrera ateratzea ziren heinean, batez ere Joséren kasuan, egoera txiroago batetik partitzen zuenak. Baina, ezbairik gabe, garaian beren ingurunean nagusitu ziren diskurtsoek pisu handia eduki zuten azken hiru hauentzat. Hots, pil-pilean zegoen “en el País Vasco hay trabajo y aquí no” ideia eta beraz, bertan jarritako espektatibek pisu itzela eduki zuten migrazioak bultzatzerako garaian. Lana, gainera, estruktura sozial eta ekonomikoan gora egiteko baliabide bezala ikusten dute azken hauek. Lehenago aipatu ditugun desarrollismoaren eta kontsumoaren ideiak barneraturik, lan egiteak fruituak ekarriko zituelako diskurtsoa dute hirurek, esan bezala, bakoitzak anbizio edo lehentasun ezberdinak eduki zituen arren.

Uste dugu, azkenik, arreta jarri behar dugula Manuelen lekualdatzearen zergatietan. Izan ere, amaren heriotza izan zen bere arrazoi nagusia, jaioterrian behar zuen guztia eta gustura sentitzen baitzen, bere hitzetan. Hortaz, bere burua aurrera ateratzeaz gain, berriro hasteko leku baten beharrarekin egin zuen alde berak herritik.

Genero ikuspuntu batetik begiratuta, uste dugu, generoak berak ez digula zergatiak azaltzeko aukerarik ematen, nahiz eta baliteke hau gure lagina txikia izateagatik gertatzea. Euren artean kasu nahiko ezberdinak direla kontutan harturik, gainera. Hala ere, lekualdatzearen azken erabakia hartzeko moduak eta helmugara iristean beren ibilbidea planteatzeko moduetan hainbat berezitasun zeudela uste dugu.

Elena, Eloina eta Mariren lekualdatzearen erabakia hartzeko modua, kasu guzti hauetan, ez zen izan indibiduala edo bakarrik hartutakoa. Eloinaren kasua garbiena baldin bada

ere, bai Mariren eta Elenaren azken helburuak familiari laguntza monetarioa eskaintzea zen. Baina, esan bezala, Elena lekualdatzera eraman zuten zergatiak ez ziren soilik ekonomikoak izan. Bestalde, azken honek gurasoen baimena behar izan zuen bere nahiak betetzeko, eta zentzu horretan, jaioterrik irteteko nahi horiei ondoren gehitutako betebeharra izan zela familiari dirua bidaltzearena. Hau da, gurasoei emandako zergatia dirua bidaltzearena izan zela.

Gainontzeko hiru kasuetan, indibidualki egin eta planteatzen zuten lekualdatzea. Hau da, lehenago norbaitek ireki zuen hari bati jarraitu bazioten ere edota lekualdaketa bera beste norbaitekin burutu bazuten ere, nolabait, familiarekiko berebiziko erantzukizunik gabe hasi zuten ibilbidea zen haiena. Beren burua aurrera ateratzea izan zen beren lehenengo helburua, bakoitzak anbizio ezberdinak zituen arren.

Honekin esan nahi duguna da, batetik, emakumeek zailtasun edo traba gehiago eduki zituztela migrazioa bera burutzeko, bakarrik zen kasuan bereziki, garaian emakume batentzat baimenduta zegoenaren mugak zeharkatzea baitzekarren horrek. Horretaz gain, nolabaiteko ardura sentitzen zuten atzean utzi zutenarekiko, gizonak ez bezala, baina, horrek ez du esan nahi, horrekin guztiarekin batera, beren bizi proiektuak iritsi berri ziren leku berrian garatu ez zituztenik, migrazioak berak horretarako aukerak eskaintzen baitzizkien migratutako orori.

6.2.2 Erabakiak hartzeko moduak eta eraginak

Hauek ere kontutan hartu behar ditugu migrazioa ikuspegi zabalean ulertu nahi badugu. Uste dugu lekualdatu den norbanakoarentzat eraldaketarako zergati garrantzitsu bat dela, baina, norbanako horiek familiak, lagunartea eta harreman-sare zabala duten moduan, euren lekualdatzearen eraginak ere zabalak direla. Esan dugu, adibidez, oso zabalduak zeudela bertan lana zegoelako ideia eta diskurtsoa. Horrek, nolabait, herrian eta bertan bizi zirenen eraginak sortzen ditu, migrazioa ia derrigorrezko bihurtzeraino. Bertan lana ez dagoelako ideia nagusitzea horren adibide argi bezala ikusten dugu.

Diskurtso guzti hauek zabaltzen joan baziren ere, beti ez ziren gatazka iturri izan migrazioak, onartutako patu gisara sentitzen baitzuten lekualdatutako batzuen gurasoek. Horrek ez du esan nahi denek hala hartu zutenik, familiako kideak urruntzen ziren

momentutik, familiako kideren batek beti bizi zuen tristezia edo haserre iturri gisara beren biloben, iloben edota seme-alaben migrazioa.

Juanen kasuan, adibidez, hark, bere gurasoen bizkarrera erosi behar izan zituen bai trenerako eta baita tren geltokira eramango zion kotxeko sarrera. Bere aitaren iritziz, beren lursailean espazio eta lan ugari zuten beretzat, eta ez zen egokiena bera Donostiara joatearena, gaztea zelako eta bere helburuak (dirua egitea) beteko zituen edo ez zorte kontua izango zelako.

Elenaren kasua ere azpimarragarria da. Izan ere, txikitatik landa munduko lanetara (lurra landu, haziak erein, arropak errekan garbitu, sua egin, eta abar) egon zen lotua, baina, horrek sukarra eragiten zion, oso gogorra baitziren lan horiek haren ustetan. Familian denek ezagutzen zuten Elenaren berezitasun hori eta hark, behin baina gehiagotan proposatu zien gurasoei lehengusinarenera etorriko zela, lan egitera. Gurasoek, ordea, ez zioten uzten hori egiten, hori egiten zutenak, bere hitzetan “decían que eso lo hacían las sueltas por ahí...”¹¹⁵. Hortaz, Jesusen adibidea ezagutu badugu ere, ezezko honek eta iritzi hauek genero-eginbarrekin zerikusi zuzena dute. Aipatzekoa, ondoren zerbitzatzen amaituko zuen etxeko jabe eta etorkizuneko bere nagusi izandakoak gurasoekin hitz egin zuen arte, Elenari ez ziotela migratzen utzi. Hark dioenez, bera agertu izan ez balitz “oraindik herrian” legoke.

Behin lekualdatzea burututa, herrietan zituzten lagun eta familiako kideekin eskutitzak elkarbanatu zituzten guztiek. Hala ere, hasierak ez ziren batere errazak izan batzuentzat. Ondoren sakonduko dugu nola egin zieten aurre beraietako bakoitzak. Hala eta guztiz ere, berriro ere Elenaren adibidera joko dugu. Izan ere, herritik alde egiteko hainbeste gogo bazituen ere, hainbat urtetan zehar gauero negar egiten zuela oroitzen du. Bere esanetan “ondoren senarra izango zena ezagutu arte” egon zen gauero lo egiten. Honek zerikusia du bere lan motarekin, Elenak argiki gogoratzen baitu etxeko itxialdia, bakardadea eta kalea ez zapaltzearena.

Y luego, quería venirme, y cuando me vine aquí... vine metida en el tren... y cuando llegué llorando que me quería ir... claro, ¡eran quince años!, era una niña... y me quería ir... [Negarti] “que yo quería ir con mi madre, que quería ir con mi madre...”

¹¹⁵ Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

Yo vine el 15 de agosto, más o menos... y... al año siguiente en abril, que hago yo los años en abril... entonces había aquello de [Imitatuz] “aquiiii radio andoorra...” y se dedicaban discos. Y mis padres me pusieron: “para la niña más guapa del mundo le vamos a dedicar la canción Mi Niña Bonita...” que es de... La Pantoja... “hay mi niña bonita con su carita de rosa...” o esa de “y los almendros lloraban al son de los limoneros” una canción así. Y me la dedicaron. Y yo... ¡venga a llorar!, y ¡venga a llorar!... estaba yo escuchando Radio Andorra y venga a llorar...porque parecía que estaba con ellos, ¿sabes? [Geldiunea]. Es que era un disgusto tremendo, te querías venir pero luego estabas aquí solita y un digusto... que lo llevaba fatal, fatal, fatal. Un año, un año y pico...te lo pasas... aunque estés muy bien, pero te acuerdas de los tuyos... porque eres muy niña todavía, muy niña, no tienes tu... no sé, eso de quitarte de las faldas de tu madre... pues no sé... eso es así. Pero, eso... [Gelditunea] escribiendo cartas siempre^{116 117}.

Honekin guziarekin azpimarratu nahiko genukeena zera da: migrazioa bertara iristean amaitzen ez dela. Izan ere, ingurune berrira egokitzea ere prozesuaren parte garrantzitsutzat dugu. Ondorengo puntuan hori lortzeko zein estrategia burutu zituzten aztertuko dugu. Elenaren adibide honekin, ordea, argi ikus dezakegu bakardade sentimendu indartsu bati egin behar izan ziotela aurre gehientsuenek; bere kasuan bat-batean haurtzaroaren inozentzia (amaren gonatik irtetea, bere hitzetan) galtzea bezala izan zela uste dugu eta horrek, berak bere ibilbidea egiten hasteko egoeran utzi ziola.

6.3 BIZIRAUPEN ESTRATEGIAK ETA IBILBIDEAK

Aipatu dugun moduan, perfil homogoneorik ez dugu migrazioa burutu zuten horietaz hitz egiteko. Perfilak ezberdinak diren heinean beren zergati, asmo eta ibilbideak ez dira homogoneoak izango. Abiapuntua, hala ere, prekarizazio egoera bat zen: guztiz ezezaguna zen leku batetan zerotik hasi beharra, hau zentzu zabalenean ulertuta.

6.3.1 Enplegua eta etxea

¹¹⁶ Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

¹¹⁷ Ikerketa honetan zehar lehenengo mailako ahozko iturriak ditugu erraminta nagusitzat. Ikerketa bera euskaraz planteatzen dugun arren, elkarrizketetako ahozko iturriak jatorrizko hizkuntzan (hots, gazteleran) mantentzea erabaki dugu, testigantza zuzen, zehatz eta aberasgarriena lehenengo mailakoa dela irizten baitugu. Hortaz, ahozko iturriekin lan egiten ari garenez, berez datozen laburdura zein adierazpenak mantentzearen alde ere egin dugu, iturriaren beraren fideltasun eta ñabardurak gorde nahian baina, betiere, irakurmen eta ulermena baimentzen duten heinenean, noski.

Narrazio guztietan agertzen zaizkigun lehenengo bi elementuak dira honakoak. Horiek lortzea lehenetsun gisara kokatzen baitzuten. Genero ikuspuntu batetatik zeharo ezberdinduta ageri zaizkigu behar hauek asetzeko modua. Emakume bat bera ere ez zen lekualdatu helmuga (etxe zein enpleguei dagokienez, noski) zehatzik gabe, hiru gizonezkoak bai ordea. Kasuak kasu, Mari eta Elenaren kasuan, zerbitzu domestikoan aritzeko lekualdatu zirenez, enplegua eta etxera batera zihoazen elementuak ziren. Lan egiten zuten eremu bereberan bizi baitziren. Beraz, kasu guzti hauetan hasierako ziurgabetasun hori murriztu ahal izan zitzairen.

Izan ere, gizonezkoen kasuan, hiru elkarrizketatuak enplegu eta etxerik lotu gabe bertaratu ziren. Hala ere, iritsi eta egindako lehenengo gauza beren patrona izango zenaren bila hastea ziren. Hau da, familia baten etxera joan ohi ziren bizitzera, bertako andreak beren otordu, garbiketa eta abarraz arduratzen zen diru kantitate bat ordaintzearen trukean. Etxeak guztiz masifikatzea ohikoa zen halako kasuetan, familia bat baina gehiago eta pupilo bezala mutil gazte bat baina gehiago elkartu baitzitekeen bertan. Ikergaiaren Egoeran aipatu dugu ospedajearen eta pupilajearen fenomenoak industrializazioarekin batera etorri zela, eta bizirauteko estrategia bikoitza zela: iristen zenak lo lekua eta bizirauteko beharrezko zituen hainbat lan (zerbitzu moduan) jasotzen zituen, diru baten trukean, eta hala, zerbitzua ematen zuen familiak (emaztea izan ohi zena) beste diru sarrera bat zuen honi esker.

Etxe hauetan bizitzearena, ordea, behar materialak asetzetik haratago zihoan zerbait zen. Izan ere, pupilo gisan egondako guztiek gogoratzen dute “familia baten gisara” bizi zirela, bigarren ama eta aita izatea bezalakoa zela, aisia ere konpartitzen zutela, oso oroitzapen politak dituztela eta abar. Hortaz, biziraupenerako eta hasierako egoera prekario hura jasateko elementu zentral gisan kokatu behar ditugu etxe hauek. Izan ere, eguneko nekeak ahazteko gune bilakatu erreferentzial bilakatu ziren haientzat, diotenez.

Eloina, adierazi moduan, ez zen zerbitzu domestikoan lan egitera etorri. Familia mailan, pobreziatik alde egiteko estrategia gisara planteatu zuten familiako kideen lekualdatzea. Senarrak Zumarragako fabriketan enplegua lortu eta familiako guztiak sartuko ziren etxea aurkitu ostean iritsi zen bertara. Hiru haur txiki zekartzan eta laugarren haurra jaio zen iritsi eta hilabetera. Asko baziren ere (3 seme-alaba eta bikotea), senarraren soldatak ez zuen konpartitua izango zen etxe baterako baina gehiago ematen. Hortaz, Zumarragako

hirigunetik urrun kokatzen zen baserri batetan finkatu ziren, beste zazpi familiarekin batera.

Lanari dagokionez, Erregimenak beren mekanismo guztien bitartez bultzatzen zuen sexuaren arabera banaketa batekin erantzun zieten geroz eta handiagoa zen familiaren beharrei: Eloina haurren zainketaz eta etxeko lanez arduratu zen, eta bere senarrak dirua ekarri ohi zuen.

Esan dugunez, hasierako urte guztietan zehar Manuel, Juan eta Jose patrona batekin bizi izan ziren, lan bat baina gehiago konbinatzen zituzten bitartean. Mari eta Elena, ordea, hainbat zerbitzu domestikotan ibili ziren, bertan eguna igaroz. Baina, garaiko diskurtso hegemonikoak zera zioen: ezkontzean emakumeak etxera joan behar zirela, ama eta ezkontide paperak betetzera. Beraz, ezbairik gabe, elkarrizketatu guztien kasuan¹¹⁸ aldaketa gertatzen da ezkondu bezain laster, lehenago zituzten enpleguak uzten dituztelako. Behar monetarioak, teorian, gizonezkoek ase behar izan zituzten honen arabera, enplegu ezberdinak konbinatuz, ordu estrak eginez eta amaigabeko lan egunak edukiz.

Zentzu honetan, emakumeen zeregina etxeko lan eta zaintza lanak izan ziren. Bata bestearen atzetik jaiotzen ziren haurren zaintzaz arduratu ziren osoki. Mari eta Elenaren kasuan, haurrak eskolan hasi bezain pronto berriro itzultzen ziren lan merkatura, bien kasuan bulego, etxe zein jatetxeen garbiketatan ibiltzeko. Eloinaren kasua, honetan ere, ezberdina da. Berak zazpi seme-alaba eduki baitzituen guztira, eta horretaz gain, lehengusu, iloba eta abarren etengabeko joan-etorriak eduki zituen urte luzeetan zehar. Beraz, bere kasuan, nagusitzen joan ziren lehenengo alabak senarraren fabrika berdinean egin zuten, guztien soldaten batuketaz behar monetarioak asetzeko.

Adibide hauekin ere Ikergaiaren Egoeran aipatutako fenomenoak baieztatzen da. Izan ere, bertan aipatu dugun legez, Frankismoak sexuaren arabera espazio eta funtzioak zurrunki banatzen bazituen ere (bata espazio publiko eta produktiboan eta bestea espazio pribatu eta erreproduktiboan, bata bestearekin harremanik edukiko ez balu bezala), diskurtsoetik praktika errealatera tartea handia zen. Hain zuzen ere, aztertzen ari

¹¹⁸ Azpimarratu nahiko genuke, ikerketa guztian zehar sei elkarrizketatuen kasuez ari garela, eta ez genukeela nahi honetatik orokortasunak ateratzea. Pauta orokor batzuk atera baditzazkegu ere, esan, esperientziak anitzak direla, eta beraz, ez zutela kasu guztietan hala gertatu. Bestalde, uste dugu lagin hau baloratzea beharrezkoa dela, eta kasu zehatz honetan, adiergarria dela ezkondu ostean emakume guztiak esfera pribatura erretiratu izana, garaiko genero mandatuen beste erakusle bat dela uste baitugu.

garen garai honetan ere ez baitzen *breadwinner* eredia zuen familia eta gizarte antolaketa praktikara eramaten, gutxienez langile familiatan. Hortaz, halako eredia zuen familia nuklearra ideala baldin bazen ere, horrelako ezaugarriak zituzten familietan industrializazio aurreko estrategia ereduak zerabiltzaten; hots, soldaten batuketena.

Urteek aurrera egin ahala, ezkondu ostean, bikotearen lehen helburua etxe propioa lortzea zen. Oro har, zaila zen halako erosketa batetan sartu eta gastuei aurre egin ahal izatearena. Hala ere, beren azken helburua hori zenez, enplegu bat baina gehiago edukitzea ohiko arau bihurtu ohi zen. Elkarrizketatutako bik bakarrik lortu zuten berehalakoan bikotearentzako (eta segituan etorriko ziren haurrentzako) etxe propioa. Beste kasuetan familiako hainbat kideekin batera bizi behar izan ziren urteetan zehar (lehenago bertara iritsi zen izebarekin, edota senarraren amarekin, eta abar).

Bestalde, badugu bigarren migrazio batera jo behar izan zuen Joseren adibidea. Emaztearekin ezkondu eta bere gurasoekin denbora batez bizi ondoren, beren etxearen erosketan sartzeko “beharra” ikusi zuten eta horretarako Suitzara joan behar izan zen bera 3 urtez. Joserentzako bigarren migrazioa bizitzea guztiz traumatikoa izan zen. Izan ere, lehenengoa lasaitasun osoz, aurreztu gabe, lagunekin egoten eta abar gogoratzen duen moduan oso gogorra suertatu zitzaion hizkuntza berria ez ulertzea (Pasaian galiziarrekin elkartu baitzen), emaztearengandik ezkondu eta berehala urrundu behar izatea, eta baita bertan urte beteko haurra uztearena.

En Suiza, ¡bueno!... Llegar y con el dinero justo, sin conocer nada, llorando me tiraba en la cama... y me decía el compañero “¡Venga José, que tenemos que tirar para adelante!”. [Isiltasuna] Con una niña, recién casado... [Isiltasuna. Emozionaturik] No conocías a nadie... no entendías a nadie... pero luego, ya te acostumbras, como a todo... empiezas a conocer gente en el trabajo, empiezas a entender palabras o si no con señas... en el trabajo no tenía problemas. Yo desde joven ya había trabajado... pero la gente, hasta entender, coger confianza... era era... es... fastidiado... era... es fastidiado. Pero bueno... [Isiltasuna]... a todo se hace uno...¹¹⁹.

Joséren kasua berezia da. Izan ere, bere lehenengo migrazioa halabeharrez egin zuela sentitzen zuen. Hau da, bazekien bere jatorrizko herrian ez zela biziko, eta migratzearena beretzat jolasa izan zen. Esperientzia berriak bizitzea bezala definitzen du

¹¹⁹Joseri 2014-06-27 egunean egindako elkarrizketa.

bere migrazio hori. Esan dugu lehenago bere ezaugarri pertsonala zela ez aurreztearena, baina, ezkontzearekin batera ardurak (etxea, haurra) etorri ziren. Egoerak bultzaturik, bigarren migrazio batetara jo behar izan zuen, eta hau, benetan zaila izan zen beretzat. Azken finean, honen bitartez ikus dezakegu nola lehenengo migrazioa burutzearekin soilik ez zela aski biziraupenerako, eta beren kasuan, nahi ez zuen bigarren migrazio bati ekin behar izan ziola. Gainera, Josérentzat bigarren migrazio hau jada ez zen jolasa, bere familiako kideek zain baitzeukaten Pasaian, eta behar zehatz batzuk asetu ahal izateko joan zen Suitzara. Esan dezakegu, hortaz, etengabeko moldaketa eduki behar izan zutela bizirauteko estrategiek: momentu bakoitzeko behar zehatzei erantzun behar baitzieten. Eloinaren kasuan bezalaxe, familiako kideak gero eta gehiago ziren heinean, pupiloak hartu edota seme-alaba zaharrenek enplegua lortu behar izan zutenean bezalaxe.

6.3.2 Sozializazioa, harremanak eta elkartasun sareak

Lehenago ere aipatu dugun moduan, bizirauteko estrategiak behar materialak asetzetik haratago doazela uste dugu. Kontutan hartu behar dugu lekualdaketa zela-eta, beren sorterriarekin alderatuta guztiz ezberdina zen leku batetara iritsi zirela migratzaileak. Eta beraz, leku berrian beren lekua egitera bidean sozializazioa ardatz nagusi gisara planteatzen dugu. Esan dugu prekarizazioa dela iritsi eta berehala migranteek duten egoera, ez soilik behar monetario eta materialak asetzeko lan gogor eta luzeak burutu behar dituztelako, beren segurtasun eta egonkortasunerako ziren lagun sare eta sare familiarrik gabe egiten diotelako oro har aurre egoera berriari.

Lekualdaketa bakoitzetik eratorritako ibilbidearen arabera, ezberdina izan zen hau asetzeko modua eta haietako bakoitzarentzat izan zuen zentralitate eta garrantzia. Aipatu moduan, gizonezkoen kasuan, familia batera pupilo gisara sartzeak berebiziko garrantzia izan zuen egoerari aurre egiteko, sorterrian beren familiak betetzen zuen papera ordezkatzera iristen direlako, familia horretako kideak bigarren aita eta ama gisara izendatzeraino.

Honetaz gain, beren sozializazioa askoz *naturalagoa* izango da, batetik, lan egiten duten fabrika, ostatu edo enpresatan beren lankideekin lanetik haratago doazen esperientzia eta egoerak partekatu baitzituzten. Espazio horiek egunerokotasunean partekatuko zituzten, eta beraz, etengabekoa zen beraiekin zuten harremana.

Gainera, astean behin duten jai eguna ere zeharo probestuko dute, lagunekin edo bigarren familiarekin edozein plan egiteko. Aisiak beretzako garrantzia edukiko du, “horrelakorik ez baitzegoen herrian” eta beraz, eurentzat “mundu berri baten aurrean egotea” bezala izango da iritsi berriak diren gunen horretan aurkitu zutena. Asmoen arabera, ordea, modu ezberdinean biziko dute aisia. Juanentzako aurrezteak eta dirua egiteak garrantzia zuen heinean, modu kontrolatu edo aurrezle batetan biziko du bere aisia. Ordea, Josérentzat, ondo pasatzea lehentasuna zen heinean (iritsi berritan zein ondoren), aisian xahutuko zuen lortutako gehiena.

Sozializatzeko eta harremantzeko beste esanahi bat du zerbitzu domestikoan aritutako Elenarentzat. Beretzat oso gogorra izan zen zerbitzu domestikoaren esperientzia, ordu eta lan asko eskatzen baitzituen batetik, baina, etxean sartuta egon behar zirelako, bereziki. Itxitasun, bakardade eta itxialdi horretatik ateratzeko astean sei ordu zituen, eta bere arabera sekulako garrantzia izan zuen horrek. Zerbitzu domestikoa eskaini zuen lehenengo bi etxeetan batez ere, etxeokoen (ugazaba nahiz lankideekin) gustura ez zegoenez, garrantzia berezia izan zuten ostegun eta igande arratsaldeetan lanik ez zuen momentu horiek aprobetxatzea. Nahiz eta xamurtasunez oroitzen dituen etxadi berean bizi ziren gainontzeko zerbitzu domestikoetako langileekin edukitako esperientziak. Uste dugu, beraz, egunerokotasuna eramateko aliantza eta harreman horiek ezinbestekoak zirela beretzat:

Luego en Sancho el Sabio, la de abajo estaba con unos franceses, que era gallega la chica. Y hacían muchos postres de flanes, de arroz con leche, muy rico hacían. Nosotros también hacíamos pero ellos que rico hacían, pero más a me nudo. “¡Elena, hecha una cuerda!” Me ponía en el cestito con una cuerda pues unas natillas o un arroz con leche [Barreak] ¡y yo tiraba para arriba! [Barreak] y lo cogía y me lo comía [Emozioz]... ella hacía y yo comía [Barre gehiago]. [Emozioz] ¡Qué bien nos lo pasábamos! Madre del amor hermoso... (...) Y por la ventana nos tirábamos horas hablando, ese era el consuelo que teníamos... ¡claro!¹²⁰.

Horretaz gain, ostegun eta igandero Hernanin, Erreterian edo beste edonon ospatzen ziren dantzaldiek berebiziko garrantzia hartzen dute bere narrazioan. Besteak beste,

¹²⁰Elenari 2014-05-28an egindako elkarrizketa.

bertan hainbat eta hainbat migrantereekin elkartzen zirelako, kalea zapaltzen zutelako, lagunak egiten zituelako eta elkarren artean harremantzen zirelako.

Dantzaldiak, behar afektiboak asetzeko elementu klabea izan ziren migrante gehienentzat, baina, Elenaren kasuan garrantzia berezia hartzen dute. Egunerokotasunaren gogorra albo batera utzi eta dibertitzeko momentuak ziren horiek, eta zergatik ez, beren herrira itzultzeko beste modu bat ere. Izan ere, beren haurtzaro eta gaztaroak herrian gogoratzean, dantzaldiez ere oroitzen dira guztiak. Bertara soltero edo soltera gisara gaztetan iritsitako migranteen artean, oso ohikoa da beren herrikideren batekin bikotea osatu eta ezkontzen amaitzearena (guk elkarrizketatu ditugun guztiek izan dute ezkontide gisara espainiar Estatutik iritsitako norbait). Honek fenomenoak ulertzeko klabe garrantzitsuak ematen dizkigu, bertakoak kontsideratzen direnenekin (autoktonoak) harremantzeko gaitasun edo aukera eskasa ulertzeko. Ondoren hitz egingo dugu honetaz, ordea.

Baina, dantzaldiak, laguntasunak egiteaz gain, informazio eta laguntza sare gisara kontenplazten ditugu ikerketa honetan, Elenaren narrazioak dioenez:

Pues había gente de todas clases. Allí había gente de todo el mundo (...): gallegos, murcianos, cacereños, navarricos, de todos los *laos*. De todos sitios. Como había mucha fábrica e industria, y nosotras de chicas.

Estuve un año en esa casa, nos engañó como a los chinos a las dos chicas que nos trajo de ahí... que estaban [el resto de] las chicas cobrando seiscientas pesetas. Y a nosotras nos daba trescientas a cada una... y por el precio de una tenía a dos. Y como íbamos a bailar a Hernani, que había baile en los Tilos (había baile en los Tilos los jueves y los domingos), pues íbamos a bailar, y éramos chachas casi todas... y te enterabas cómo estaban los precios. Entonces digo “pues en agosto me voy al pueblo... y... cuando vuelva ya no vengo a esta casa... me busco otra que cobre más¹²¹”.

Hortaz, esan dezakegu informazio elkartruke hori gauzatzen zela dantzaldi horietan. Honek beren baldintzak negoziatzeko ahal izateko indarra biltzeko baliatzen zituztela une hauek, eta horien bitartez beren baldintzak hobetzeko modu gisara ere.

¹²¹Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

Baldintzak eta irabaziak etengabeko negoziaketa bat ziren zerbitzu domestikoan aritu zirenentzat, izan ere, guztiz irregularizatua zegoen sektore hau eta ugazaba bakoitzak nahi zuen bezala baloratzen zuen bere langileen lana. Halako espazio konpartituak etxeetako bakardade eta informazio eza gainditzeko bide ziren argiki.

Ikusten ari garen moduan, sareak modu transbertsalean uler ditzakegu, behar anitz asetzeko gako ziren heinean. Ohikoak ziren migrazio-hariak sare bihurtu ohi ziren geltokia zen herrian, esan bezala informazioa elkarbanatu edo elkar laguntzeko, adibidez, lana lortzerako garaian ahoz ahokoak garrantzia handia zuelako.

Eloinaren kasuan, behar afektiboak asetzeko modua beste nolabaitekoa izan zen. Esan bezala, familia mailako migrazio mota gauzatu zuen berak. Bere lehenengo geldiunea, Zumarragako hirigunetik urrun kokatzen den baserri batetan pasa zituen lehenengo urteak. Baserria zazpi familia ezberdinek betetzen zuten, eta hasiera batetan beretzako etxearen beraren egoera eta superpopulazioa desesperazio eta herrira itzultzeko gogoen iturri izan baziren ere, bertan garatutako harreman eta sareek berebiziko garrantzia dute beretzat, bere kasuan ere, baserritik mugitzen ez zelako batez ere.

Ezinbestean komunitatean bizi ziren zazpi familiak bertan, zituzten “janari apurrak” elkarbanatzen eta sukalde gisa jarritako plakaren inguruan denak batera janzten. Biziraupenerako lehenengo unitatea odoleko familia baldin bazen ere, elkartasun eta laguntza sareak egunerokotasun ziren baserrian: batera joan ohi ziren ur bila, garbiketa egitera. Ohikoa zen Eloinak gainontzekoen haurrak zaintzea, berak dioen bezala, “bereak diren haurrak baina askoz gehiago hezi”¹²² baititu azkenerako. Baserria mendiaren puntan zegoenez, igo eta jaisteko bide malkarrak zeuden eta norbait gaixo zegoen bakoitzean denen artean jaitsi ohi zuren hirigunera. Beraz, argiki elkar zaintza hori ezinbestekoa izan zen biziraupenerako.

Kasu honetan, gainontzekoenean dantzaldiak betetzen zuen funtzioa baserrian bertan eta inguruko baserrietan bizi zirenek osatzen zuten bere sozializazio ingurunea. Zentzu honetan, esan dezakegu aise harremandu ahal izan zela autoktono deritzenekin.

¡Ai! Y los caseros. Ui, ¡qué gente! Buenísima... una gente... señor Marcos, la señora no me acuerdo... que araba y todo... tenía dos hijas... no me acuerdo como se llamaba la mujer. Te mandaban a ir a por la leña que querías, te

¹²²Eloinari 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

mandaban si había castañas, y todo eso... a coger lo que quisiéramos... Y luego había otra mujer, la señora Fernanda, que era así de pequeña... [Barrea] y yo sabía lo que había que decir a los perros por ella... porque me lo enseñó ella. Yo pasaba por un sitio para ir a buscar agua, y “Hola, hola...”, no sabía casi nada de castellano. Y, un día, estaba un perro grande en la puerta nuestra. Y digo: “¡Chucho, chucho!”, coso se decía en mi pueblo... “No, no” me decía la señora Fernanda... “No, txakurra kanpora, txakurra kanpora...” [Barrez] y así a prendí yo con la Señora Fernanda lo de ‘txakurra kanpora’ (...) Y no se olvida a una de la Señora Fernanda así... [Isiltasuna] no, no, no, no... [Isiltasuna]. [Barrez] Txakurra kanpora...¹²³.

Narrazioan zehar behin baina gehiagotan aipatzen duen kontakizuna izaki, esan dezakegu momentu hau Eloinarentzako klabea izan zela. Behin eta berriro aipatzen du egoerak latzak izan baldin baziren ere, momentuan elkartasun hori gako izan zela aurrera atera ahal izateko. Horretaz gain, esan dezakegu “autoktonoekin” zuzenean hala harremantzea ere garrantzitsua izan zela beretzat, nolabait, eduki zitzakeen ezjakintzasun edo aurreiritziak erori balitzaizkio moduan, bertakoak ere eskuzabalak zirela ikustean, bere hitzetan aipatzen baitu baserrira iritsi zenean “denak ijituak” zirela behin eta berriro errepikatu zuela, baina, gero konturatu zela denak “onak” zirela.

Eloinaren esperientzian, beraz, sareak ezinbestekoak izan ziren. Baserritik beste etxe batera lekualdatu zirenean ere, baserriko zazpi familiek utzitako hutsunea etxadiko gainontzeko bizilagunek bete zuten. Etxe eraikin industrial batetan bizitzeak berez dakarren indibidualismo familiarra gainditu zuten behin eta berriro halakoetan.

Horretaz gain, odolezko familia mailako sareak ere beti sendo mantendu zituzten. Kasu guztietan eduki dute familiako kideren bat beren etxeetan bizitzen denbora tarte labur edo luzeetan, intentsitate ezberdinarekin. Eloina eta Mari izeba-ilobak dira hori modu sakonago baten bizi izan dutenak: Mariren etorrera Eloinaren alaba baten gaixotasunak eragin zuen, hainbeste haur zaintzeko denborarik ez baitzuen, eta ordainetan, Eloina Mariren erditze guztien protagonista izan zen. Ondorioz, ama bat bezalakoa da harentzat, baina alaba bat bezalakoa Eloinarentzat. Azken honi senarra hiltzean, beren alaba guztiei esker aurrera atera ahal izan zela (animikoki nahiz beste gai batzuetan, adibidez, bere etxe definitiboaren erosketa egiteko).

¹²³Eloinari 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

Sareek, esan bezala, behar afektibo eta materialak asetzeko gako izan ziren, batez ere emakumeentzat. Esan genezake, etxean (eta bere inguruan) garatu izan ziren bizitzetan, inguruko komunitate horri esker erantzuten dietela beren beharrei. Eloinarentzako baserriko gainontzeko familiak, edota beste etxeetako bizilagunekin eratu zuen hori, Marik odolezko familiako beste kideekin zuen harremanen bitartez lortu zuen (Eloinarekin eta bere senar eta seme-alabekin) lortu zuen. Aldiz, Elenarentzako dantzaldietan egiten zituen harremanak ziren bere sostengu emozional nagusia. Sare hauekin segurtasun hori lortzeaz gainera, Eloina eta Mariren kasuan bezalaxe, behar materialak ere elkarren artean ase zituztela.

6.4 MIGRAZIO ESPERIENZIAK ETA IDENTITATEAK

Ikerketa honetan identitateak etengabeko mugimenduan eta berregokitzapenean daudela ulertzen dugu, eta pertsona bakoitzaren identitate indibidual eta kolektiboak esperientzien eta horiek bizi eta ulertzeko moduaren arabera moldatzen dituela. Identitate aldakorra, espazio, denbora, testuinguru eta bizipenen arabera eraldatzen dena, eduki dezake pertsona bakoitzak, eta horri erreparatu diogu guk ere. Identitate ezberdinak momentuan momentuko intentsitatearekin garatzen dira.

6.4.1 Klase identitatea eta genero diferentzia

Orokorra da klase identitate indibidual bat badutela elkarrizketatutako bakoitzak. Azpimarragarria da indibidualki bizi dutela identitate hau, eta ez kolektiboki, nahiz eta pluralean hitz egin. Hau da, ez dute esperientzia kolektibo zehatz batekin lotutako klase identitate bat. Izan ere, lanari lotutako beren esperientzia indibidualki bizi dutelako, emakume zein gizonak, haietako batek ere fabrika industrial batetan lan egiten ez dutelako.

Argi utzi dugu lehenago ere, elkarrizketatutakoen perfilak antzekoak badirudite ere (haietako bakoitzak landatik migratu duten heinean) ezin direla parekatu. Izan ere, lekualdatzea burutzeko zergati eta asmoen bitartez ikusi dugun moduan, ez zuten denek baldintza berdinetatik partitu ezta helburu berdinekin ere.

Argiki, Elena, Mari eta Eloinaren klase identifikazioak sendoagoak dira. Hasteko, beren lekualdatzearen zergatiak jatorrizko herrian bizirauteko zailtasunak eduki izana delako.

Gainera, lekualdatu zirenean eta ondorengo urte luzeetan zehar egoera zail askori aurre egin behar izan zieten. Baliteke eurek eduki duten ibilbidea izatea identitatea indibidualki bizi izanaren arrazoia. Eurentzat klaseko identitateak behin eta berriro pobre gisa identifikatzean datza. Egindako lana eta urteetan zehar edukitako prekariedade egoera, ziurgabetasuna, sufrimendu eta zailtasunak auto-baieztapen edo duintasunetik eratorritako harrotasun batetik hitz egiten dute oro har. Hau da, hiruren kasuan, batek ere ez du fabriketan lan egin izan, teoriarik klase identifikazioa garatuko litzatekeen gune *naturalean*. Horregatik diogu, egunerokotasunean bizi izan dituzten prekariedade eta urritasun egoerak, eta horri aurre egiteko aipatu ditugun bide eta estrategia horiek burutu behar izateak, ematen dietela identitate hori.

Viví con mi suegra poco tiempo. Que eran unas casas... que nada, eran cuchitriles. Y luego ya me fui a otra casa, que me arrendó otra mujer, y el marido ya estaba *pa'ca*. Y yo ya estaría pues con dos o tres [hijos]. Y el marido estaría por Barcelona en los pinos, en Bilbao también estuvo. Y luego ya, fue cuando cogimos... justo antes de nacer Arantxa... pues un mes tardó en nacer. Que si no me morí aquél día... no sé cómo no... porque *pa'* subir a donde era... con un chaparrón que caía... y todos los hombres del caserío, que lo mismo éramos 7 familias, que eran cuadras de bueyes, con papeles en las paredes, que no creas que era otra cosa... (...) Mira vinimos el 15 de diciembre, y nació el 20 de enero. Y la comadrona dice que estaba en *nosedonde*, es que era que no subía... el practicante... que no podía porque estaba en *nosedonde*... y nació Arantxa sin nadie... las vecinas... Decía una mujer que ya se ha muerto... “Usted no se preocupe, yo no he cogido nunca un niño, pero nos arreglaremos...” ¡¡Ui madreeeee!!... ¡con una nevada que había! Total, que nació la Arantxa.

Y el día, a día, pues hacías un poco de comida... y luego eso, te ibas a un río a lavar [Barreak], caldeabas lejos-lejos... con un carretillo o con lo que pudieras. Y en la buhardilla, me subía el agua... en mayo, y no había un poco de agua hasta los santos. Y la de abajo, la señora Rosi, venía un rato por la mañana... porque enjabonabas la ropa [etxean] y no podías aclararla. “Baje usted Señora Eloina a aclarar la ropa”, y tenías que bajar seis pisos con el barreño. Y luego, había otra vecina en el cuarto que vivía, tenía un niño y una niña. La niña del tiempo de Arantxa, que estudió con ella. Y el Eduardito. Pues esa y yo, y otras

más... íbamos a lavar, con los críos agarraos por las faldas... con el carrito, a las casas de Aparicio había unas pozas *pa'llá*, e íbamos a lavar allí, porque no había agua en casa. Y fíjate, ¡Ui madre...! y yo con la tripa, y con los barreños a tender la ropa abajo: seis pisos. [Barreak] [Isiltasuna] Y eso todo me ha *pasao*. (...) Y así resistimos¹²⁴.

Narrazioetan ageri diren halako adibideen bitartez jakin dezakegu hiru emakumeen kasuan, biziraupenerako egin beharreko eta igaro beharreko egoerek beren identitateetan aztarna ukazina utzi dutela, eta hala, beren identitateen erdigunean dagoela bizipen multzo honen ondorioz eratuta bakoitzaren klase identitatea. Esan bezala, ez teoriarik garatu beharko litzatekeen fabrika handietan, baizik eta egunerokotasunaren gordinari aurre egitearen ondorioz. Etengabean bizirauten eta erresistentzian aritu behar horrek, nolabaiteko harrotasun eta duintasun erreafirmazio bat sorrarazten die haietako bakoitzari, adibidean ikus daitekeenez.

Bestalde, esan baldin badugu ere klase identifikazio hau indibidualki garatu zuten zerbait dela, beren ibilbidea halakoa izan zelako (etxeko lan, zaintza lan zein zerbitzari gisa, bakarrik egiten zutelako lan), kontutan eduki behar dugu biziraupen hori gauzatu zedin elkartasunezko sare kolektiboak oinarrizkoak izan zirela helburu horretarako.

Pero luego todo muy buenos, eso sí. *Na* más que se ponía alguno malo, bajaban *toa* la gente en reata... *pa'* bajar, porque ahí no subían coches, no había camino... tenías que bajar casi hasta Etxeberri... por pizarras de esas...¹²⁵.

Zeukaten hori elkarbanatzen edota beharra zutenean elkar laguntzeak harreman eta lotura sendoak sortzea eragin zuen. Esan dugun moduan, Eloinaren alaba Arantxak istripu bat eduki ondoren iritsi zen Mari Zumarragara.

Y luego vino la Mari... que la tengo como una hija, vamos no es una hija, pero la tengo así. Es la única sobrina que más la tengo... luego Adolfo también pero... pues esa también se vino, a atender cuando lo de Arantxa con el camión.

¹²⁴ Eloinari 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

¹²⁵ Eloinari 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

Y estuvo aquí un mes o dos pa' relevarme porque yo iba...¹²⁶.

Egoeraren gordintasunari aurre egiteko ezinbestekoak izan ziren familiako, lagunen arteko zein bizilagunen arteko sareak, lehenago ikusi dugunez. Mariren, Elenaren eta Eloinaren kasuan, eta azken bi adibide hauekin ikus dezakegunez, situazio zailei aurre egiteak eta etengabe pobrezari aurre egin behar izateak beren identitatean eragina eduki du, eta baita horri aurre egiten lagundu zieten sareei esker, kolektibotasunaren ulertzeko moduak. Honetan ondoren sakonduko dugu.

Testuinguru historikoan aipatu dugun moduan, Estatu Frankistak gizontasuna ulertu eta arautzen zuenaren arabera, gizon bakoitzaren eginbehar nagusietako bat lana (lan gogorra, hain justu) litzateke, horren bitartez etxea hornitzearen ardura edukiko lukete. Manuelen, Juanen eta Joséren narrazioetan lanak berebiziko garrantzia du.

Eché tres días buscando trabajo, mi ilusión era ser mecánico, pero no me cogían en ningún *lao*, porque yo tenía 15 años. Me volví loco. (...) A todo esto, que, yo, no tenía problemas de dinero porque yo había venido, me vine... [amaren heriotzagatik] (...) y podía estar sin hacer nada algunos meses. Pero no-no, recuerdo que algunos se volvían al pueblo, pero yo por vergüenza... yo no vuelvo, yo eso lo tengo claro¹²⁷.

Manuelen narrazioaren adibide honetan ikus dezakegunez, hainbat hilabetetan zehar lanaren beharrik ez zuen arren, beretzako lana duintasun bidea zen, errealizatzeko eta egokitu zaion papera betetzeko bidea. Hau da, amaren heriotzak eragindako noraez eta hutsuneak migratzeko arrazoi izan ziren beretzat. Behar hori izan zen beretzat lekualdaketa eragilea eta ez behar materialak edota ekonomikoki eta sozialki “hobetzea” beste kasuetan nagusi den bezala. Hala eta guzti ere, beretzat beharrezkoa izango da lan bat bilatu eta leku berrian funtzioen bat izatea, hori ez lortzeak bere ohorea jokoan jarri baitzezakeen eta gainera, jatorrian azalpenak eman beharra eta hartu zuen bidea ez betetzearen lotsa jasan beharko zituen. Honetan beranduago sakonduko dugu.

¹²⁶ Eloinari 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

¹²⁷ Manueli 2014-07-04 egunean egindako elkarrizketa.

Badugu, ordea, beste adibide ezberdin bat. Juanek klaseko identitate-ezaz dihardu, bere diskurtsoan pobrezia etengabe errefusatuz. Beretzat, hori guztia ez da harrotasun, etengabeko lanaren bitartez gainditu beharreko egoera baizik. Nondik zetorren edo bere sustraiak zeintzuk ziren ukatzen ez baditu ere, berak migrazioaren helburu eta proiektu nagusi gisara klasean gora egitea da, dudarik gabe.

La gente en el campo, está hecho un barro porque está trabajando la tierra. Trabajas mucho, y ganas poco... y ves que no tenía prosperidad eso. Yo estando aquí [jaioterrian] no pasaré hambre. Comeré patatas, o chorizo, o cerdo, o ternera... eso sé que sí. Aunque casi todo era para la feria. Ves que la vida aquella era una vida muy dura, en el campo, y al fin y al cabo no ves un día libre. (...) El ganado hay que ordeñarlo todo los días, tanto cabras como vacas, todos los días... yo dije: si no me marchó ahora, no me marchó nunca. Ya han marchado mis amigos: uno *pa'* Coruña, *pa'* estudiar de fraile... otro a no sé dónde. Y esa fue mi decisión. Y mi intención era venir aquí, y luego irme a Alemania. Pero la mili me jodió mucho. Mi intención era irme a Alemania, que era donde más trabajo había y más se ganaba... (...) Yo quería ir a Alemania, y luego lo que dios dijera... porque se manejaba más dinero¹²⁸.

Berak argi zuen zeintzuk ziren helburuak, eta ondoren aipatuko dugun moduan, garaiko pentsamendu hegemonikoarekin bat egiten du berak ezkontzaren kasuan, hau da, ezinbestekoa da ezkontzea eta haurrak edukitzea. Hala ere, berak, momentu batetan lehenetasun handiagoa eman zion gehiago irabazi nahiari.

Bien pues allí hice la mili. Y luego pues conocí a una chica en el pueblo, íbamos al baile... y parecía que estaba animado con ella... y me quedé unos meses más. (...). Mis padres estaban muy contentos porque andaba con ella, pero yo... de dije a ella: “yo me voy, aquí no estoy ganando nada... lo poco que me dan un domingo... cuando vamos por ahí tomamos un bocadillo cada uno y una cerveza y ya me lo he gastau”¹²⁹.

Ikusten ari garenez, abiapuntu ezberdinak dituzte elkarrizketatu bakoitzaren migrazioak.

¹²⁸Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

¹²⁹Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

Eloina, Elena eta Mariren sorterriko egoerak askozaz pobretuagoak ziren, eta nolabait, beren ezaugarri gisan azpimarratzen dute etengabe narrazio osoan zehar egindako lan guztia, pasatako gorabehera guztiak, nolako egoera txarrak bizi izan zituzten, eta abar. Juanen kasua ezberdina litzateke, aipatu moduan, bere azken helburuak beste batzuk zirelako.

Guzti hau desarrollismoaren testuinguruarekin harremanetan dago. Hain zuzen ere, oraindik soldatak baxuak baziren ere, nolabaiteko kontsumo mailara eduki ahal izatea bihurtu zen haienezako obsesio. Horretarako, ordu extrak egitea eta kontsumo horrez gozatzeko denborarik ez baldin bazuten ere. Oasi bezala bizi zituzten noizean behineko oporrak, nahiz eta normalean beren herrietara itzultzea zen oporrak hartzean egiten zutena. Hala ere, mailaz igotzearen sentsazioa ulertu ahal izateko, baditugu bi elementu klabe: etxe propioa edukitzearen garrantzia eta batzuentzat, kotxea erostearena. Izan ere, Jose, Juan eta Manuelen kasuan, patronekin bizi izandako urte luzeak xamurtasun eta ezinbestekotzat baldin badituzte ere, ezkondu ostean ezinbestean eman beharreko pausu gisan planteatzen dute denek etxea erostearena. Are gehiago, lagunek “beste familia batekin etxea ez konpartitzea” gomendatzeraino. Ikusten dugu, beraz, elementu klabea izan zela migrazioaren lehenengo momentu prekario edo txarrenen fasea amaitutzat jotzeko etxe propioa erostearena. Etxe propioa edukitzea eginbehar bihurtu zen, eta horrek, adibidez, bigarren migrazioa jo behar izatera bultzatu zuen Jose. Egin eta izan behar eta ahalmenen mugan jarri ziren, hortaz, desarrollismoko diskurtsoak jarraitu nahian. Beste hainbatek, ordea, lehentasunik ez zioten eman etxea erosteari, nahiz eta ezinbestean ere kokatzen duten beren egoera hobetzen ari zela ulertzeko elementu gisara.

6.4.2 Genero identitatea

Frankismoak, orain arte ikusi dugunez, generoari dagokionen, eginbehar eta izan-behar ezberdinak (kontrakoak, osagarriak eta hierarkikoak) proposatu, bultzatu, arautu eta ezarri zituen gizon eta emakumeentzat, eredutik kanpo zegoena zigortzen zuen bitartean. Egin eta izan behar horrek, genero identitateen eraketan eragin ukaezina eduki zuen. Elkarrizketatuen genero identitateak aztertzerako orduan, kontutan hartu behar dugu horietako guztiek Escuela Nacional deituriakoetan jaso zutela heziketa. Jakin badakigu heziketaz gain, testuinguru historikoan aipatu ditugun beste zirrikitu guztien bitartez (legeak, eliza, eta abar) hedatzen eta erreproduzitzen zela Frankismoak zuen sexuaren araberako genero ezberdintasuna, lehenago aipatu ditugun genero mandatuak

zehazten zituena. Kontutan hartu behar dugu, gainera, elkarrizketatuetako guztiak landa eremu tradizional batetan egin dituztela beren lehenengo urteak, eta beraz, modu murriztuago batetan iritsi ahal zirela bertara diskurtso hegemonikoari kontrajartzen zitzaizkion praktika edota diskurtsoak. Zurruntasun teoriko hau, hala ere, hainbat faktorek baldintzatzen dute, eta hain zuzen ere, migrazioa eta diskurtso desarrollista berriek eraldaketarako baldintzak eskaintzen zituen.

Printzipioz, beren bizi proiektuetan, genero rol eta egin beharrekin guztiz bat egiten dute beraietako bakoitzak; guztien bizitzetan ezkontzak berebiziko garrantzia zuen, eginbeharreko gauzen zerrendan lehentasuna baitzuen bikotea lortu, ezkondu eta familia osatzeak. Gizon guztien kasuan lana da beren bizi-esperientziaren ardatzetako bat eta zaintza eta etxeko lanetan aritu ziren emakume guztiak.

Ezkontza beraz, eginbeharreko eta zalantzan jarri beharreko ekintza da elkarrizketatu guztien kasuan. Denentzat, lehenago eta ondorengo bat markatzen duen data da hau. Oso modu laburrean bizi dute ofizial egin gabeko bikote-harremana kasu guztietan. Hori zalantzan jartzen ez duten bezala, seme-alabak edukitzearen logika ere guztien kasuan errepikatzen da, lehenago esan bezala, hori baitzen diskurtso hegemonikoan behin eta berriro errepikatzen dena. Hala ere, seme-alabak edukitzea gauza bat den bezala, argi dago kasu guztietan horren garrantzia emakumeek bizi dutela. Beren identitatearen erdigunean dago ama izatearena, diotenez, “un matrimonio sin hijos es como un árbol que no da frutos”¹³⁰.

Dena dela, amatasuna zalantzan jartzen ez duten moduan, eta betidaniko desio bat baldin bada ere, beraietako inork ez du amatasuna soilik kokatzen beren izatearen erdigunean, betiere beste hainbat konbinazioekin bizi dute, langile izaerarekin, hain zuzen. Ez baita kasualitatea, hiru emakumeek bizi izan baitituzte egoerarik prekarioenak, eta berez horien aurrean egin beharreko “lan eta borrokak” dira beren narrazioetan presentzia handiagoa hartzen dutenak. Beraz, diskurtso ofizialak honetara bultzatzen badituzte, esan dezakegu, inola ere ez dutela erreproduzitzen soilik ama, etxekoandre eta emazte izatearena.

¹³⁰Elenari 2014-07-04 egunean egindako elkarrizketa.

Izan ere, beren bizi ibilbidea, langile familietan ohikoa dena (Ikergaiaren Egoeran ikusi ahal izan dugunez) ez da teoriaran proiektu frankistak zuenera egokitzen, ez baitziren ezkondu ostean “etxera erretiratu”.

Elena, kasu, zerbitzari domestiko ibili ondoren, gazte ezkondu zen. Etxebizitarik erosteko adinako diru sarrerarik ez zuten, hainbat pupilo eduki zituen etxean. Hala, hiru haur jaioberrien zein senarraren zaintza, etxeko lanekin zein zerbitzua eskaintzen zien pupiloentzako lanarekin konbinatu zuen. Haurrak nagusitu eta eskolara joaten hasi ziren momentuan, garbiketa lanetan hasi zen, bulego eta tabernetan.

Y ya cuando me casé pues me quedé en Ergobia que tenía mi suegra un piso con cinco habitaciones. (...) Y ahí nacieron los tres chavales. (...) Pues vino mi hermano, pues en vez de que se fuese por ahí, pues lo cogí yo. Luego un primo, luego otro primo... total que me cogí al final dos o tres de pupilos. Y nada, y a tirar para adelante. Y nada, una vez que los niños empezaron para el cole... ya nada, mi hermano siguió, pero los demás ya nada. Y me puse a trabar en la calle. En Ergobia yo en oficinas. Como hicieron muchos pabellones pues yo en oficinas. Hice yo ahí, no se... una... dos... tres... cuatro... cuatro o cinco oficinas hacía. Alternaba¹³¹.

Marik oso antzeko ibilbidea du, bera ere gaztetatik etxeko zerbitzari ibili baitzen. Ezkondu ostean lan hori alboratu zuen, nahiz eta segituan etxetik kanpoko lanari ere ekin behar izan zion, senarraren fabrika kinka larrian baitzegoen eta gainera, azken hau gaixotu zenez, bertan lan egiteari utzi zion azkenerako.

Y yo ya empecé a trabajar en casas: una escalera, luego hacía casas, o hacían una casa nueva y me llamaban para limpiar... yo ya volví a empezar a limpiar. Ya mis hijos en Ormaiztegi iban a la escuela, el pequeño me lo quedaba en casa... hasta que empezó. Y era cerca, yo los veía. Y yo en lo que estaban en la escuela, iba a limpiar una casa, iba a limpiar un portal... lo que saliera¹³².

Ikusten dugunez, hainbat lan batera egin behar izan zituzten. Hala ere, eurentzat guztiz

¹³¹Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

¹³²Mariri 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

naturalizatua dagoen egoera dela ikusten dugu, hau da, printzipioz ez da kontraesan bat, aipatu moduan, etxeko andrearen papera bere egin eta betetzea, ezta funtzio hori galdu gabe etxetik at merkatuan lan egitearena.

Izan ere, prekarietate egoerek (bizi baldintzena, hamaika lan bateratu beharrak, lekua ez ezagutzeak, gaixo eta haurrak zaindu beharrak, oinarrizkoak diren elementuak ez edukitzeak, eta abar) beren klase identitatea indartu zuen bezala, Borderíasek aipatzen duen “klaseko halabeharraren” kontzeptua ere hor dugu¹³³, merkatuan ordaindutako lanari lotutako identitatea indartzen duena.

Esan nahi baita, prekarietatea eta horri etengabea aurre egiteko sareek harrotasun sentimenduak eragiten dituela berengan. Hiruren kasuan erresistentzian aritze hori beren bizitzaren kontakizunean garrantzitsua baldin bada ere, harrotasun nabariena Eloinarena da, haurrak eduki zituenetik merkatuko lanik eduki ez zuen bakarria izan zelarik. Mari eta Elenaren kasuan, ordea, ezkondu ostean biak atera behar izan ziren berriro kalera lan merkatuan parte hartzera. Eurentzat ez da kontraesana etxean eta merkatuan lan egitearena, haratago, hau berentzako garrantzitsua da, etxeko lan eta zaintza lanak “berezkotako lan” kontsideratzeraino. Berentzat, lan egitea garrantzitsua zen “lanik ez egitea andereño aberatsen gauza”¹³⁴ zelako.

Beraz, printzipioz banaketarik egiten ez duten arren, eta modu naturalean bizi badute ere bi espazio horiek iragatea eta bietan lan egitea, eurak dira ezberdintasun hori egiten dutenak.

Esan bezala, amatasuna zen berez garaiko emakume guztien identitatearen erdigunean egon beharrekoa. Esan dugu, hala ere, Mari, Eloina eta Elenaren kasuan, praktikan horrek beren bizitzan baldintzatu baldin badie ere (bistan da zaintzara dedikatutako bizitza bat eduki dute, batez ere Mari eta Eloinak) lana da beren subjektibitatearen erdigunean ezartzen duten elementua. Manuel, Juan eta Joseren kasuan ere, argi eta garbi, lana da beren bizitzak markatzen duen elementua. Izan ere, garaiko diskurtsoek zioten moduan, hori baitzen beren egiteko funts nagusia. Behin baina gehiagotan errepikatzen dute, hona iritsi eta azkar batean lana topatzearenak “moralak igoarazi”

¹³³ C. Borderías, 1991.

¹³⁴ Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

zietela. Esan dugu, baina, aldaketa garai bat izan zela diskurtsoari dagokionean (besteak beste) beren migrazioaren momentua. Izan ere, desarrollismoaren ideia berriekin batera iritsi zen Europan zabaltzen ari zen gizartearen antolaketa berria. Eta horrekin guztiarekin, emakumeak etxetik kanpo modu erregular baten hasi ziren berriro lanean.

Beraz, Frankismoak proposatzen zuen familia ereduaren aurrean, lehenik etxean eta etxetik kanpo lan egitea bera klase posizio batetatik defendatzen eta auto definitzen zuten bitartean (lan ez egitea aberatsen gauza zela esanez, zenbat lan egin duten etengabe goraiapatuz, eta abar) desarrollismoan zehar garatu ziren diskurtso berriek, jada emakumeek legalki lan egin zezaketelarik, eta horrek teorian gizartean onarpen bat zuelarik, aukera eman zien Mari eta Elenari beren bi identitate eta funtzioak (etxeko andreamena eta langilearena) batera bizitzeko. Eloinak, ibilbide hau jarraitu ez zuenez, klase identitate horri eusten zion bitartean.

Teorian gizartean onarpen bat eduki zuela diogunean, esan nahi dugu honek talka eragin zuela gizarte ezin tradizionalago baten hezi eta bizi izan ziren horientzat. Nahiz eta errepikatu dugun Elena, Mari eta Eloinaren kasuan lana dela beren bizitzak ezaugarritzen dituen elementuetako bat, esan dezakegu, familia unitatean eta bertan erreproduzitzen ziren genero-harremanetan talkak edo kontraesanak eragin zituela gai honek.

Izan ere, adibidez, Elenaren kasuan, gartzetatik lanean aritu zen eta haurrak eskolan hasi orduko berriro itzuli zen merkatura (kalean lan egitera lehenengo aldiz, bide batez). Badirudi bere kasuan ez zuela gatazka handiegirik sortu etxean, izan ere, “beharra” hor zegoela dioenez, ezinbesteko gisara ikusten zen berak lan egin behar izatea behar monetario horiek asetu ahal izateko (oraindik gainera, senarraren amaren etxean bizi baitziren). Hala ere, senarrak “beti errepikatzen zuen nahiagoko lukeela berak lanik egin beharko ez balu”.

Esan dezakegu behar monetarioen arabera erabakiak hartu zituztela familia bakoitzean. Juanek, lehenik, egiten zuen lan guztia goraiapatzen du, gero ordea, emazteari lan egiteko debekua jartzen dio:

Y luego entré con una chica y me casé. Tuve tres hijos. Y de aquélla, no es como hoy en día: porque hoy en día trabaja la mujer y trabaja también el hombre. Y de aquélla, sólo trabajaba el hombre. Entonces el hombre, pues tenía que meter más

horas, y salías de un sitio y antes de llegar a casa pues metías unas horas en algún otro sitio... Yo llegaba muchas veces a las 22:30 de la noche, cuando los niños ya estaban dormidos... y me marchaba otra vez a las 4:30 de la mañana, para meter otras horas... y allí era repartiendo leche con un camión de Gurelesa.

Y cuando los hijos te van siendo un poco más mayores... mi mujer me dijo que quería trabajar. Y yo le dije: “prefiero empezar a trabajar... yo meter más horas, y que los niños estén cuidados y eso...”. Porque los niños, cuando van cogiendo la edad, si no están cuidados por una persona, o bien el padre o la madre, pues van cogiendo malas cosas...¹³⁵.

Ezbairik gabe, bakoitzak bere eginbeharra kolokan jartze hori da ekidin nahi izan zuena Juanek. Honen bitartez argi adierazten digu, nahiz eta esfortzu handia den beretzat eguneroko hamaika enpleguak konbinatzearena, nahiago duela hori bere emazteak etxetik at lan egitea baino. Hau da, nahiago zuen bere identitatearen erdigunean zegoen merkatuko lanaren betebeharra ez elkarbanatu bere emaztearekin, diskurtso berrien kontrara eta erresistentzian, bere identitatearentzat funtsezkoa baitzen berak lana egiten zuen bitartean bere emazteak egin ez zezala. Tentsio hauek guztientzat ziren konstante bat:

Y una vez que empezaron los niños al cole, cuando no eran tan pequeños y tenía que estar yo cuidándoles, pues empecé a trabajar en la calle. Y para mí fue estupendo salir a la calle, a mí me gustaba.

Hombre, a él le hubiese *gustao* que no trabajase, pero, como veía que no daba con lo suyo, pues... siempre decía “*Joe*, ya me gustaría a mí ganar para que tú no trabajaras...”¹³⁶.

Izan ere, 60ko hamarkadan emakumearen enplegu ereduaren eraldaketa baten aurrean gaude; familiaren beharrak asetzeko emakumea enplegatu behar izatetik, hau da, oinarrian senarrak sostengu monetarioa izan eta “laguntzeko” emazteak beste enplegu bat edukitzetik, emakumearen autonomiarako beharrezkotzat jotzen den, eta hortaz, identitatearen erdigunean jartzen den enplegu eredu batera, lehen aipatu bezala¹³⁷.

¹³⁵ Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

¹³⁶ Elenari 2014-07-04 egunean egindako elkarrizketa.

¹³⁷ C. Borderías, 1993b: 46.

Testuinguru honetan ulertu behar dugu Juanek bere emazteak lan merkatuan parte hartzeari debekua jarri izana. Izan ere, hau maskulinitatea ulertzeko moduarekin zeharo dago lotua, hots, sakrifizioaren eta etxeko hornitzailearen papera betetzearekin. Zentzu honetan ulertzen dugu aldaketa horri (bere emazteak lan merkatuan parte hartzeari) erresistentziak jartzea, bere identitatearen erdigunean zegoen *male breadwinnerraren* funtzioa alboratuta gelditu ahal baitzen. Ikus dezakegu, hortaz, garaiko ideia berriekin talkan sartzen den eredu hau, hain zuzen ere, ordura arte emakumeak lan egitea klase apaletako familietan gertatzen baitzen eta lehenago aipatu dugun moduan, Juanentzat klaseko mugikortasuna edo mugikortasun soziala baitzen bere azken helburuetako bat.

Dudarik gabe, lana gizontasunaren identitatearen erdigunean kokatzen dígute Manuelek, Juanek eta Josek beren narrazioen bitartez. Gainera, migrazio prozesua hasi berritan, eduki zitekeen lotsatzeko gairik edo ekintzarik handiena zen diru gabe herrira itzultzearena.

De forma, no es lo que reluce siempre... porque mira, yo en mi pueblo, había un chico que tenía una cafetería muy buena... y cada 15 días cosas, mucho trabajo, comidas... buena ganancia. También tenían vacas y tal... pero a él le pasó igual que yo: porque todo días iba a Alemania, venía con coches con dinero... y entonces él también se marchó a Alemania, pero claro, le gustaba el cachondeo y tal por ahí... los demás todos trabajando, metiendo horas y tal, o si no en casa... y él, que aguantó un año y pico... cuando llegó se puso otra vez a trabajar en la cafetería... y en esto, había un carnicero, y le dice: “Luis, pero ¿qué te pasa?, ¿cómo que estás trabajando aquí?”, y dice: “Joder, pues ayudando aquí a mis padres...”; “Pero tú, mira, que los que vienen de Alemania venís con más dinero que no sé qué...” y le responde: “Mira, si tú supieras... lo que hacen... trabajando todo el día, y descargando patatas o lo que sea después de horas... yo vengo sin un duro...”. Y le responde el carnicero: “Bueno, pues por lo menos haz como que tienes dinero, como los demás que vienen fanfarroneando”¹³⁸.

Migratzea erabaki zuten horiek atzean uzten zuten herri eta gizartearen presioa zutela ondoriozta dezakegu honi esker. Izan ere, garrantzitsua zen bidai horretan norbait sartzen zenean, dena ondo joan eta arrakasta edukitzea. Arrakasta Juanen ulerkeran, aipatu dugun mugikortasun sozial hori lortzea litzateke. Ikusten dugunez, migratzea

¹³⁸ Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

erabakitzen zutenez haratago, espektatiba zehatz batzuk eratu ziren garaiotan landatik hirira lekualdatzearen inguruan. Behin baina gehiagotan ageri zaizkigu espektatiba horiek betebeharrak gisara narrazio guztietan. Hala eta guztiz ere, hiru gizonezkoen kasuan, duintasun edo ohore kontua litzateke aipatu arrakasta lortzearena. Begi bistakoa den moduan, Juanek aipatzen duen kontakizun honen protagonista burumakur eta frustrazio nabarmenarekin itzuli zen herrira.

Familia nuklearra zen Estatu Berriaren oinarritzko zelula eta, generoari dagokionean, bertan gauzatu ahal izan ziren gatazkak, desarrollismoko diskurtso berriek bertako ordena hankaz gora jartzen baitzuten, hein handian behintzat. Horren adibide dugu oraintxe bertan aipatu ditugun tentsio uneak. Joséren adibidea ere jar dezakegu. Bere buruaz, bai bere jaioterrian, bai iritsi berritan eta baita ezkondu ondoren ere, aurrezteko gai ez den pertsona gisara definitzen du. Horrela, behin eta berriro irudikatzen dugu bere narrazioaren bitartez bere emaztea bere soldata kudeatu eta aurrezteko saiakerak egiten. Ez da kasualitatea, bigarren aldiz migratu behar izan zuenean, hirugarren kurtsuan zehar Pasaiara bueltatu behar izana, jada Suitzan egotera moldatu eta aurrezten ez zuelako. Naturalki dio, bere emazteak ez zuela etxetik kanpo lanik egin, nahiz eta gai horren inguruan isiltasun nabarmena duen. Ez dakigu Joséren emazteak etxetik kanpo enpleguren bat eduki nahi zuen edo ez, baina, jakin badakigu behar monetarioak bere lanaz asetzen zituztela beren etxean, eta zentzu horretan, Joséren etxean boterea bere alderantz zegoela desorekatua, emazteak dena kudeatzen zuen arren.

Guzti honetaz gain, adierazgarria da nola agertzen den amaren figura behin eta berriro zaigu elkarrizketatuen narratibetan. Izan ere, migrazioaz zerbait gogoratzen badute, gazte zirelarik “amaren gonazpitik” ateratzea zein gogorra izan zen azaltzen dute. Beren haurtzaroa eta herriak gogoratzean ama zein aita gogoratzen badituzte ere, oso modu ezberdinean gogoratzen dituzte. Esan genezake, ama zerbait konkretuarekin baino, beharrezkotasun esentzial batekin lotzen dutela amaren figura. Azpimarragarria da, lehen esan bezala, Manuelek herritik partitzearen arrazoia hori bera izatea:

Y el 19 de septiembre, del año 1965, yo ya estaba allí. Y todo esto fue porque... [Isiltasuna] en el año 65 el 13 de mayo... se murió mi madre. Porque la llevaron a operar, que tenía un cáncer de matriz, y la vaciaron, 8 horas de operación, y de

aquella no... y entonces... en casa me faltaba algo. Yo no tenía ni falta de dinero, ni de ropa, ni de comida... no tenía falta de nada... además, de una forma más o menos prudente, pues hacía lo que me diese la gana... y además si podías tener 20 duros para ir a una romería... pues era ya... ¡ser capitalista! Además, ya me había comprado una bici y todo... pero a mí me faltaba algo, y no era porque mis abuelos, mi padre, mis hermanos no me quieran o... no, es que... faltaba algo fuerte, algo fuerte... y yo decidí largarme¹³⁹.

Baina, esan bezala, migrazioak beren familietatik urruntzen zituen bezala, beste familia batera iristeko aukera bat izan ohi zela, batez ere pupilo gisan etxe batera sartzen zirenen kasuan.

Pues, echas de menos a todos, echas de menos a tus padres, te cuesta [Emozionaturik]... y... luego llegas aquí... y... como encuentras a una familia... una segunda madre... y un segundo padre para ti...

Pues... yo tenía una sortija, de aquella que antes los chicos andaban con sortijas... y me dijo mi segunda madre “¿qué has hecho?” “me he comprado una sortija” “eso... para un hombre no es... un hombre tiene que tener un reloj... ¡ya voy a ir yo contigo a comprar un reloj bueno!” Y ella siempre quería venir. Cuando hacía algo o iba a comprar una cosa, ella siempre venía. Quiero decir... mandaba ella más que yo (...) Y... era como... ella era como mi segunda madre, me acuerdo... porque me trataba bien, me decía como tenía que hacer, como tenía que vestir “esa camisa no te va bien, te va mejor con esta...” Quiero decir: una madre¹⁴⁰.

Esan bezala, bertan pupilo gisa etxe batera sartu zirenentzat behar oinarrizkoak asetzeko gunea izan zen etxea, eta baita bertako “guraso berriekin” lortzen zituzten harremanak. Amaren figura esentzializatua ageri zaigu, beraz, beraien bigarren ama gogoratzen dutenean, edota migrazioaren gogorraz hitz egiten dutenean. Manuelek, ordea, oso markaturik du bere bigarren aita. Adierazgarria da, izan ere, herritik alde egitearen zergati garrantzitsuena, bere kasuan, amaren hutsunea betetzea izan baitzen. Bigarren ama batekin baino, bigarren aita batekin estaltzen du nolabait, hutsunea. Hala ere,

¹³⁹Manueli 2014-07-04 egunean egindako elkarrizketa.

¹⁴⁰Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

nabarmena da balore edo eginbehar guztiz ezberdinek markatzen dutela beretzat bigarren aita horrekin edukitako esperientzia, eta horrek, hein handi batean garai honetako generoaren araberako ezberdintasunak ulertzeko gakoak ematen dizkigu, besteak beste eduki edo balore batzuk transmititu izanaren inguruan berregiten du bere bigarren aitaren figura:

[Yo] Paraba de pensión, en casa de un vecino, que vamos, ha sido... como un padre. Más que mi padre... porque me ha enseñado más, me ha dado más... no es que me queje de mi padre, pero, es un hombre que había venido antes para'qui, y ya estaba establecido... y pues pagabas una pensión y no sé si eran 500 pesetas a la semana. Pero bueno, más que un tema económico fue un tema familiar... y fue, bueno, conmigo se portó [Isiltasuna], en todo... en educación... en todo... porque con 15 años no estás formado aunque quieras, y él me enseñó una cosa muy importante para mí en la vida [Isiltasuna]: que es la ética [Isiltasuna], la honradez [Isiltasuna], la honestidad... Si en algún momento tienes que pasarlo mal, pues lo pasas... pero no puedes mentir, ni hacer trampitas, porque eso al final se vuelve en contra tuya... y así, pues seguimos, seguimos... y seguí en la construcción, aunque a mí siempre me había gustado la música, pero tenías que trabajar, porque si no, no había chin-chin... y eso¹⁴¹.

Ikusi dugun moduan, oso ezberdina da iritsi berritan bigarren ama eta aita gogoratzen dituzten modua, beharrezko baina deskribatu ezin den hori bezala eta bizitzarako beharrezko diren irakaspenen iturri gisara oroitzen dituzte, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, esan dezakegu, beren migrazioaren momentua eta are beren bizitzen inflexio edo eraldaketa puntu bat dela bigarren guraso horiekin edukitako esperientzia bakoitza. Lekualdatzearekin batera gertatzen den eta familia berri horretara iristearekin batera jazo zen eta dudarik gabe, zerbait atzean utzi eta beste zerbait sortzen ari delako momentuez ari dira elkarrizketatuak. Kasu hauetan, beraientzat oinarri izandako familia berrosatzen ari ziren. Hala, Juanen kasuan argiki bisualizatu dezakegun momentu simbolikoa da eraztuna alboratu eta erlojuaren erosketarena. Manuelen kasuan ikaspen horiek jasotzen diren momentu horietan gertatuko litzateke simbolikoki identitate berreraikuntza momentu hori.

Aurrerago aipatu dugun moduan, hegemonikoak diren praktika eta diskurtsoen

¹⁴¹ Manueli 2014-07-04 egunean egindako elkarrizketa.

arrakalak ere azpimarratzea funtsezkoa da. Esan dugu, bistakoa dela desarrollismoaren ideia eta diskurtso berriekin hainbat kontraesan sortu zirela familia nuklearretan. Tentsio une eta gai horietaz gain, baditugu beste hainbat disidentzia.

Elenaren kasuaz ari gara, izan ere, aipatu moduan, bera bere ekimenez etorri zen bertara, nahiz eta gizarteak hori berekiko ideia konkretu batzuekin lotu zuen. Bertan ere, etengabekoa da nola urratzen dituen mugak (adibidez, noizean behin debekaturik zegoen etxeko ugazabaren telefonoa erabiliz). Esan bezala, beretzako garrantzia eduki zituzten ostegun eta igandeetako arratsaldeetako jai-orduak.

Dantzaldiak harremantzeko leku aproposa ziren beretzat, eta berak, halako batean ezagutu zuen ondoren bere senarra izango zena. Egia da, ez zirela bat-batean bikote bilakatu eta lehenengo hainbat eta hainbat urte izan zirela “soilik lagun”. Horrek gainontzekoek beren ezkongai-garaiak esaten dizkiguten ideiekin kontra egiten dute, oro har, oso azkarra izaten baitzen, ezagutu, bikote bilakatu, ezkondu eta haurrak edukitzeko prozesua.

Dantzaldietan halako harremanak sortzea araua zen arren, Elenak bertan zuen osabaren bi begiak beti zituen zelatan, egingo zutena kontrolatzeko asmoz. Hala ere, berak eta bere lehengusinak barre eginez, umorez, eta kontrol horri berebiziko garrantzirik eman gabe egiten zioten aurre halako egoerei:

Pero luego ya conocí a Antonio y... Sí, sí, en los Tilos, claro, en los Tilos, bailando. Y luego teníamos al padre de mi prima que nos vigilaba para que no tuviésemos novio... [Emozioz, toñoa igotzen] Y a ver, ¿que no nos dejaba tener novio! ¿Y por qué no podíamos tener novio? ¿Si íbamos para dieciséis-diecisiete años? Y estábamos ahí en la Sagrada Familia e íbamos por ahí, por la Plaza del Sauce a otra salida de las casas, ¿no? Él se quedaba los domingos a este lado, ¡y nosotras le dábamos el esquinazo por el otro lado, y nos íbamos a Rentería! ¡Porque en Hernani nos encontraba! ¡¿No ves que él vivía en Astigarraga?! Y en Hernani, pues se lo sabía... y entonces nos íbamos a Renteria con los novios a bailar para que no se enterara... [Barreak] ¡Qué bueno, qué bueno!¹⁴².

¹⁴²Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

Pues bueno, nos daba igual... en los pueblos también, yo veía que iban a bailar, y las madres también se sentaban a ver bailar y también a vigilar supongo... y para mí, ni fu ni fa... nos daba igual... siempre nos reíamos, “mira ya le hemos dado el esquinazo a tu padre...” [Barreak]¹⁴³.

Testuinguruaren zurruntasuna ulertzea beharrezkoa baldin bada ere, Marko Teorikoan aipatu dugun moduan, ezin ditugu garaiko subjektuak modu pasiboan ikusi, agente aktibo gisara baizik. Adibide honi esker ikus dezakeguna hori bera da: arauak garbiak baldin baziren ere, egin zitekeenaren mugak gainditzea posible zela. Lehenago esan dugu, gizartearen presioa eta “egin beharrezkoa” argi baldin bazegoen ere, ertz horietan ibiltzea posible zela, eta are, dibertigarria zela guzti hori jolas moduan hartzea. Dударик gabe, halakoak Elenarentzako oroitzapen goxo batzuk baino gehiago dira, askatasun hori sentitzen baitu halakoez xehetasunez hitz egiten duen bakoitzean.

Diskurtso frankistak bere eskura zituen erreminta guztiak erabiltzeaz gain, lehenago aipatu dugun gisan, presio sozialak eta elkar zelatatzeak ere pisua zeukaten. Horrela ulertzen dugu, gutxienez, Elenak “bere herritik hain urruti eta hain ezezaguna zen leku batera”¹⁴⁴ joateko gurasoen partetik eduki zituen erresistentziak, landako lanak gogoko ez zituela jakin arren, hori egitea nagusiago baten eskaeraren bitartez iritsi baitzen. Izan ere, beren inguruan kanpora alde egitea genero mandatuarekin talka egitea zen. Beraz, esan dezakeguna zera da, genero mandatuak argiak baldin baziren ere, eta askotan horiek denak betetzen baldin bazituzten ere (arrakalak dauden arren, ikusi dugun moduan) migrazioa bera emakumeentzat idatzitako zirudiena, zentzu batetan behintzat, halabehar izatetik etorkizuna erabakitzekeo prozesu baten hasiera izan zitekeela.

6.4.3 Jatorriaren lotsa eta pertenezia kolektiboaren harrotasuna

Jatorria, ezinbestean, migratzaile batentzat pisua duen faktorea da. Migranteak beren lur, etxe eta ingurunea atzean utzi eta beste nonbaiten eraikitzen duten pertsonak bezala defini daitezke¹⁴⁵. Hala eta guztiz ere, behin izan ziren hori (ingurune zehatz batetan, arau sozial zehatz batzuk dituen) alboratu gabe hasten dira berreraikuntza horretan. Jatorriak berreraikuntza horretan pisua edukiko du, arau zehatz horiek eurekin dakartzatelako migranteek, baina, baita nongotar eta zeren parte sentitzen diren

¹⁴³Elenari 2014-07-04 egunean egindako elkarrizketa.

¹⁴⁴Elenari 2014-05-28 egunean egindako elkarrizketa.

¹⁴⁵L. McDowell, 2000: 142.

definitzerako orduan ere. Baina, jakina den moduan, beste hainbat kategoria identitariorekin (klase eta genero identitateekin) elkarrekintzan dagoen elementua dugu honakoa. Asko dira jatorriarekiko harremana eta identifikazioa lotsarekin bizi zutenak.

Y entonces, nosotros solíamos ir a Hernani... te digo, que tú estabas bailando allí con una chavala... y tú con un acento de gallego de la hostia, igual bailando con una chica de aquí... caserota, casi te daba apuro bailar... Hoy no me daría ninguno, porque cada uno sabe su idioma y punto... pero de aquella, joe... parece que eras de caserío, claro que sí, normal, y ella también. Pero, jode, como éramos así de fuera, y tal, pues... pero bueno, había también alguna chavala muy maja y bailabas así con ella y muy bien. Pero, por lógica, ellas, iban más con gente de su... que hablaban... pues castellano o euskera. Y bueno, que nosotros ya sabíamos castellano, pero tú misma ves mi acento gallego, después de todos los años que llevo aquí...¹⁴⁶.

Behin eta berriro errepikatzen diren gaiak dira honakoak, batez ere hiru Galiziarren kasuan (José, Manuel eta Juanen kasuan). Izan ere, batetik lotsaz hitz egiten duten arren, hizkuntzarekiko eta beren herriarekiko harrotasun ideiak eta sentimenduak ere ageri zaizkigu beren narrazioetan. Ez da kasualitatea, iritsi eta berehala bere harreman sare guztiak galiziarrekin josi baitzituzten. Joan eta bueltako gutxiespena ere bistakoa da, behin eta berriro ateratzen baitira bertako baserritarren inguruko iritziak.

Zentzu honetan, uste dugu kontutan hartu beharrekoa dela, lekualdatu eta jarraian, harremandu ahala izateko migranteek zer nolako egoerari egin behar izan zieten aurre. Nolabait, hainbat aspektu edo hierarkiari aurre egin behar izan baitzieten. Dударik gabe, “landatar paleto pobrearen” irudia bere gain izatea lotsazko kontutzat baitzuten. Horri, elkarriketatu jatorriz galiziarren kasuan, hizkuntza guztiz ez menperatzea, edo menperatzen baldin bazuten ere, beren hizkuntzaren doinua ezin ezkutatu ahal izatearen lotsa gehitu beharko genioke. Dударik gabe, Juanek egiten duen kontakizunean gaur egunetik egindako balorazioa dago. Hau da, jada ez da “landatar” eta “paleto” sentitzen, eta jada beste modu batetan ikusten du bere galiziartasuna.

Hala ere, esan bezala, badago sakonean beren galiziartasuna defendatzeko joera

¹⁴⁶ Juani 2014-07-03 egunean egindako elkarrizketa.

nabarmen bat beren kasuan, lotsatik harrotasun sentimenduetara eraldatzen zuena:

Solíamos hablar gallego en casa, con la mujer y con las chavalas también. Yo eso no lo he perdido nunca. Cuando íbamos en el tren, íbamos a trabajar, y yo que tengo una voz fuerte... me decían “Cállate, ¿no te da vergüenza?” [Barreak]. Pero no, no... yo nunca he renegado de mi tierra¹⁴⁷.

Pertenentzia identitate kolektibo batez ari gara kasu honetan, galiziarrek oso presente dutena. Hainbat eremutan batzuentzako lotsa zena, besteentzako, bere ukaezinezko ezaugarria zen, “beren lurraz” harro baitzeuden, eta lekualdaketak lekualdaketa, ezin zioten horri uko egin nahi. Zentzu horretan, migratu izanak eta beren sentitzen zituzten ezaugarri kultural horiek kinka larrian ikusteak, errealizmatzeko balio izan zieten. Dударik gabe, hori garatzearekin zerikusia du hiru elkarrizketatu hauek eduki duten sozializatzeko guneak galiziarren artekoak izan izana.

Badaude, ordea, jatorriarekin eta nongotar sentitzearekin hainbat barne-gatazka. Galiziarrek beren sentimenduak argi dituzten heinean (argi dute identitate bikoitza dutela, hemengoarekiko ere *morriña* dutela herrira itzultzen diren bakoitzean, eta abar). Ez-hemengo eta ez-hango sentitze horrek, beren sustraiak non dauden ez jakite horrek, nostalgia batetan bizitzea eragiten dietela esan genezake.

Eloina eta Elenaren kasuak ez dira berdinak. Bertako sentitzea esentzialtasun batekin lotzen duten heinean, bertako sentitzen diren arren, autentikotasunik ez dutela diote beren narrazioen bitartez. Beraz, beren kasuan, ez dira jatorriaren arabera egindako komunitate baten parte sentitzen.

Baina, komunitatea beste hainbat elementuren arabera sortu daiteke. Izan ere, esan dugun moduan, Eloinak hainbeste haur (berek eta ingurukoena) hezi eta etxera etengabean iristen ziren familiako kidentzako hainbeste etxeko lan eta zaintza lan egin izanagatik, etxean egun eta gau ibili zen. Honek ez du esan nahi ingurunearekin harremantzen ez zenik, izan ere, lehen aipatu dugun moduan, bere behar afektibo eta material asko inguruko (baserriko, etxadietako) beste kideei esker ase zituen. Zentzu

¹⁴⁷ Joséri 2014-06-27 egunean egindako elkarrizketa.

honetan, oso markatua du berak zein komunitateren parte sentitzen den: familia odolezkoaren eta bere bizilagunen komunitatearen parte.

Y luego, una condición, que yo no me he sentado en casa de ninguna vecina... pero mi casa, era una cosa... Subían desde el primer piso, hasta la buhardilla... a escuchar una radio que tenía. No sé que tenía... y luego, en Orbegozo, me pasó igual. En Orbegozo compramos una tele, que las tenía la fábrica, y pagabas al mes, o sea, te quitaban una letra. Eran baratas. Y... fue de los primeros que compramos, para que vieran los muchachos. Ya tenía yo a todos. Y las vecinas: “¡Aaaaay, ya tiene usted una tele!”, “Sí”. Y dice este hombre [Senarrak]: “Bueno, cuando queráis ver algo, subís”. ¡¡La que tuvimos!! Hubo que hacer banquetas pequeñas para que se sentaran los críos... subían desde abajo, que eran tres pisos... bajaban todos: la Juli con las dos crías, y el marido; otra Juli que vivía abajo, con las dos crías; la otra de enfrente: “Señora Eloína, que si se van a quedar esta noche”. ¡Ay madre...! Todos en la cocina, que era una cocina muy grande, todos hasta en mantas *sentaos*. Y una vecina de arriba... me bajaba un corre que se llamaba... que se metían ahí a los niños, que era una cosa de mimbre... “¡Señora Eloína, voy a bajar un poco a la Arantxa, que tengo que hacer no sé qué!”. Y yo siete, más éste. Y yo nunca he entrado ajena, pero madre mía la que me cayó. Y decía éste: “Jolín, no nos dejan ver nada”, y yo: “la culpa has tenido tú. Pon ahora un letrero ‘se prohíbe la entrada’” [Barreak] Ui... madre... qué cocina... ahora mismo cuando me ve la Juli me dice: “Ay, cómo me acuerdo de cuando cantábamos todos en la cocina”. Siete hijos yo, más esos... no te digo nada¹⁴⁸.

Kasu honetan telebistaren eta irriaren inguruan egiten zuten komunitatea, baserrian, beste edozeren inguruan (bazkariak, arropa garbitzea, sukaldea...) sortzen zuten hori zen. Azpimarragarria da, kasu honetan, irri eta telebistak kanpoko zen horrekin konektatzeko baliatzen zuten bezala, elkarren arteko taldea indartzeko ere erabiltzen zutela. Behin eta berriro “zein gaizki pasa duten” gogoratzen duen bezala, gogoratzen ditu halako eszenak Eloinak, eta hortaz, esan dezakegu horri guztiari “erresisititu” eta “aurre egiteko” zerabilgela.

Komunitatea dena jasateko nukleo gisara planteatzen dugu, komunitate hori lausoagoa

¹⁴⁸Eloinari 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

baldin bada ere. Adibidez, Mariren bizitza beldurrak markatzen du dudarik gabe, hala ere, nolabait, beldur horretatik atera ahal izateko adorea ateratzen du etengabe. Esan dugu Mariren ibilbidea oso mugikorra izan dela, eta urte asko pasa zirela leku batetan finkatu denera arte. Finkatu gabeko urte horietan, inon errotuta ez egote horrek ere hainbat egoerari bakarrik aurre egitera eramán zuten. Hala ere, nolabait, esan dezakegu komunitate lauso horrek ematen diola kemena bere lan baldintza txarren aurrean zerbait egiteko.

Y al llegar a Barcelona, el tercer año. Yo había oído a amigas mías, que estaban en Salamanca, a estudiantes que venían de todas las naciones a estudiar a Salamanca a la universidad... pues que cogían chica de sábado a lunes. Y ganaban 500 pesetas, e iban al pueblo. Y a mí me daba aquélla trescientas. Y entonces, pues, yo no disponía de dinero alguno. Nada, es que no me pagaba, nada más que al año... me daba lo que le parecía... y, ¡hala!... Yo si iba a escribir... porque yo no iba a ningún *lao* los domingos, me quedaba yo ahí con ellos, en casa, planchando camisetas o... y luego a doblar. Es lo que hacía los domingos, no salía ni nada. No tenía nada. (...) Y cuando nos llevaron del pueblo a Barcelona, pues ya había yo oído el comentario de mis amigas, que estaban en esas casa, que ganaban quinientas pesetas. Y yo llegué allí, y dije... yo tenía valor *pa* pedir, ni hacer nada... como no tengo ahora... y le dije “bueno, me tendrá que subir... porque llevo tres años aquí, y yo veo que mis amigas están en Salamanca, tienen los fines de semana, de sábado a lunes, libre, se van a sus casas, ven a sus madres... yo estoy aquí un año sin más y sin más... pues qué menos que me den 500 pesetas como ganan mis amigas”¹⁴⁹.

Mariren bizilekuak aldakorrak izan zirenez, Zumarragan finkatu zen arte, bere sustraiak Cañizalen mantendu zituen. Hala, bertako lagun eta familiek babesten zutela eta nolabaiteko komunitate lauso edo sentimentalago baten parte zela uste dugu.

Bistan denez, elkarrizketatuen identitate eta izateak defintzerako garaian hainbat faktorek eragiten dute. Hala ere, komunitate baten edo beren burua non defintitu eta finkatzen duten defintzeak oso emozionala dirudi, beren kasuan behintzat. Esan dugunez, identitateak eta subjektibitateak aztertzerako orduan emozioei erreparatzeak badu garrantzia. Horien bitartez arrazoitzen baitugu, hein handi batetan, gure burua gure

¹⁴⁹Mariri 2014-07-07 egunean egindako elkarrizketa.

ingurunean. Zentzu honetan, oroitzapenek lorratza uzten baitute oroimenean, eta horren balorazio positibo edo negatiboaz eratzten da bakoitzaren identitatea.

7- ONDORIOAK

Ezinbestekoa da gure ikergaiaren ondorioei eutsi ahal izateko ikerketari berari jarri genizkion helburu eta hipotesiei begiratua ematea. Horien arabera, migrazioa ulertu ahal izateko behar material zein espektatibak kontutan hartu beharrekoak dira. Ikerketan zehar argi gelditu den bezala, migrazioak ulertzeko ezinbestekotzat jotzen dugu hainbat faktore elkar gurutzatu eta kontutan hartzea.

Batetik, testuinguru historikoa kontutan hartzea oinarrizkoa da, batetik, aldaketa ekonomiko zein sozialak ezagutzeko eta garaian jokoan zeuden diskurtsoen berri izateko. Kasu honetan, landan bizitza ateratzerik ez zegoela eta hiriguneetan oparotasuna zain zeukatela, bertan bizi baldintza hobekak eta are gehiago, lan asko egiten bazuten klase mugikortasun edo mugikortasun soziala gauza zezaketelako ideiak oso dira kontutan hartu beharrekoak. Hala, Erregimenak bultzaturiko ideiak nolabaiteko uholdea eragin zutela uste dugu: domino fitxak bailiran, landatik hiriguneetara mugitzera bultzatu zituelarik haietako bakoitza, tantaka, hari zehatz bati (familia, lagun edo herrikideen bidea jarraituz) txertatuz, edo ez.

Beraz, dudarik gabe, diskurtso hauek espektatiba batzuen eragile eta sortzaile izan ziren lekualdatu ziren horien kasuan, eta horiek, kontutan hartzea ezinbestekotzat dugu, prozesu horri hasiera ematearen azken zergatiak ulertu ahal izateko.

Espektatiba eta helburuak, ikusi dugunez, ez ziren migratzea erabaki zuten guztientzat berberak izango, esan dugunez. Zentzu horretan, aldaera hau (espektatibena) jaioterrian zuten egoera edo baldintza materialen do pobrezia mailaren arabera, izan ziren, oro har. Hala, Eloina eta Mariren egoerak prekarizatuagoak ziren heinean, beren helburu nagusia edo lehentasuna biziraupena izan zen, eta Juan eta Joserena, aldiz, lanaren bitartez mugikortasun soziala eta kontsumoa posible izatea.

Baina, baditugu beste hainbat arrazoiekin lekualdatu zirenak ere, zuzenean baldintza material horiek hobetzearekin lotzen ez direnak. Elenaren kasua genuke batetik, landa eremutik eta lan gogorretatik alde egiteko nahia eta hiriko bizitza probatu nahi izatea

beretzat lekualdatzeko arrazoi izan zirenak. Manuelek, bestalde, amaren heriotzak eragindako tristezia gainditzeko eta beste nonbaiten hutsune hori betetzeko lekualdatzea erabaki zuen.

Zentzu honetan, beraietako bakoitzarentzat migrazioak zer suposatu zuen eta zer esanahi ematen dioten aztertzea beharrezkotzat jotzen dugu, betiere generoaren ikuspuntua kontutan hartuz. Migrazioa jasan egin zutela baino, uste dugu, baldintza zehatz batzuetatik partitu eta beste batzuei aurre egin behar izan baziren ere, nor bere migrazio prozesuaren eragile eta subjektu aktibo izan zirela. Gauzak horrela, herritik lekualdatu izana, beren patuaren gaineko kontrola eduki zutelako baieztapenarekin arrazoitzen dute denek.

Horrela, batetik, emakumeentzako, emantzipaziorako bidea izan zitekeen hori hasia izan zen migrazio prozesuarekin batera egin zutena. Elenaren adibidea dugu garbiena, baina, Marirentzat bere lan baldintzak hobeak izan zitezen bere beldurrei aurre egin izana, modu horretan ere uler dezakegu. Gizonezkoentzat, aldiz, desarrollismoaren ideietan oinarritzen ziren proiektuen egikaritzea edo hori gauzatu ahal izateko ibilbidearen hasiera litzateke lekualdatzearena, eta horrekin batera etorri ziren, hiria, modernotasuna, eskala sozialean gora egitea, eta abar. Bestalde, migrazioaren bitartez familia berria eratzearen proiektu gisara ere uler dezakegu, eta baita, bigarren gurasoek eurentzat zer suposatu zuen hala azpimarratzea.

Guzti honetaz gain, eta biziraupen estrategien gaiari dagokionean, baieztatzen dugu, praktikan langile profila zuten familien kasuan ezinezkoa zela *gizon hornitzailearen* eta *etxeko andrearen* eredu teorikoa gauzatzea. Aurreikusi bezala, kide guzti edo gehienen parte hartzea eta ondoriozko ekarpen monetarioak beharrezkoak izan ziren, dela, patrona gisara edo beste merkatu-azpiko lanak eginez (oro har, garbitzaile modura) emakumeen kasuan, dela, hainbat lan konbinatuz eta ordu extrak eginez (hauetako batzuk ere merkatu beltzean), gizonezkoen kasuan, eta gaztetatik lan eginez, haurren kasuan. Emakumezkoen kasuan, merkatutik irten ohi ziren haurrak edukitzerako garai erreproduktiboan, ondoren itzultzeko.

Biziraupenerako elementu klabetzat jotzen dugu etxea, migrazioa gauzatzen den momentuan, hau da, helmugara iritsi eta berehala. Honen jabetzaren aspirazioa izango da, ordea, desarrollismoaren diskurtsoak langileengan gehien eragiten duen ideietako bat, oparotasun edo baldintzen hobekuntzaren seinale gisara.

Hala ere, azpimarratu nahi dugun ideietako bat zera da: baldintza material horiek bermatzeko biziraupenerako estrategia horiek modu zabalagoan ulertu behar ditugula, ezinbestekoak izan baitziren ingurune berri eta ezezagunean, jaioterrian eta bertan ziurtzat zirenak ordezkatzeari. Zentzu honetan, migrazioa herriarekiko eta familiarekiko zein terminotan egin zuten kontutan hartu behar dugu. Esan dugunez, migrazioaren arrazoiak arrazoi, emakumeek herriarekiko atxikimendua mantendu zuten, hasiera zailean behintzat, hein handi batetan, bakarrik irten baldin baziren ere (Mari eta Elenaren kasuaz ari gara, noski), azken finean, familiari diru-laguntza bidaltzea ezinbestekoa baitzen haientzat. Beraz, eurentzat eskutitz bidezko etengabeko harremana garrantzitsua izan zen egoerari aurre egin ahal izateko.

Hala ere, harreman berriak egitea ezinbestekoa izan zen, bertan sozializatu eta biziraun ahal izateko. Genero ikuspuntutik, ezberdinak izan ziren harreman horiek josteko modua. Manuel, Juan eta Joséren kasuan, modu errazago batetan saretu ahal izan zirela uste dugu. Batetik, pupilo bezala zeuden etxeetan bigarren familia batetan sentitzen zirelako; bertan egon eta zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaintzen baldin bazuten ere, eurentzako ezinbestekoak izan ziren “ordaindu gabe jaso zituzten gauza guzti horiek”. Gainera, lankideekin modu naturalean egindako harremanak ere berebiziko garrantzia eduki zuten eurentzat.

Bestalde, Mari eta Elenaren kasuan, gazte gazterik zerbitzu domestikoan aritzeko (besteak beste) migratu zutenak, etxeko lau paretatik ihes egiteko zituzten ordu eskasak aprobeztatzea klabea izan zen, harremandu eta aipatzen dugun sozializazioa gauzatu eta segurtasun hori lortzeko. Bestalde, etxean umeen zaintzan eta etxeko lanetan buru belarri ibili zen Eloinarentzat, bizilagunak izan ziren bere harremanetarako pertsona horiek, dudarik gabe, egoeraren gordinari aurre egiteko funtsezko izan zirenak, esan dugunez.

Hortaz, biziraupenerako guztiz klabe ikusten ditugu afektuzko harreman guzti hauek. Sare baten gisara, laguntasunez gain, behar, desio eta zalantzak modu komunitario batetan ebatzi ahal izateko giltza izan zirelarik. Horrela, dantzaldietan zein bizilagunen artean eratzen ziren guzti horri aurre egiteko moduak. Azkenerako, komunitatea eratze gako izan zirenak.

Azkenik, aipatu moduan, identitate eta auto-pertzepzioetan migrazioek eta hau zela-eta sortutako egoera berriek eragin zutela uste dugu. Horrela, gehienetan, lekualdatu zirenek momentu klabe bat azpimarratzen dute, norberaren eraldaketa hori modu sinboliko batetan irudikatzeko ahalmena eta horren berri ematen diguna. Horren adibide dira, Juan eta Manuelentzat familia berrian beren lekua egitearen kontakizunak, esan bezala, berentzat familia berregite hori izan baitzen migrazioaren esanahi nagusietako bat. Bestalde, Eloinak elkartasunezko komunitate horren eraketa sinboliko eta horren parte sentitzea litzatekeelarik eraldaketa momentu klabea.

Identitateaz hitz egiten gabiltzalarik, ezin ahaztu dugu klase eta genero faktoreak nola uztartu eta gainjartzen diren bereziki migrazio prozesu horietan guztietan. Genero ikuspuntutik, beraz, modu ezberdinean eragin zieten dimentsio hauek migrazio prozesuan zehar. Batetik, hiru emakumeek, klasea prekarietate terminoetan sentitu baitzuten gehien bat. Hala, egoeraren estuari amaigabe aurre egin behar izanak, eta horretarako kolektiboaren elkartasuna edukitzea, harrotasun bilakatzeraino (Eloinaren kasuan, batez ere). Korapilatsuagoa izan zen Mari eta Elenaren bizipena. Batetik, prekarietate hori bizi izan zutelako, baina, etxeko andre eta langile aldi berean izatearen tentsioa bizi izan zutelako: natural bizi zuten arren, etxetik at eta merkatuan (azpikoan baldin bazen ere) lan egiteak garrantzia handiagoa hartzen baitzuen beren identitateetan, prekarietateari aurre egiteari gailentzen zitzaizolarik.

Printzipioz, desarrollismoaren diskurtsoekin batera zihoan emakumeek etxetik kanpo lan egitearen ideia, baina, momentuotan eraldatzen ari zen ideia bat zen, eta euren, beren langile kondizioarekin batera (klaseko patua) bizi zuten bi esferak zeharkatzearena. Hau da, aukera baten gisara eta gogoekin hartzen baldin bazuten etxetik kanpo egindako lana, bazekiten beharrek bultzatutako zerbait zela, eta are gehiago, “senarragatik balitz ez luketela egingo”. Ikusten dugunez, tentsio gunea eta gaia izan zen honako hau, dudarik gabe, gizonen eginbeharra (hornitzaile izatea, alegia) kolokan jartzen zuena.

Bestalde, hiru gizonetakoek, klaseari dagokionean, beste esanahi bat ematen zioten. Esan bezala, beren helburuak gehiago hurbiltzen ziren beren klaseko eta langile kondizioaren errefusapen edo ezkutaketari, aipatu moduan, desarrollismoak, mendebaldeak eta kontsumismoak zabaldutako ideia edo idealekin bat egiten zutelako, eta beren nahia, euren jatorri apala baldintzatzailea ez izatea baitzen. Aitzitik, desarrollismoaren ideien

kontratara, ez zuten bere pribilegio edo identitatearen erdigunean zegoen etxeko hornitzailearen garrantzi eta errekonozimendu hori galdu nahi, familietan gatazka eragin zuelarik maiz halako gaiek, aldaketa horri, beren moduan, erresistentzia egin zitelarik.

Aztertu dugun identitatearen azken dimentsioari dagokionean, baieztatu dezakegu eta esan, nongotar sentitu eta pertenezia definitzea migrazio prozesuak eraldatzen duen alderdia izan zirela. Batetik, identitate nazionala ulertzerako orduan, galiziarren kasuan, lotsa eta erreafirmazio artean bizi eta definitzen zutela. Izan ere, beren jatorria (landakoa eta paletoa, galiziera ezin ezkutatu ahal izateagatik) adieraztea zaila egiten baitzitzaie, nahiz eta denek jarraian bere horretan indartu eta harro sentitzeko prozesua eman zuten ondoren.

Elena, Eloina eta Mariren kasuan, ez zuten halako erreferentzia kultural sendorik beren jatorriarekiko. Gainera, klase eta genero identitateek gehiago pisatzen dute haientzat. Hala ere, aipatzen joan garen moduan, oso da azpimarratzekoa elkartasun, babes eta laguntzarako komunitate sinboliko hori dela eurentzat zeren parte sentitzen ziren oroitu eta kontatzen dutenean azaldutakoa.

Azken finean, diogunean migrazio prozesuaren subjektu aktibotzat hartu behar ditugula gure ikergaiaren subjektu eta objektu izan zirenak, esan nahi dugu, egoera zehatz batzuetatik (oso prekarizatu eta zailak zirenak) aukerak sortu zituztela, dela, beren ibilbidearen jabe izan edo sentitzeko, dela etorkizuna non eraiki nahi zuten erabakitzeke, dela harremanak egiteke, dela beren ibilbide propioak gidatzeko. Izan ere, migrazioak lekualdatzetik haratago, momentu dinamikoak dira, eraldaketarako aproposak izan daitezkeenak. Hortaz hitz egiten dute, gutxienez, beren bizitza historiek. Hobe esanda, beren narrazioak ulertzeko proposamen edo irakurketa hau egiten dugu guk.

8- BIBLIOGRAFIA

- ACOSTA, Gonzalo; DEL RÍO, Ángel; VALCUENDE, José María (Koord) (2007). *La recuperación de la memoria histórica. Una perspectiva transversal desde las Ciencias Sociales*. Fundación Centro de Estudios Andaluces, Sevilla.
- AIERDI URRAZA, Xabier (1993). *La inmigración en el espacio social vasco*, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, Leioa.
- ARBAIZA VILALLONGA, Mercedes (2010). “Economía en tiempos de postmetafísica: una perspectiva feminista”, in PEREZ-FUENTES, Pilar (Ed.), *Subjetividad, cultura material y género. Diálogos con la historiografía italiana*. 239-277. Icaria, Bartzelona.
- BALLESTEROS DONCEL, Esmeralda (2002). “Construcción social del empleo femenino en España (1850-1935)”, *Arenal-Revista de historia de las mujeres*, 9, 2. Zk, 241-267.
- BARRUTIABENGOA, Usoa; ELIAS, Nerea; GONZALEZ, Garoa; RODRIGUEZ, Araitz (2004). *Ganbarako ahotsak. Hernaniko historian emakumeek eginiko ekarpenak (1936-1970)*. Hernaniko Udala, Lasarte-Oria.
- BASTERRA, Ilune; IRAOLA, Iker; MATEOS, Txoli; ZABALO, Julen (2009). *Etorkinak eta integrazioa. 50-80 hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*, Gite-Ipes: Julio Araulze Beka, Bilbo.
- BLANCO FERNÁNDEZ DE VALDERRAMA, Cristina (1994). “Inmigración e identidad colectiva. Reflexión sobre la identidad en el País Vasco”, *Papers*, 43. Zk, 41-61.
- BENERÍA, Lourdes. (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*, Editorial Anagrama, Bartzelona.
- BERNECKER, Walther L. (2009) “El cambio de mentalidad en el segundo franquismo” in N. Townson (Ed.) *España en cambio: el segundo franquismo, 1959-1975*. 49-70. Siglo XXI, Madril.
- BORDERÍAS, Cristina (1991). “Las mujeres, autoras de sus trayectorias personales y familiares a través del servicio doméstico”, *Historia y Fuente Oral*, 6. Zk, 105-121.

- BORDERÍAS, Cristina (1993a). “Emigración y trayectorias sociales femeninas”, *Historia Social*, 17. Zk, 75-94.
- BORDERÍAS, Cristina (1993b). *Entre líneas. Trabajo e identidad femenina en la España contemporánea, 1924-1980*. Icaria Editorial, Bartzelona.
- BORDERIAS, Cristina (2002). “El trabajo de las mujeres en la Cataluña contemporánea desde la perspectiva de los hogares: balance y perspectivas”, *Arenal-Revista de historia de las mujeres*, 9, 2. Zk, 269-300.
- BORDERÍAS, Cristina (Ed.) (2008). *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*, AEIHM, Icaria Editorial, Bartzelona.
- BORDERÍAS, Cristina eta PÉREZ-FUENTES, Pilar (2009). “Mujeres, trabajos y economías familiares en España (siglos XIX y XX)” in C. Borderías (Ed.), *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*. 269-308. AEIHM, Icaria Editorial, Bartzelona.
- CABRERA, Miguel Ángel (2001). *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad*, Ediciones Cátedra, Madril.
- CABRERA PEREZ, Luis Alberto (2005). *Mujer, trabajo y sociedad (1839-1983)*, Fundación BBVA, Fundación Largo Caballero, Madril.
- CANALES SERRANO, Antonio Francisco (2003). “Desarrollismo, inmigración y poder político local: el problema escolar en Barakaldo”, *Historia Contemporánea*, 26. Zk, 57-76.
- CARRASCO, Cristina (2001). “Sostenibilidad de la vida humana: ¿Un asunto de mujeres?”, *Mientras Tanto*, 82. Zk, udazkena-negua, Icaria Editorial, Bartzelona.
- CARRASCO, Cristina (2011). “La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes”, *Revista de Economía Crítica*, 11. Zk, 205-225.
- CENARRO, Ángela (2013). “La historia desde abajo del Franquismo”, in O. Rodríguez Barreira (Ed.), *El Franquismo desde los márgenes. Campesinos, mujeres, delatores, menores...* 29-44. Editorial Universidad de Almería, Edicions de la Universitat de Lleida, Lleida.
- CHACÓN DELGADO, Pedro José (2006). *La identidad maketa*, Hiria, Donostia.

- CHÁRRIEZ CORDERO, Mayra (2012). “Historias de vida: una metodología de investigación cualitativa”, *Revista Griot*, 5, 1. Zk, 50-67.
- DE PABLO, Santiago (2002). “La dictadura franquista y el exilio” in J. L De la Granja eta S. de Pablo (Koord), *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*. 85-115, Biblioteca Nueva, Madrid.
- DI FEBBO, Giuliana (1991). “El ‘monje guerrero’: Identidad de género en los modelos franquistas durante la Guerra Civil” in *Las mujeres y la Guerra Civil Española*, III Jornadas de estudios monográficos, Instituto de la Mujer, Madrid.
- DOMÈNECH SAMPERE, Xavier (2003). “La otra cara del milagro español. Clase obrera y movimiento obrero en los años del desarrollismo”, *Historia Contemporánea*, 26. Zk, 91-112.
- GALLEGO MÉNDEZ, M^a Teresa (1983). *Mujer, falange y franquismo*, Taurus, Madrid.
- GARCÍA-ORELLÁN, Rosa (2011). *Mujer pasaitarra en el pasado siglo XX. Recreación de vivencias e imaginarios*, Monográficas Michelena, Donostia.
- GONZÁLEZ PORTILLA, Manuel (Zuz.) (1995). *Bilbao en la formación del País Vasco contemporáneo (economía, población y ciudad)*, Fundación BBVA, Bilbo.
- GREGORIO GIL, Carmen (1998). *Migración femenina. Impacto en las relaciones de género*. Narcea, Madrid.
- JIMÉNEZ JULIÀ, Eva (1999). “Una revisión crítica de las teorías migratorias desde la perspectiva de género”, *Arenal-Revista de historia de las mujeres*, 6, 2. Zk, 239-263.
- JULIANO, Dolores (2012). “Tiempo de cuaresma. Modelos de sexualidad femenina bajo el franquismo” in R. Osborne (Ed.), *Mujeres bajo sospecha. Memoria y sexualidad, 1930-1980*. 35-47. Editorial Fundamentos, Madrid.
- LABRADOR FERNÁNDEZ, Jesús (2002). “Identidad e inmigración femenina” in A. García-Mina eta M. J. Carrasco (Ed.), *Cuestiones de género en el fenómeno de las migraciones*, Publicaciones de la Universidad Pontificia Comillas, Madrid.

- LARRAÑAGA SARRIEGI, Mertxe (2013). “Algunas claves de la economía feminista”, in Mundubat, *Alternativas feministas frente a la crisis*, Donostia.
- LLONA, Miren (2006). “La construcción de la identidad de la clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables”, *Historia Social*, 54. Zk, 282-300.
- LLONA, Miren (2012). *Entreverse: teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Universidad del País Vasco, Leioa.
- MARTÍNEZ BOUZAS, Laura (2010). “Las mujeres en tiempos de fiestas y ocio en Laudio/Llodio” in E. Barranquero Texeira (Ed.), *Mujeres en la Guerra Civil y el Franquismo: violencia, silencio y memoria de los tiempos difíciles*. 187-200. Centro de Ediciones de la Diputación de Málaga, Malaga.
- MARTÍNEZ MARTÍN, M^a Ascención (1996). “Crecimiento económico y promoción socio-profesional de la mujer (1959-1985): Planteamiento general y desarrollo en el País Vasco” in ORTEGA, Margarita eta MATILLA, María Jesús (Ed.), *El trabajo de las mujeres: siglos XVI-XX, Actas de las sextas Jornadas de Investigación Interdisciplinaria*. 531-545. Universidad Autónoma de Madrid, Madrid.
- MARTINS RODRIGUEZ, Maria Victoria (2012). “Sección Femenina: modelos de mujer bajo el franquismo” in R. Osborne (Ed.), *Mujeres bajo sospecha. Memoria y sexualidad, 1930-1980*. 275-291. Editorial Fundamentos, Madrid.
- Mc DOWELL, Linda (2000). *Género, identidad y lugar. Un estudio de las geografías feministas*, Ediciones Cátedra, Colección Feminismos, Valentzia.
- MEDINA DOMÉNECH, Rosa María (2012). “Sentir la historia. Propuestas para una agenda de investigación feminista en la historia de las emociones”, *Arenal-Revista de historia de las mujeres*, 19, 1.Zk, 161-199.
- MOLINERO, Carme eta YSÀS, Pere (2008). *La anatomía del Franquismo: de la supervivencia a la agonía, 1945-1977*, Crítica Contrastes, Bartzelona.
- MONTERO, Manuel (2004). *Historia del País Vasco. De los orígenes a nuestros días*. Txertoa Editoriala, Donostia.

- MORENO SECO, Mónica (2008). “Ideal femenino y protagonismo de las mujeres en las culturas políticas católicas del franquismo”, *Arenal-Revista de historia de las mujeres*, 15, 2. Zk, 269-293.
- MUÑOZ RUIZ, María del Carmen (2007). “Masculinidad y nuevo movimiento obrero bajo el franquismo” in J. Babiano (Ed.), *Del hogar a la huelga. Trabajo, género y movimiento obrero durante el Franquismo*. 245-285. Catarata, Madrid.
- NASH, Mary (1995). “Identidades, representación cultural y discurso de género en la España contemporánea” in P. Chalmeta; F. Checa; M. González Portilla (eta bestea), *Cultura y culturas en la historia*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca.
- NASH, Mary (2003). “Representaciones culturales y discurso de género, raza y clase en la construcción de la sociedad europea contemporánea” in M. Nash eta D. Marre (Ed.), *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*. 21-35. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- ORTUÑO MARTÍNEZ, Bárbara (2007). “Redes migratorias femeninas en la emigración española (1946-1960)”, *Millars: espai i història*, 30. Zk, 63-76.
- PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar (2004). ‘*Ganadores de Pan*’ y ‘*Amas de Casa*’. *Otra mirada sobre la industrialización vasca*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- PEREZ OROZCO, Amaia (2002). “¿Hacia una Economía Feminista de la sospecha?”, *Revista en otras palabras*, 13. Zk.
- PEREZ OROZCO, Amaia (2006). “La economía: de icebergs, trabajos e (in)visibilidades”, in Laboratorio Feminista, *Transformaciones del trabajo desde una perspectiva feminista: producción, reproducción, deseo, consumo*, 233-253. Madrid.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2013). “La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿Y eso que significa?”, *IV Congreso Economía Feminista*, Carmona.
- PÉREZ PÉREZ, José Antonio (2001). *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del Gran Bilbao (1958-1977)*. *Trabajadores, convenios y conflictos*, Editorial Biblioteca Nueva, Madrid.

- PEREZ PEREZ, José Antonio (2004). *Oroimenaren ispiluak. Basauriko emakumeen ahozko historia 1937-2003*. Basauriko Udala, Basauri.
- PÉREZ PÉREZ, José Antonio (2007). “Trabajo doméstico y economías sumergidas en el Gran Bilbao a lo largo del desarrollismo: un mundo invisible y femenino” in J. Babiano (Ed.), *Del hogar a la huelga. Trabajo, género y movimiento obrero durante el Franquismo*. 77-138. Catarata, Madrid.
- PICCHIO, Antonella (2001). “Un enfoque macroeconómico ‘ampliado’ de las condiciones de vida”, in CARRASCO, Cristina (Ed.), *Tiempos, trabajos y género*. 15-37. Publicacions Unibersitat de Barcelona, Bartzelona.
- RAFÓLS YUSTE, Elena; VERDÚ GUINOT; RAFÒLS, Neus G. (2010). “La construcción represora franquista: las mujeres y la infancia como elementos de socialización” in E. Barranquero Texeira (Ed.), *Mujeres en la Guerra Civil y el Franquismo: violencia, silencio y memoria de los tiempos difíciles*. 143-164. Centro de Ediciones de la Diputación de Málaga, Malaga.
- RINCÓN DÍEZ, Aintzane (2013). “Marisol y tío Agustín: Dos paletos en Madrid. Estudio del éxodo desarrollista a través del cine”, *Ecléctica-Revista de estudios culturales*, 2. Zk, 90-101.
- ROMO PARRA, Carmen (2005). “El desorden de la identidad persistente. Cambio social y estatus de la mujer en la España desarrollista”, *Arenal-Revista de historia de las mujeres*, 12, 1. Zk, 91-109.
- ROSE, Sonya O. (2012). *¿Qué es historia de género?*, Alianza Editorial, Madrid.
- RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio (2012). *Metodología de investigación cualitativa*, Universidad de Deusto, Bilbo.
- SANTAPAU PASTOR, M^a Carmen; HERREROS GONZÁLEZ, Carmen (2010). “Asociacionismo femenino durante el franquismo: el caso de Logroño” in E. Barranquero Texeira (Ed.), *Mujeres en la Guerra Civil y el Franquismo: violencia, silencio y memoria de los tiempos difíciles*. 165-185. Centro de Ediciones de la Diputación de Málaga, Malaga.

-SARASUA, Carmen; MOLINERO, Carme (2008). “Trabajo y niveles de vida en el franquismo. Un estado de la cuestión desde una perspectiva de género” in C. Borderías (Ed.), *La historia de las mujeres: perspectivas actuales*. 309-354. Icaria, Barcelona.

-SCOTT, Joan W. (1996). “El género como categoría útil para el análisis de histórico”, *El género: la construcción cultural de la diferencia sexual*, PUEG, México.

-SCOTT, Joan W. (2006). “El eco de la fantasía: la historia y la construcción de las identidad”, *Ayer*, 62. Zk, 111-138.

-SCOTT, Joan W. (2008). “Unanswered questions”, *American Historical Review*, 1422-1429.

-TORRES VILLANUEVA, Eugenio (2003) “La empresa en la autarquía, 1939-1959. Iniciativa pública versus iniciativa privada” in C. Barciela (Ed.), *Autarquía y mercado negro. El fracaso económico del primer franquismo*. 169-216. Crítica, Barcelona.

-VINCENT, Mary (2006) “La reafirmación de la masculinidad en la cruzada franquista”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 28. Zk, 135-151.